

Egileak: Karlos Aizpurua, Amaia Altube, Estitxu Arozena, Iñaki Aurrekoetxea, Itziar Eizagirre, Arkaitz Estiballes, Iñaki Gurrutxaga, Joxin Iturrioz, Josu Landeta, Joxema Leitzia, Etxahun Lekue, Irati Lotina, Unai Ormaetxea, Oihane Perea, Kattalin Salaberri, Aitor Sarasua, Nerea Urra, Josune Zabala.

Aholkularitza pedagogikoa: HUHEZI

Edukiak berrikustea: Arantzazu Loidi, Jon Sarasua, Xabier Paya.

Testua osatzeko eta orrazteko lanak: Josune Zabala

Diseinu eta maketazioa: Truke estudio grafikoa

Argitalpenaren koordinatzailea: LANKU

Bertsolaritzaren Curriculuma

Lehen Hezkuntzan



Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270. eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

© LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Argitaratzaileak:

LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Astigarraga bidea, 2, 2.

Oiartzun

BERTSOZALE ELKARTEA

Igeldo pasealekua, 25

Donostia

I.S.B.N.:???????????

I.S.B.N.: ????????????

L.G.:

BERTSOLARITZAREN CURRICULUMA

SARRERA	9
CURRICULUM OINARRIAK LEHEN HEZKUNTZAN	13
1.- HEZKUNTZA SISTEMAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK	14
1.1.- Euskal Curriculumaren ekarpenak: konpetentzia orokorrak diziplina arloetan	14
1.2.- Oinarrizko Curriculum Diseinuaren ekarpenak: iturburuak	15
2.- BERTSOLARITZA CURRICULUMAREN HELBURU OROKORRAK	17
3.- IKUSPEGI GLOBALIZATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA	19
4.- ANIZTASUNAREN TRATAERA: PRINTZIPIOAK ETA ESKU HARTZEKO BIDEAK	21
5.- IRIZPIDE METODOLOGIKOAK	23
5.1.- Sekuentzia Didaktikoa	24
5.1.1.- Sekuentzia Didaktikoaren prestakuntza eta hezurdura	25
5.1.2.- Kontrol Zerrendaren garrantzia	27
5.2.- Ardatz metodologiko balioetsiak	28
5.3.- Irakaslearen estrategiak	30
5.4.- Denboraren antolamendua	33
5.5.- Ikasleak multzokatzea	34
5.6.- Hezkuntza mailako elkarreraginak	34
5.7.- Ebaluazio prozesuari buruzko erabakiak	35
5.7.1.- Zer ebaluatu?	36
5.7.2.- Noiz ebaluatu?	37
5.7.3.- Nola ebaluatu?	38
6.- HIZKUNTZA TRATAERA ETA EBALUAZIOA	39
6.1.- Curriculum-mailako alderdiak	39
6.2.- Lan antolaketa	40
7.- CURRICULUM PROIEKTUAREN EBALUAZIOA	41

ARLOEN JUSTIFIKAZIOA	43
HIZKUNTZA	44
1.- EUSKARAREN EGOERA ETA BERTSOLARITZA EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN	44
2.- HIZKUNTZAREN IZAERA BERTSOLARITZAN	45
3.- GAITASUN KOMUNIKATIBOA BERTSOLARITZAREN LANKETAN	48
3.1.- Gaitasun pragmatikoa	48
3.2.- Gaitasun soziologiko eta kulturala	49
3.3.- Gaitasun diskurtsiboa	49
3.4.- Gaitasun testuala	50
3.5.- Gaitasun estrategikoa	50
3.6.- Gaitasun gramatikala	51
KULTURA	52
1.- EUSKAL KULTURAREN EZAUGARRIAK: BIZIA, DINAMIKOA ETA ANITZA	52
1.1.- Kultura batua	53
2.- KULTURAREN DIMENTSIOAK	53
2.1.- Kulturak globalizazioan	53
3.- BERTSOLARITZA: ERTZEKO KULTUR ADIERAZPENA	54
MUSIKA	55
TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK	57
1.- TREBETASUN PERTSONALAK	57
2.- TREBETASUN SOZIALAK	58
3.- HEZKIDETZAREN IKUSPEGIA	59
HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
ARLOZ ARLO	61
1.- HELBURUAK ETA EDUKIAK CURRICULUMEAN	61
2.- EBALUAZIO ADIERAZLEAK	63
HIZKUNTZA. Komunikatzen ikasi	65
1.- HELBURUAK	65
2.- EDUKIAK	66
2.1.- Jarrerak	66
2.2.- Kontzeptuak	66
2.3.- Prozedurak	67
3. EBALUAZIO ADIERAZLEAK	69

KULTURA. Pentsatzen eta norbera izaten ikasi	70
1.- HELBURUAK	70
2.- EDUKIAK.....	70
2.1.- Jarrerak	70
2.2.- Kontzeptuak	72
2.3.- Prozedurak	74
3. EBALUAZIO ADIERAZLEAK	76
MUSIKA. Komunikatzen eta norbera izaten ikasi	77
1.- HELBURUAK	77
2.- EDUKIAK.....	77
2.1.- Jarrerak	77
2.2.- Kontzeptuak	78
2.3.- Prozedurak.....	79
3. EBALUAZIO ADIERAZLEAK	80
TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK.	
Norbera izaten eta elkarrekin bizitzen ikasi	82
TREBETASUN PERTSONALAK	82
1.- HELBURUAK	82
2.- EDUKIAK.....	82
2.1.- Jarrerak	82
2.2.- Kontzeptuak	83
2.3.- Prozedurak.....	84
TREBETASUN SOZIALAK.....	85
1.- HELBURUAK	85
2.- EDUKIAK.....	85
2.1.- Jarrerak	85
2.2.- Kontzeptuak	86
2.3.- Prozedurak.....	88
3. EBALUAZIO ADIERAZLEAK	90
ARLOETAKO EDUKIAK TAULATAN (sintesia)	91
AZKEN HITZ HONDARRAK	95
BIBLIOGRAFIA	97

Sarrera

Euskal Herriko ondare historiko-kultural eta linguistiko honek asmatu egin du, unean-unean eta tokian-tokian, gaur egun arteko behar komunikatibo eta sozialetara egokitzten. Euskal gizarteak komunikazio eta errepresentazio molde jakin hau eraiki eta mantendu du mendeetan zehar, eta funtzio askotarikoak eman dizkio: funtzio komunikatzailea, funtzio soziala, funtzio ludiko eta estetikoak, funtzio integratzailea, funtzio kritikoa, etab.

Gizakiarekin, gizartearekin eta izadiarekin harremanetan, arlo eta eduki ugari ukitu, jorratu eta garatu ditu, eta, era berean, horiek guztiak izan dira bere mintzagai eta entzungai. Beraz, Bertsolaritzaren Curriculumak hizkuntzaren alorrean ez ezik, edozein diziplina arlotan txertatzeko aukerak ematen dituela onartzea zilegi dugu.

Bertsoa gizatalde jakin batek komunikatzeko, irudikatze eta gozamenerako darabilen tresna den heinean, bere irakaskuntzaren ikuspegi instrumental eta linguistikoa hartzen da kontuan, bertsogintzak trebetasun horiek garatzen laguntzen baitu bete-betean.

Arlo honen helburua ikasleak prestatzea da, inguruan duten errealitatearekin bat egin ez jardunean erdietsitako gaitasunak eraginkortasunez erabil ditzaten bizitza pertsonalaren eta sozialaren esparru guztietan.

Halaber, bertsoa, bere soilean, edozein testuingurutan eraikitako literatur generotzat hartua izan da. Literatur genero gisa, hainbat ezaugarri definitu eta mugatzen dute bere ekoizpena (doinuak, neurriak eta errimak¹, orobat). Diskurtsoaren ikuspegitik begiratuta, bestalde, edozein gai jorratu eta komunikazio genero askotarikoak eraiki eta jasotzeko molde irekia ere bada. Komunikazio parametroen alderdi guztiei erantzuteaz gain, badu balio erantsi bat: hizkuntzaren alderdi ludiko-estetikoa eta jendaurrekotasuna berezko dituen kultur gauzatzea da.

Beraz, bertsogintza gizarte dimentsioan kokatzen da, ahoz eta idatziz komunikatzen da, ekoizpenaren gaineko hausnarketak egiten dituzte igorle eta hartzaileek, eta kultura, pentsamendu eta literatur transmisio nahiz ondarearen jabe delarik dirau bizi-bizirik.

Ildo horretatik, bertsogintzaren ikuspegi epistemologiko eta didaktikoa zabalduz, osatuz eta xehatuz ari gara arian-arian, eta horrek eraginda sortu da transmisio bide berriak urratzeko beharra, hots, ikuspegi osatu eta bateratzaileak aintzat hartuko dituen curriculumak eraikitze premia.

¹ Garzia, J, Sarasua, J eta Egaña, A (2001) *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*

Era berean, bertsogintzaren hedakuntza gune eta uneak ere gero eta anitzagoak dira: izaera ezberdinetako bertso-eskolak ditugu; egoera eta ikuspegi ezberdinetako lan taldeak; adin ezberdinetako ikasleak eta ikasle taldeak ere bai; Hezkuntza Arautuan, Lehen Hezkuntzan, txertatu egin da hainbat eskoletan bertsogintza; eta abar.

Ugaritasun horren guztiaren itzalean sortu du Bertsozale Elkarteak curriculum hau: curriculum irekia eta malgua; integratzailea; ikuspegi epistemologiko berriak kontuan hartu dituena; ikas-irakaskuntza prozesuaz hausnartu duena; eta eraldagarria.

Curriculum diseinuari dagokionez, berriz, bere egin ditu Oinarrizko Curriculum Diseinuak² eta Euskal Curriculumak³ eskainitako azken proposamenak. Eta, bereziki, Lehen Hezkuntzako ikas-irakaskuntzari begira sortua bada ere, gainerakoetan dihardutenentzat ere baliagarri izan nahi du.

Esanak esan, hiru ataletan dago banatuta Lehen Hezkuntzari begira eraikitako curriculum hau:

1. Curriculum oinarriak Lehen Hezkuntzan

Bertsogintzaren errealitatea ikusteko moduak berekin dakar hura ikasi eta irakasteko metodologia kidea. Pedagogia bide berriak hartu izan dira irakurketa iturri, hortaz, metodologia eraikitzailea nabarmenduko da irakats eran. Hala, egungo curriculum diseinuetan proposatzen diren oinarriak aurkituko ditu irakurleak txostenean: hezkuntza sistemaren printzipio nagusiak Bertsolaritzaren Curriculumean; bertsolaritza curriculumaren helburu orokorrak; ikuspegi globalizatzailea eta integratzailea; aniztasunaren trataera; irizpide metodologikoak; hizkuntza trataera, eta curriculum proiektuaren ebaluazioa.

2. Bertsogintzaren deskribapena

Nahiz bertsogintzaren ikuspegia zabala, osatua eta bateratzailea den, lau arlo identifikatu eta hautatu dira bertsoa curriculumaren arloan deskribatzeko: hizkuntza; kultura; musika; trebetasun pertsonalak eta sozialak. Arlo bakoitzaren begiradatik deskribatzen da bertsolaritza atal horretan.

3. Ikas-irakaskuntzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak arloz arlo

Ageriko curriculumetan zehazten dira ikas-irakaskuntza helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak, eta honetan ere halaxe zehaztu da arlo bakoitza. Betiere, kontuan hartuta bertsogintza arlo guztien bateratze eta osotasun zentzuaz ulertzen dugula; beraz, haren ikas-irakaskuntza banatzailea baino areago, bateratzailea izango dela azpimarratzea zilegi da.

² Eusko Jaurlaritza (1992) *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza*

³ Ossa, J (Koord.) (2005) *Euskal Curriculum Diseinua*

Curriculum oinarriak Lehen Hezkuntzan

Curriculumak finkatzen du zein diren hezkuntza sistemaren asmoak, eta horixe bera erabiltzen da gidatuz hezkuntza praktika bideratzeko. Zer, noiz eta nola irakatsi nahiz ebaluatu baldere erantzuten die, hortaz, curriculumak.

Irakasleak, berriz, hainbat erabaki hartzen ditu gelara joan aurretik, eta horien guztien arabera jokatu du ikasleekin. Hona hemen garrantzizkoenak:

1. Jakintzaren ikuspegi epistemologikoa: zer da bertsogintza niretzat?

2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua: nola ikasten-irakasten da bertsotan?

3. Ikuspegi didaktikoa: nola lagundu ikasleei ikaskuntza prozesu arrakastatsua izan dezaten? Nola lagundu egiten eta ikasten? Nola lagundu ikasleek bakarrik ikasi ezin dutena ikasazten? Etab.

Galdera hauei erantzutea da curriculum honen helburuetako bat, eta, horretarako, Oinarrizko Curriculum Diseinuak eta Euskal Curriculumak proposatu dituzten ildo nagusiak hartu dira aintzat. Haietatik abiatuta diseinatu da, hain zuzen, bertsogintza-rena; arestian esan bezala, curriculum ireki, osatzaile eta eraldagarria.

Jakina da bertsogintza jorratze une eta gune guztietako errealitatea ez dela bera: egoera soziokultural eta linguistiko ezberdinak ditugu; helburu ezberdinak ezarrita tokian-tokian; giza baliabide askotarikoak; baliabide material eta ekonomiko anitzak... Aniztasun hau guztia kontuan hartuta, curriculum honek oinarrizkoa eta orokorra izan nahi du, egoera guztietan moldatzeko adina laguntzaile; finean, bertso-eskola eta irakasleen lan abiapuntu, ikuspegi teoriko zein metodologia bateratzaile. Ildo horretatik, esku artean duenaren ardura izango da curriculum honen egokitzapena.

Atal honetan, bertsolaritzaren irakaskuntza-ikaskuntzari begira eraiki diren oinarri hauek jorratuko dira:

- 1.- Hezkuntza sistemaren printzipio nagusiak Bertsolaritzaren Curriculumean
- 2.- Bertsolaritzaren Curriculumaren helburu orokorrak
- 3.- Ikuspegi globalizatzailea eta integratzailea
- 4.- Aniztasunaren trataera: printzipioak eta esku hartzeko bideak
- 5.- Irizpide metodologikoak
- 6.- Hizkuntza trataera
- 7.- Curriculum proiektuaren ebaluazioa

1.- Hezkuntza sistemaren printzipio nagusiak Bertsolaritzaren Curriculumean

Hezkuntza sistemaren arloak ondo ezagutzea eta horietaz hausnartzea ezinbestekoa da ikaste-irakaste prozesuak edo jarduerak diseinatu eta aurrera eramateko. Bertsoskoletan edo ikastetxeetan jarduerak diseinatzeko curriculum honek kontuan hartu dituen printzipioak azalduko dira gune honetan. Batetik, Euskal Curriculumearen uztatik ekarriak, eta, bestetik, aldiz, Oinarrizko Curriculum Diseinuaren iturritik edanak.

1.1.- Euskal Curriculumearen ekarpenak: kompetentzia orokorrak diziplina arloetan

Euskal Curriculumean aipatua den bezala, "hezkuntza prozesuaren xedea gizakiak gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea da"⁴, baita gizakiari "gizarte batean bizitzeak eragingo dizkion arazoei eta gaiari erantzuten jakingo duen hiritar gisa aritzeko kompetentzia horiek guztiak landuko dituen heziketa ematea"⁵ ere.

Bost kompetentzia orokorrez dihardu bere izaera hezitzailearen deskribapena egiten duenean, eta honako hauek dira kompetentziok: pentsatzen eta ikasten ikasi; komunikatzen ikasi; elkarrekin bizitzen ikasi; norbera izaten ikasi; egiten eta ekiten ikasi. Ikuspegi horri jarraituz, honako baieztapen hau ere geure egin nahi dugu: "curriculum antolatzeke ardatzek ez dute izan behar kontzeptuzko 'jakintza'k, pertsonaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren kompetentziak baizik (...). Kompetentzia jardunari lotuta dago; beraz, dinamikoa da"⁶.

Dinamikotasun horren baitan, diziplina arloei begiratzea baino areago, kompetentzien lanketari erreparatzea proposatzen du, eta, gehiago zehaztuz, arlo bakoitzean gara litezkeen kompetentziak identifikatu eta plazaratu ditu.

Curriculum honetan bertsogintzaren deskribapena lau arlo zientifikoren ekarpenen laguntzarekin osatuta dago: hizkuntza; kultura; musika; trebetasun pertsonalak eta sozialak. Euskal Curriculumearen proposamenarekin bat eginik, arlo hauetako bakoitzean zein kompetentzia lantzea dagokigun zehaztu dugu:



⁴ Ossa, J (Koord.) (2005) (22. orr.)

⁵ Ossa, J (Koord.) (2005) (18. orr.)

⁶ Ossa, J (Koord.) (2005) (27. orr.)

1.2.- Oinarrizko Curriculum Diseinuaren ekarpenak: iturburuak

Curriculum itxuratzeko iturburu jakin batzuk hartu ditu aintzat Oinarrizko Curriculum Diseinuak (hemendik aurrera, OCD), eta bertako informazioa erabiltzen da, hain zuzen, hezkuntza praktikaren norabidea zein den jakin eta hura gauzatzeko. Lau ardatz nagusiren baitan gorpuzten dira aipatu jakintzak: iturburu epistemologikoa, iturburu psikologikoa, iturburu pedagogikoa eta iturburu soziologikoa. Curriculum honek bat egin du OCDren ikuspegi honekin:

a) Iturburu epistemologikoa

Zientzia bakoitzak bere errealitatearen ezagutza deskribatu eta egituratzen du. Horiek moldatzen ditu, ondoren, hezkuntza proiektu bakoitzak. Ildo horretatik proposatzen dira curriculumetan arlo bakoitzari maila bakoitzerako dagozkion helburu eta edukiak. Hala, irakaslearen lana izango da arlo zientifikoan eraiki eta curriculumean proposatu diren edukiak ikasleen ezagutza zein trebetasun mailetara egokitzea, hots, Transposizio Didaktikoa egitea⁷.

b) Iturburu psikologikoa

Azterketa psikologikoen ekarpenek laguntzen diote hezkuntza sistemari ikaskuntza prozesuen nondik norakoak argitu eta prozesuak sortzen. Teoria eraikitzaileetan oinarritzen dira gaur egungo ildo psikologikoak, eta ezagutzaren eraikuntza prozesuan garapen afektiboari eman behar zaion garrantzia aldarrikatzen dute. Haurren ikaskuntza eraginkorra izan dadin beharrezkoa da afektibotasuna zaintzea, egoera errealetan helburu esanguratsuak proposatzea eta kultur aniztasuna kontuan hartzen dituzten balioen itzalean aurrera egitea.

Haurrak esanahiak berreraikitzen ditu aurrez eraikita dituen esanahien gainean, eta lotura horiek gauzatzeko beharrezkoa da bere ingurune hurbileko esperientzietatik abiatuz gauzatzea jarduera esanguratsu, motibagarri eta funtzionalak.

Bestalde, ikaskuntza prozesu eraikitzailean berebiziko garrantzia izango du irakaslearen esku-hartzeak, zeinetan bere eginkizuna izango baita, aniztasuna aintzat hartuz, ikasleak ezagutza berrietara bideratu eta laguntza tresnak ematea.

c) Iturburu pedagogikoa

Ikaskuntza prozesua irakaslearen esku-hartzeak baldintzatua da, eta lau eginkizun nagusi jartzen dizkio OCDk irakasleari haren esku-hartzea eraginkorra izan dadin:

- **Ikaskuntza zentzuduna.** Haurrak bere eginbeharrari zentzua hartu behar dio, zer egin jakin behar du, egin dezakeela sentitu behar du eta hura egiteak inte-

⁷ Sainz, M (2001) (25-33 orr.)

resgarria izan behar du berarentzat. Beraz, ikasleen interes, proposamen eta baliabideetatik abiatu beharra dago esku-hartzea bera: jolasetik, irudimenetik, proiektuetatik... Horretarako beharrezko dira giro egokia, onarpena, konfiantza, elkarrekiko errespetua, harremanen zaintza, segurtasuna helaraztea eta ikasleen autokontzeptua sustatzea, besteak beste.

- **Ikasleen aurrezagutzak.** Irakasleak ikasleekin harremanetan jarriz erdietsiko ditu, batik bat, haien aurrezagutzak, eta, ikaskuntza esanguratsua izan dadin jarduera globalizatuak proposatuko dizkie eduki askotarikoak marko berean txertatuz.
- **Ikasleak protagonista.** Ikaskuntza prozesuan ikasleak dira protagonista, beraz, euren aurrezagutzak, beharrak eta motibazioa talde mailan aurreikusi ez ezik, ikasle banakoaren ezaugarriak ere kontuan hartu beharko dira, ikasleentzat egin-kizunak ezarri, euren jarduerak behatu eta beharraren arabera moldatzeko. Halaber, ikasle-irakasle elkarreaginari garrantzia emanez, komunikazio harremana eta negoziazioa sustatzea ere izango da irakaslearen lana.
- **Ikasle autonomoak.** Ezagutza zein trebetasunen eraikuntzan irakaslea bidelagun izango bada ere, ikasleen testuinguru ezberdinak kontuan hartu eta norberaren autonomia bultzatzen ahaleginduko da irakaslea.

d) Iturburu soziologikoa

Gizarte agerpenek islatzen dute bere errealitate soziologikoa, hala nola, historiak, hizkuntzak, folkloreak, egoera sozio-ekonomikoak, nazioen testuinguruan daukan ibilbideak... Elementu hauek guztiek osatzen dute identitatearen gaineko kontzientzia kolektiboa.

OCDn esaten den bezala, eskolaren betekizuna da pertsona autonomo, kritikoa, solidario eta parte hartzaileak prestatzea, eta, "hezkuntza egintza sustraitu eta hezkuntzaren eduki izan behar duten balioek gizarte-elkarteak onartu dituenak izan behar dute, nahiz eta horrek esan nahi ez duen une jakin batean dauden balio nagusikeriak kritikarik gabe hartu behar ez direnik. Aitzitik, bere egitekoetako bat izango da beste gizarte-agenteeekin batera gizarte-portaeraren gidari izan behar duten balio eta arauak zehazten laguntzea"⁸.

⁸ Eusko Jaurlaritza (1992) (26. orr.) hizkuntza aldetik, moldatuta

Laburbilduz

Euskal Curriculumaren eta Oinarrizko Curriculum Diseinuaren ekarpenak laburtuz, honako ideia hauek dira aipagarrienak:

- Konpetentzia Orokorren lanketa kontzienteki gauzatuko da bertsolaritza arloan; diziplina bakoitzaren edukietan zehaztu direnak kontuan hartuz, batik bat. *Ikasten ikasi, Egiten eta ekiten ikasi* konpetentziak zuzenean aipatu ez badira ere, bertsogintzak berak, komunikazio ekintza den heinean, berezko du konpetentzia horien izaera, beraz, ikaste prozesuan bertan garatuko dira hauek ere.
- OCDk jorratu dituen iturburuak aintzat hartuko dira. Iturburu epistemologikoak zehaztu ditu curriculumak bere deskribapenean, baita horien helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak ere. Iturburu soziologiko eta psikopedagogikoak, berriz, irizpide metodologikoetan mamitu dira.

Bestalde, errealitate bakoitzak eraginda eraldatu, moldatu eta zehaztuko dira oinarrizko proposamenak.

2.- Bertsolaritzaren Curriculumaren helburu orokorrak

Herri euskaldunetatik hasi eta ingurune erdaldunetara hedatzen da gure jarduera eremua. Gaur egun beste kultura eta tradizioetatik datozen gero eta ikasle gehiago dago, ingurunea arras aldatzen baita nekazaritza inguruetatik hiriguneetara. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da curriculuma tokian tokiko beharretara egokitzea.

Etapan honetan, curriculumaren helburua ondoko ezaugarri hauek betetzen dituzten ikasleak formatzea da: eleanitza, adeitsua, jasanbera eta solidarioa, autonomia eta sortzailea, bere lanean eta ekintzetan arduratsua, herri batean gizarteratuta dagoen partaidea, parte hartzen duena eta kritikoa, osasuntsua eta ohitura osasungarriak dituen.

Ondorio horietara iristeko, ondorengo gaitasun hauen garapenarekin zerikusia dutenei eman zaie lehentasuna:

- **Komunikazio maila.** MUSIKA eta HIZKUNTZA ataletan landuko da.
- **Ingurunea.** KULTURA arloan landuko da.
- **Autonomia pertsonala.** TREBETASUN PERTSONALEN arloan landuko da.
- **Gizarte erlazioak.** TREBETASUN SOZIALEN atalean landuko da.

- **Zehar lerroak.** Modu integratuan landuko dira. Era berean, arreta berezia eskainiko zaie hezkidetzari eta gizarte komunikabideei, hezkuntza, ingurumen eta kontsumo hezkuntzari, giza eskubideei eta bakerako hezkuntzari.

Lehen Hezkuntzako OCDn agertzen diren helburu nagusietatik honako hauek nabarmendu eta zehaztu dira, kontuan hartuz, bertsolaritza bitarteko izaki, komunikazio gaitasunei eman zaiela lehentasuna:

- Ohiko jardueretan nahiz talde harremanetan autonomiaz jokatzeari, eta, horretarako, iniziatibak hartzeko eta harreman afektiboak finkatu eta norbere sentipenak adierazteko aukera ematea.
- Talde jardueren plangintza eta ekintzetan parte hartzea, arauak ezagutzea eta onartzea, norberaren interes eta helburuak besteenei egokitzea ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.
- Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harreman orekatu eta emankorrak finkatzea, elkartasunezko jokabideaz eta sexu, gizarte maila, sinesmen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz.
- Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomenoak ulertzea, horien arteko erlazioak ikustea, eta, ahal den neurrian, ingurumenaren defentsa, zainketa eta hobekuntza parte hartzea.
- Giza bizitza eta elkarbizitza gidatzen duten oinarrizko balioez konturatzeari eta horiek oinarritzat hartuz jokatzeari.
- Euskal Herriko kultur ondarea ezagutzea, baloratzea, horretaz gozatzea, horren zainketa eta hobekuntza parte hartzea.
- Hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatzea herri eta gizabanakoaren eskubide gisa, eskubide horrekiko interes eta errespetuzko jarrera landuz.
- Euskarazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea edozein dela komunikazioaren xedea eta testuingurua.
- Gorputz, ikusmen, musika eta ahozko adierazpideen bitartez komunikatzea, sensibilitate estetikoa, sormena, artelan eta bestelako adierazpenez gozatzeko gaitasuna landuz.

3.- Ikuspegi globalizatzailea eta bateratzailea

Bertsogintza lau arloren osotasun gisa deskribatu dugu hurrengo atalean; hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonal zein sozialek bete dute bertsogintzaren gaineko hausnarketa teorikoa. Ildo horretan, arlo bakoitzaren ekarpen teorikoak banatu ta aurkeztu dira, baita ikaskuntza helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak ere. Dena dela, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zentzuari begira, atalak osotasun bilatzea izango da jardun didaktikoaren eginkizuna.

Bertsogintzak, komunikazio egintza kulturala eta soziala den heinean, bat egiten du aurrez aipatu ditugun arlo horiekin guztiekin. Egintza errealak berak bateratzen ditu arlook eta egintza horretan ulertu behar dira ikuspegi globala eta bateratzailea.

Adibide modura, bertsolariak jendaurrean kantatzen duenean, testuinguru jakin batean kantatzen du (herriko festak, bertso-afaria, txapelketa, lagun-arte...), publiko mota jakin bat izango du, baita kopuru jakin bat ere; zeresana izango du kantatzeko (gaia, egoera, galderaren bat...), kide bat izan lezake erantzuteko, publikoa ere badu entzule eta parte-hartzaile.

Bertsoa ekoizti bitartean, hizkuntza elementu batzuk erabiliko ditu, bertsoari zuzenean atxikitzen zaizkion formak ere bai, kontuan hartuko ditu egoera kultural eta sozialak, horiez baliatuko da bere diskurtso kantatua sortzeko, doinu jakin bat hautatuko du, jarrera jakin bat agertuko du jendaurrean...

Azken batean, diziplina arlo askotariko trebetasunak bateratuz egiten dio aurre komunikazioari, eta egoera esanguratsuetan sortzen du bertsoa bera gaiaz baliatuz, bertsolari kideen laguntzaz, publikoaren babesean...

Ekoizpena nolakoa, prozesua halakoa. Halaxe ekoizten bada, halaxe ekoizten ikastea eta irakastea da jokabide zentzudunena.

Arestian adierazi dugun moduan, Lehen Hezkuntzako etaparen ezaugarriak nabarmenenetako bat da hurrek era global edo osoan adierazi, erlazionatu eta ikastea. Haurrak inguruko munduarekin dituen harreman guztietan bere izatearen osotasuna errepresentatu eta garatzen du. Dimentsio guztiak, hots, afektibo-emozionala, sentso-motorea, soziala eta kognitibo-linguistikoa oso estuki lotuta daude, zatiezinak dira, eta ezin dira bakoitza bere aldetik garatu. Diziplinak banagarriak izanda ere, esperientziak elkarrekin trukatu, bizi, gozatu, ikasi eta ulertzen direla esan nahi du horrek.

Ikuspegi globalizatzaile horri jarraitu nahi zaio curriculum honen metodologia garatzean ere. Izan ere, ikuspegi horrek badu eraginik curriculumaren edukiak irakaskuntza-ikaskuntzarako unitate globaletan integratzeko moduan.

Irakasleak hauren interesa erakarriko duten irakaskuntza-ikaskuntzarako egoerak planifikatu behar ditu, eta eguneroko ia jardun guztiak bihur daitezke irakaskuntza-ikas-kuntza egoera: irteera bat, jolas bat, jostailu baten eraikuntza, ipuin bat irakurtzea, solasaldi bat izatea, arazo bat, ospakizun bat, gai bat... Egoera horietan Esperientzi Eremu ezberdinetan jasotako arloek (hizkuntza; kultura; musika; trebetasun pertsonalak eta sozialak) batera egon beharko lukete, baita arlo bakoitzeko edukiek ere (jarre-rak, prozedurak eta kontzeptuak).

Hala ere, hauxe azpimarratu behar da eduki multzoei dagokienez: edukiak tresnak bes-terik ez dira, etaparen Helburu Orokorretan aipaturiko gaitasunak lortzeko tresnak euren soilean.

Bestalde, edukien izaera erabat prozedurazkoa da; beraz, ez dute zentzurik baldin eta, haurrentzat interesgarri diren irakaskuntza-ikaskuntza egoeretan integratuta egonik, hauren gaitasun guztien garapen osoa lortzen laguntzen ez badute.

Bertsogintzaren deskribapena lau arloren bitartez osatu dugu, eta laurek ematen digu-te edozein egoeratan integratzeko aukera. Eskoletan erabiltzen diren ikaskuntza ego-era errealak baliagarri izango dira lau arloak bertsogintzaren itzalean jorratzeko.



Bertsogintzaren ikuspegi bateratzailea

Laburbilduz

- Bertsolaritza proposatu da edukiak aurkezpen globalizatuak egiteko tresna gisa, askotariko edukiak uztartu eta integratzeko gai baita.
- Bertsolaritzak maila desberdinetako edukiak batera eta aldi berean lantzeko aukera ematen duenez, ezaugarri hori ahalik eta gehien baliatu da.
- Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz, arlo honetako edukiak hezkuntza trataera orokorrean txertatu dira: arloen ezagutzak erlazionatzen eta integratzen saiatu gara, eta, edukiak globalizatu ditugu.
- Bertsogintzaren arloari dagozkion edukiak azpiataletan antolatuko dira eta horiek harreman estuan egongo dira ikastetxeetako beste arlo edo ikasgaiekin (hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonalak eta sozialak).
- Edonola izanda ere, gelako edukiak ikaskuntzari esanahia eta funtzionaltasuna ematen dioten egoeren inguruan antolatzen saiatuko gara. Egoera horiek honako puntu hauekin lotuko dira:
 - Interesguneak
 - Lan proiektuak (ekoizpen proiektuak)
 - Ingurunearen ikerketa
 - Zehar lerroak

4.- Aniztasunaren trataera: printzipioak eta esku hartzeko bideak

Errealitate heterogeneoek aberasten dute hezkuntza sistema: bizimodu soziokultural ezberdinetako ikasleek; garapen kognitibo ezberdindunek; motibazio maila askotarikoek; nortasun ezberdineko ikasleek... Eta hezkuntzaren betebeharra da horien guztien ikaskuntza esperientzia eta harreman sarearen eraikuntza bermatzea. Nola, baina? Trataera integratzailea sustatuz.

Horrek esan nahi du, alde batetik, aniztasuna onartzearekin aberastasun kolektiboa balioesten dugula, eta, bestalde, diferentzietatik gaindi ikasleen gaitasun eta trebetasunak garatzen ahaleginduko garela, bakoitzaren egoera pertsonalak, erreferentzia soziokulturalak eta ikaskuntza-prozesu zein erritmo aniztasunak kontuan hartuz, haie-tatik abiatuz, eta, ondorio gisa, emaitzen ezberdintasuna onartuz.

Eskolaren eta irakaslearen ardura izango da, beraz, aniztasuna erronkatzat hartzea. Errealitate ezberdinduen egoerak baliagarri izango zaizkio irakasleari ikasleen garapen prozesuak aberasteko, eta horiez baliatuz lortuko du taldea bateratzea. Halaber, ezberdintasunak berdinduko ditu material askotarikoak erabiliz, helburu orokorrak ikasle bakoitzaren gaitasun mailaren arabera egokituz, esku-hartzea maila ezberdinetan gauzatuz, eta azken emaitza baino areago, garapen prozesuak lehenetsiz.

Hala, ikasleentzako hezkuntza testuinguru aberasgarritzat hartzen dugu Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzaren muin bakartasuna. Ikasle aniztasunari erantzuteko, gure hezkuntza mailako esku-hartzearen oinarrian honako **printzipio** hauek gauza daitezzen nahi dugu:

- Taldearen heterogeneotasuna, homogeneousotasunaren aurrean.
- Hezkuntza erantzun desberdinak, erantzun antzeko edo berdinen aurrean.
- Hezkidetzeta, sexismoaren aurrean.
- Kulturartekotasuna, etnozentrismo kulturalaren aurrean.
- Hezkuntza mailako prebentzioa eta berritzea, zigorra baino lehen.
- Gutxietsita dauden ikasleenganako ekintza positiboa.
- Hezkuntza beharren erlatibotasuna, denborazkotasuna eta elkarreragiletasuna.

Printzipio horietan oinarrituta, hezkuntza mailako **esku-hartzean** honako bide hauek hartuko ditugu kontuan:

- Ikastaldea ikasle guztiak biltzen dituen tokitzat eta bakoitzari bere egoera pertsonalean laguntzeko tokitzat ulertzea.
- Programazioak taldean eta behar-aniztasunean oinarrituta pentsatzea.
- Talde-jardueretan, batzuetan, ikaskuntzaren edukiarekiko homogeneousotasuna bilatzea; beste batzuetan, heterogeneotasuna erabiltzea ikasle desberdinen arteko elkarlanari laguntzeko.
- Pertsona guztien balio positiboak azaltzen dituzten ereduak proposatzea, gizartearen maskulinitzat edo feminitzat joko badira ere.
- Gelako taldea izatea ikasleek jarrera hiritarra garatzeko lekua; jarrera hiritar horiei esker, gizarte kohesioa, tolerantzia eta elkarriketa lortzea eta diskriminazio edo mendekotasun egoerak saihestea.
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleek eskubide osoz lekua izatea gelako taldearen barruan, bakoitzaren aukeren arabera; eta ikasketxean erabilgarri dauden baliabideak ikasleei laguntzeko erabiltzea.

Ikaskuntza atzerapenak gertatzen diren kasuetan, berriz, ondorengo **estrategia mota** hauek erabiltzea lehenetsi dugu:

- Jarduera desberdinak, ikasle bakoitzak bere gaitasunak garatzeko jarduerak.
- Sekuentzietan antolatutako jarduerak, orokortze maila, zailtasun maila, abstrakzio maila... desberdinak lortzeko.
- Kultura desberdinetako edukiak lantzea, aztertuz eta, batez ere, gogoeta kritikoak eginez.
- Gaitasun maila desberdina duten ikasleen artean elkarlanerako jarduerak lantzea.

- Gelan elkarrekin jarduera desberdinak garatzea.
- Gelan ohiz kanpoko taldeekin lan egitea.
- Adin tarte bereko talde desberdinen artean, zenbait unetan, truka daitezkeen taldeak antolatzea.
- Banakako izaera duten sendotze jarduerak proposatzea, eta irakasleak berak egitea gidari lana.
- Ikaskuntza prozesuaren banakako jarraipena egitea.
- Ahal den guztietan, gelaren barruan ikasleei laguntza eskaintzea.
- Orokorrean, irakaslearen laguntza gela barruan izatea, gelatik kanpora baino gehiago.

Portaera mailako arazoen eta portaera oldarkorreko arazoen aurrean, aldiz, **estrategia** hauek bultzatuko ditugu:

- Gelako giroa zaintzea.
- Auto estimuari laguntzea.
- Gizarte ohituretan heztea.
- Portaera negatiboen prebentzioa.
- Garapen etikoa lantzea, bizigarrien eta pertsonen arteko harremanen bidez: ondo egindakoa aitortzea eta, ahal den kasuetan, iritzi kritikoa ematea.
- Curriculum taldeko eta azpitaldetako interesetara egokitzea.
- Ikasle jakin batzuei laguntzeko berariazko programak bultzatzea.
- Arauak denon artean landu, adostu eta proposatzea.
- Portaera negatiborik gertatzen den kasuetan, zigorra ezarri baino lehen, erantzun pertsonala bilatzea.

5.- Irizpide metodologikoak

Iturburu psikologiko eta pedagogikoek ematen dute ikaskuntza-irakaskuntza prozesua aurrera eramateko metodologia eta esku-hartzeen berri. Ikasleen ikaskuntza prozesuan eta irakaslearen esku hartzeko baliabideetan parte hartzen duten elementuak identifikatu beharra dago, hortaz, curriculum zehazteko garaian. Geurean, honako hauek hautatu eta sakondu dira:

- Sekuentzia Didaktikoa
- Jarduera metodologiko balioetsiak
- Irakaslearen estrategiak
- Denbora antolamendua
- Irakasleak multzokatzea
- Hezkuntza mailako elkarreraginak
- Ebaluazio prozesuari buruzko erabakiak

5.1.- Sekuentzia Didaktikoa

Ikasleak egingo duen jarduera esanguratsua izan dadin hainbat metodologia daude, eta horien artean nabarmentzekoak dira irakaskuntzaren ikuspegi eraikitzaileak hobesten dituenak, hots, proiektuetan eta atazetan oinarrituak.

Sekuentzia Didaktikoak azken xede edo proiektu komunikatibo bat gauzatzeko eta, horren aitzakian, gaitasun eta trebetasun askotarikoak barnertzeko antolatzen dira. Bestela esateko, sekuentziaren bukaeran ikasleek gauzatu beharko duten ekintza komunikatiboa jartzen da azken helburu gisa, eta hura lortzeko jarduera multzo koheSIONatu eta koherenteak prestatzen dira, irakasleak lagunduta eta beharrezko tresnak eskainita, ikasleak azken emaitza erdiets dezan.

Horretarako, esanguratsua den egoera komunikatibo jakin batean jartzen da ikaslea, eta azken helburua lortzeko tresnak eskaintzen zaizkio eragiketetan multzokatuta, haiek banaka-banaka gaindituz, ibilbidearen azken urratsera iritsi arte.

Ibilbide horrek trebetasun eta abstrakzio maila handia eskatzen du, hots, inplikazio kognitibo handia, eta, bertan gauzatzen diren ekintzak asko eta anitzak dira: bibliografia egokia aurkitu; datuak jasotzeko bideak topatu; eruedetan testu antolaketa identifikatu; idazlearen kohesio estrategiak identifikatu; entzungaietako informazio nagusia hautatu; hitzaldia prestatu; testuetako ideia nagusiak identifikatu; testua eraitzeko edukiak antolatu; forma jakin batzuk aztertu eta erabili...

Era berean, Sekuentzia Didaktikoaren prozesua ziklikoa eta konplexua da: aurrena, egoera eta egintza konplexuetatik abiatzen da (komunikazio egoeratik: zer egingo dugu, norentzat, noren izenean kantatuko dugu, zertarako... galderei erantzun beharra sortzen da); hurrena, eduki multzotan sinplifikatu, sintetizatu eta bakantzen dira jarduerak, eta horiek garatzeko eragiketak egiten dira (zenbait hizkuntza alderdiren analisiak, forma jakinen gaineko ariketak, gaien inguruko hausnarketa indibidual zein sozialak...) azken emaitzaren kalitatea hobetzeko; eta, azkenik, berriz ere jarduera konplexuetara itzultzen da, alegia, Sekuentzia Didaktikoak sortutako testuinguruan kokatu den azken egintza komunikatiboaren jarduerara itzultzen da (hitzaldia eman, debate batean parte hartu, norbait elkarriketatu, bertsoak ulertu eta haiei erantzun...).

Metodologia tresna gisa, beraz, abantailak baditu Sekuentzia Didaktikoak: hizkuntza eta komunikazio ekintzak benetako testuinguruan sortzen dira; helburu globalizatzaileak aurrera eramateko baliabideak eskaintzen ditu; planifikazio zehatza egiteko aukera ematen du, ikasleekin landuko diren edukiak planifikatzen baitira moduluetako jardueretan; ikasleak kontuan hartzen dira, eurek dakitenetik abiatzen baita; eta ebaluatzean prozesu osoaren ibilbidea hartu ez ezik, auto ebaluazioa ere sustatzen da Kontrol Zerranden bitartez.

5.1.1.- Sekuentzia Didaktikoaren prestakuntza eta hezurdura

Sekuentzia Didaktikoaren baliagarritasuna justifikatuta, hura eraiki aurretik irakasleak edo irakasle taldeak aurreikusi eta prestatu behar dituen eginkizunak zein diren argituko dugu taula honen bitartez:

EGITEKOAK	AZALPENAK
Azken xedea ezarri	<p>Ikasleek zer egin dezaten, zer egiten ikas dezaten, nola egiten ikas dezaten... zehazten da. Azken xedeak izan litezke:</p> <p><i>Makroak:</i> bertso-saio bat prestatu; gaur egungo bertsolarien bildumatxo bat egin; bertso-saio moten sailkapen bat eraiki; bertso-antzerki bat osatu... (denbora luzeko lana eskatzen dute)</p> <p><i>Mikroak:</i> Santa Ageda eskean kantatzen ikasi / eskatzeko modu ezberdinak zein diren ikasi; argudiatzen ikasi / argudio estrategia ezberdinak; hitz lauuko ipuina neurtitz bihurtu; Bilintxen / Txirritaren bizitzaren gaineko zertzeladak; bertso-saio mota jakin baten ezaugarriak zein diren ikasi... (sekuentzia txikiagoak egiten dira)</p>
Komunikazio helburuak zehaztu	<p>Arlo bakoitzarekin zerikusia duen helburu orokor bat hautatzen da (beti ez dira arlo guztiak kontuan hartzen; gainera, batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa izan ohi dute).</p>
Edukiak hautatu (jarrerak, prozedurak, kontzeptuak)	<p>Helburu orokorrari erantzuteko arlo bakoitzak zehaztuta dituen eduki baliagarrienak identifikatzen dira (honetan ere guztiei ez zaie pisu bera ematen).</p>
Ereduak eta dokumentazioa argitu	<p>Ikasleentzat baliagarri, interesgarri, motibagarri, ezagun, erraz... izango diren ereduak edo informazio iturriak (dokumentazioa) aukeratu eta aztertzen dira. Ondotik, honako galdera hauei erantzuten zaie: zein ezaugarri komun dituzte? Zein ezberdintasun dituzte? Horiek aztertuta, zer landu genezake? Eta nola?</p>
Jarduerak sortu moduluka	<p>Jarrita ditugun helburuak, landu beharreko edukiak, esku artean dauzkagun ereduak, ikasleen beharrianak... kontuan hartuta, zein jardura diren polit, interesgarri, lagungarri, beharrezko... pentsatzen da. Horiek guztiak jardura multzo komunetan antolatuta prestatzen dira moduluetan.</p>

Sekuentzia Didaktikoaren prestakuntza

Sekuentzia Didaktikoaren hezurdura, berriz, bi modutan irudika genezake:

1. Taula bidezko irudikapena

EGITEKOAK	AZALPENAK
Azken xedea aurkeztu	Zertan ikasiko dugu? Zer egingo dugu horretarako? Nola egingo dugu?
Aurrezagutzak aktibatu	Zer dakigu horretaz? Zer esaten dute? Zer esan izan didate? Zer irakurri dut? Zer entzun dut?
Aurre testua	Laguntzarik eman gabe gauzatzen eta erregistratzen da azken xedea (gorde).
Irakaslearen lehen ebaluazioa	Zer egin dute ikasleek? Zertan dakite? Zein laguntza beharko dute helburua erdiesteko? Nola sentitu dira? Horren harira, zein edukiri garrantzia ematea komeni den zehaztu eta haien arabera jarduerak diseinatzeko dira.
1. MODULUA Komunikazio egoeraren gaineko jarduerak	Hizkuntzaren eta beste arloen gaineko jarduerak: igoilea; hartzailea; denbora; espazioa; hartu-emana; rol sozialak; tradizioaren ekarria; etab.
2. MODULUA Edukien antolaketaren gaineko jarduerak	– Bertsotan egin dezaten nahi bada, mezuaren baitako egin-kizunak proposatzeko dira. – Helburua kulturarekin, tradizioarekin edo beste zerbaitekin lotuta badago, berriz, gai horiek lantzeko edukiak prestatzen dira.
3. MODULUA Hizkuntza edo beste eduki baten gaineko jarduerak	Jarduera multzo bakoitzean arlo edo elementu jakin bati erreparatzen zaio (hizkuntza formei, trebetasun sozialei, ezagutza kulturalari...); hura lantzen da eta hartarako gaitasunean trebatzea izaten da xede.
Kontrol zerrenda	Ikasitako edukiak jaso, eta azken xedea gauzatzeko unean kontuan hartzeko edo gogoratzeko elementuak biltzen dira orri batean, memorian, marrazkietan...
Trebakuntza eta zuzenketak	Ekinaren ekina. Behar izanez gero, irakasleak edo ikaskideek zuzenketa batzuk egiten dituzte.

EGITEKOAK	AZALPENAK
Azken ekoizpena	Jarritako eginkizuna gauzatu eta erregistratzen da (gorde, paperean edo ikus-entzunezko euskarrietan).
Azken ebaluazioa	Irakasleak eta ikasleek ebaluatuko dituzte landutako helburu eta edukiak. Eraikitako komunikazio ekintzatik urrundu eta prozesuaren zein produktuaren gainean hausnartuko dute. Ebaluazioan arlo guztiak kontuan hartzea komeni da, eta pertsonen arteko harremani garrantzi handia ematea gomendatzen dute adituek. Ebaluatzean, garrantzitsua da ikasleak hausnarketara bideratzea: ekoiztutako edozeren gainean; ekoizteko izan dituzten zailtasun / erraztasunen gainean; erabilitako materialen gainean; erabilgarritasunaren gainean; ikasitako edukien gainean... Esplizitatu egin behar da hori guztia (eta idatzi ere bai, horretarako beharra ikusten denean).

2. Irudi grafikoa: Sekuentzia Didaktikoaren hezurdura⁹



5.1.2.- Kontrol Zerrendaren garrantzia

Ikasleak komunikazio egintzetan izan litzakeen zailtasunak eta gogoan hartu beharreko elementuak biltzen dituen tresna da Kontrol Zerrenda, Sekuentzia Didaktikoarekin batera eraikitzen den ezinbesteko baliabidea, hain zuzen.

Izan ere, sekuentziaren abiapuntuan jarritako helburuen ebaluazio sumatiboa ahalbidetzen laguntzeaz gain, ebaluazio formatiboa eta ikasle bakoitzaren auto ebaluazioa sustatzen baititu. Horrez gain, ikaskuntza prozesuaren laguntza edo andamiaje¹⁰ tresnatzat ere hartzen da.

⁹ Sales Cordeiro (2007)

¹⁰ Vigotsky (1983)

Kontrol Zerrendaren xede nagusia da ikaslea azken ekoizpenari begira bideratzea, eta horretan irakasleak laguntzen dio ikasleari garatu beharreko kontzeptu eta prozedurak zehazten. Ikasle bakoitzak, berriz, zerrenda honetan azaldu behar izaten ditu bere azken ekoizpenean kontuan hartu behar dituen elementuak. Ikasle bakoitzak, beraz, bere goeraren auto hausnarketa egiten du tresna honen bitartez.

Ikasleek ikaskuntza baliabide hau ekoiztu aurretik, ordea, irakasleak erdi gauzatu izaten du ikasleei begirako zerrenda bat, ondoren, ikasleei proposa diezaien eta elkarrekin negoziatuz zerrenda adostu bat osa dezaten. Dena dela, zerrendaren erabilera indibiduala denez, ez da izaten itxia, norberaren beharrei egokituia baino.

5.2.- Ardatz metodologiko balioetsiak

Sekuentzia Didaktikoak prestatu, aukeratu eta gelaratzeko unean honako irizpide hauek hobetsi dira didaktikari begira:

Helburu erreal eta komunikatiboak

Ikaskuntzaren ikuspegi global eta bateratzailea lehenetsiz, Sekuentzia Didaktikoetako azken xedeek helburu erreal eta komunikatiboak gauzatzeko aukera emango dute. Gisa honetako helburuak jar litezke eskolako jardueretan:

- Bertsoa gaitzat duen irratsaio bat aztertu (saioaren gaia, entzuleak, atalak...) eta gisa horretako programa bat antolatu.
- Santa Ageda eskearen gaineko informazioa bildu, eskatzeko modu ezberdinak landu eta egun horretarako kopia batzuk prestatu.
- Eskolako arazoen berri emateko, aldarrikapen sorta bat osatu eta argitaratu.
- Olentzerori, udalekuetako lagunei... bertso-postala idatzi.
- Inauterietan moztortzeko aholku zerrenda bat osatu eskolako gainerako kide-entzat.
- ...

Sekuentzien irekitasuna

Azken helburu berdin bati erantzuteko sekuentziak eraikiko badira ere, ikas taldearen ezberdintasunak kontuan hartuz, hainbat aukera ematen duten eta edozein egoeratan moldagarri diren jarduerak (zailtasun maila ezberdina dutenak) proposatuko dira sekuentzietan.

Ikuspegi globalizatzailea

Proposamen didaktiko globalizatzaileak eraikiko dira, curriculum honetan zehaztu diren arloetako helburu zein edukiak bateratuz garatuko diren jarduera multzoak, hain zuzen.

Hizkuntza eta kultura

Hizkuntzarekin batera gure kulturaren testuak eta ohiturak landuko dira: ipuin kontaketa, bertsolaritza, abestiak, esaerak, aho-korapiloak, etab.

Ikasleen artean kultura ezberdinetako gurasoak baditugu, horien hizkuntzak eta kulturen keinuak ere txertatu behar ditugu geure xedeetan (abestiak entzun eta ikasi, hizkuntzen hotsak alderatu, biltzeko eta harremanetan jartzeko ohiturak aztertu eta alderatu...).

Escola inklusiboaren baitako printzipioak praktikan jar daitezke ahozko hizkuntza lantzen ari garela. Haratago ere joan gaitzke, kultura horietan ahozko inprobisazio kanatuak hartzen dituen moldeak bihurtuz gelako aztergai.

Erakargarritasuna

Proiektu proposatuek erakargarriak izan beharko dute ikasleentzat, motibazio-piztaileak, izan ere, erakargarritasunak baldintzatuko baititu ondorengo prozedura eta jarrera guztiak.

Ikasleen inplikazioa

Parte-hartzea, lanarekiko jarrera baikorra, talde dinamika askotarikoak (bakarka, bina-ka, talde txikitan, ikasgelan, jaialdietan...) eta jorragaiekiko sentiberatasuna bideratuko duten eginkizunak jarriko zaizkie ikasleei. Azken batean, parte hartzera eta ekin-tzara bideratuko dira ikasleak sekuentzietako jardueren bitartez.

Ikasleen aurrezagutzak eta ingurune hurbil-urruna

Baliagarria gertatzen da eskola-bizitzako egoerak aprobetxatzea: eskola jardueren plangintza, ikasgelan edo ikastetxean sortutako arazoan planteamendua, lanak egitea, ikasgela asanbladak eta abar.

Behin proiektua aurkeztuta, ikasleen aurrezagutzak plazaratzea izango da sekuentziaren abiapuntua. Handik ikaskideen marko sozial konpartitua eraikiko da ondorengo ezagutza berriak eraikitzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, ikasleen errealitate hurbiletik abiatuz ezagutzak partekatu eta jarritako helburuei begira aurrera egitea.

Beharrezkoa da, halaber, ikasleagandik hurbil dauden baina ikasgelan berez sortzen ez diren komunikazio egoerak sustatzea, eta horretarako ezinbestekoa izaten da simulatzea. Adibidez, dendetako elkarrizketak simulatzea, irratsaioak egitea, bakoitzak paper jakin bat hartzen dueneko debateak sortzea, telefono deiak prestatzea, eta abar.

Input eta output errealak eta anitzak

Ikus-entzunezko eta idatzizko testu errealak (marrazkiak, muralak, bertsoak, erreportajeak, musika produktuak, ipuinak, irakurgaiak...) eta anitzak jarriko zaizkio ikasleari eskuragarri: publiko askotarikodunak; pertsona estereotipo ezberdindunak; lurralde, adin, garai, historia, sexu ezberdindunak (haurrak, egungo bertsolariak, zaharragoak, hilak...); gai ezberdinak jorratzen dituztenak...

Bertsolarien bisitak jasotzea edo benetako bertso-saioretara joatea ere egokia da ikasleek komunikazio egintza bera eta pertsonaiak ezagutu ditzaten. Komeni da, hein berean, saio bakoitzean ikus-entzunezko eta kantatzeko materiala erabiltzea edo ikasleak eginkizun horretan jartzea. Era berean, egoera errealerako ekoizpenak proposatuko dira, ikaskuntza esanguratsu eta funtzionala gauza dadin.

Jarrerazko edukiak

Afektibitateari garrantzia emanez, ikasleak arazo errealean aurrean eta bereziki ikaslearen inguruneari eta taldeko egoeretan duen jarduerari buruz gogoeta egitera bideratuko diren jarduerak eraikiko dira.

Prozedurazko edukiak

Ardatz antolatzaile izango dira prozedurak, izan ere, kontzeptuak eta jarrerak prozeduren garapenaren bidez irakats eta ikas baitaitezke.

Kontzeptuzko edukiak

Edukien izaera abstraktuarengatik ikasleak esanahia ulertzea eta modu zuzenean erabiltzea eskatzen du; modu praktikoa lan egingo da, aurretik landutako kontzeptuak berriro erabiliz.

Zehar lerroak

Zehar-lerroen planteamendua koherentea izango da, proiektu honetan azaldutakoarekin bat datorrena. Bestalde, modu kontzientean jorratuko dira zehar lerroak.

5.3.- Irakaslearen estrategiak

Sekuentzia Didaktikoek lagunduko diete ikasle zein irakasleei azken xede komunikati-boari begirako jarduera koherenteak eraiki, aurrera eraman eta gauzaten.

Bestalde, irakaslearen berbaldiak eta esku-hartzeak eragin handia dute ikasleen ikas

prozesuan. Irakasleak eginkizun ugaritarako darabil bere jarduna: lana planifikatzeko, kontatzeko, argudiatzeko, negoziatzeko, erabakiak hartzeko, ondorioak ateratzeko... Horiek guztiak ikaslearen aurrean egiten ditu egunero. Horregatik, irakaslearen berbal-diak zaindua izan behar du, hausnartua eta hobekuntzarako atea zabaltzen dituen. Atal honetan, irakasleak ikasleekiko harremanetan darabiltzan praktika on hauek lehenetsi dira:

Jarduera kontzientzia: aurre-diseinua; jarduera eta sentipena; hausnarketa eta berdiseinua

Egiten dugun guztia sentitzen dugu eta egiten dugun guztia hobe genezake. Ideia honi helduz, beti hobe daiteke irakasleak gelan eraikitzen duen egoera eta ekintza bera. Dena dela, oso zaila gertatzen zaio irakasleari jardun bitartean bere egintzez ohartzea, kontzientzia hartzea, nahiz eta horretan ikastea posible den.

Jauregi, P eta Huegun, A (2002: 25) adituek berretsi dutenez, “hezitzailea praktikan murgilduta dagoenean, eta hezigaiekin trebetasun bat edo bestea agertzen duenean, hainbat pentsamendu eta erreakzio emozional izaten ditu. Erreakzio emozional horiek dira, hain zuzen, ekintza bat edo bestea egitera bideratuko gaituztenak”. Jarduera bitarteko sentipen eta hausnarketan, ikasle bati emandako erantzun baten edo sortutako egoera baten aurrean, erabaki azkarra hartu behar izaten da eragin-kortasunez nola jokatu asmatzeko.

Horretarako baina, sentipenaren kontzientzia hartu eta ekintza bera jaso behar da. Nola? Ekintza bitartean zein ondoren hausnartuz eta ondorioak atereaz. Hausnarketa horrek ekintza aldatzera eta berdiseinatuz eramanen du irakaslea, egin duena hobetu eta egoera bakoitzera egokitzera. Hori da aurrera egiteko metodologiarik eraginkorrena, izan ere, norbera bere jardueratik eta jasotako sentipenetatik abiatzen baita, hain zuzen, bere jarduerak hobetzeko jarrera baikorretik.

Errespetuzko giroa eta alderdi emozionala

Ahoz parte hartzeko errespetuzko giroa behar da, non ikaslearen partaidetza onartu den eta entzuleek (beste ikasleek) arretatsu entzuten dakiten. Horrek entzuten jakitea eskatzen du eta landu daiteke. Bestalde, emozionalitateak ahozko partaidetzan ere zerikusi handia duenez, irakasleak ikasleen emozioak irakurtzen ikasi beharko du¹¹. Oro har, ikasle bakoitzaren emozionalitatea eta taldearena hartu beharko dira kontuan.

Testuinguratzea eta kontsignaren aurkezpena

Eginkizun komunikatiboak eskatzen duen azken helburua eta jardueren bilakaera argi, astiro eta ikasleari begira hitz eginez aurkeztu behar dira. Ondotik, nondik norakoak ulertu, barneratu eta adostu direla ziurtatu.

¹¹ Jauregi, P eta Huegun, A (2002) adituek bide berriak urratu dituzte gorputz sentazioen ikasbidea proposatuz hezitzailearen harreman trebetasunak hobetzeko; hezkuntzaren arteaz gogoeta eginik alderdi fisikoaren, psikikoaren eta emozionalaren sintonia bilatzeko proposamenok lantzea gomendagarri litzateke.

Marko Sozial Konpartituaren eraikuntza

Ikasleei galderak eginez, ideiak ateraraziz, hipotesiak egiteko eskatuz, arrazoiketak proposatuz, eta handik ateratako ondorioak argitara emanez sortzen du irakasleak ikasleen ezagutza eta trebetasunen esparru sozial partekatua; beraz, ikasleen erreferenteak abiapuntu direlarik bideratzen dira ikasleak ezagutza berrietara (Coll eta Onrubia, 2001).

Ikasleen arreta mantentzea

Ikaslearen arreta mantentzeko estrategiak erabili behar dira: saioaren iraupena errespetatu eta iraupen neurtuko jarduerak proposatu; xede komunikatiboak baldintzatuta, intonazioa eta erritmoa aldatu; ikas talde guztiarenganako begirada zaindu; material funtzional eta erakargarriak erabili; baliabide eta euskarri askotarikoak eskaini; taldearen kokapena kudeatzeko eta partaidetza sustatzeko espazio jakinak eraiki; ikasleen adierazpideak kontuan hartu eta berreraiki...

Andamiajea: euskarriak eta adibideak

Ikasleak aurrez duen ezagutza zaharretik berrira iragateko, Garapen Zonalde Hurbila identifikatzen du irakasleak, ikaskuntza prozesua bermatuko duen gainditze maila neurtua, alegia. Eta haurrak ikaskuntzaren eraikuntzan aurrera egin dezan andamiaje lana egiten du irakasleak, hots, lagundu egiten dio baliabide hautatuak erabiliz (Vigotsky, 1983).

Eginkizun horretan, euskarri askotarikoak eta adibideak erabiltzea komeni da ereduak aztertu eta ulermena ziurtatzeko: ikus-entzunezkoak eta laguntza ez-linguistikoa (marrazkiak, gorputz komunikazioa, muralak, argazkiak...), besteak beste.

Galdera motak

Galdera itxiek baino areago, erantzuteko inplikazio kognitiboa eskatzen duten galderak laguntzen dute partaidetza bultzatu eta ikaskuntza garapena bermatzen: laburtzea; elementu nagusia identifikatzea; hipotesiak egitea; ondorioak ateratzea; kausak aurkitzea; kategorizatzea, sailkatzea... Eta ikasleek egindako galderak taldean, ikaskideen artean erantzun daitezen ahalegintzeak lagundu egiten du horretan.

Erantzun denbora

Erantzuteko denbora eman behar zaie ikasleei. Irakaslearen isiluneak eta geldiuneak, beraz, beharrezko dira ikasleen ekoizpena bultzatzeko. Bestalde, taldean hizketan ari direnean, ikasle bakoitzaren txandak errespetatzea eta errespetatzen daitezen eskatzea komeni da, ikasleen parte-hartze osoa ziurtatzeko.

Errazte estrategiak ekoizpenean

Ekoizten laguntzeko errazte estrategiak ditugu: giroa goxatu eta lasaitzea; ekoizpenaren hasiera ematea; erantzun aukera ezberdinak eskaintzea; errima multzoak eskuragarri uztea; hizkuntza formulak ematea; zeresanerako ideiak proposatzea; aurrez ikasitakoa gogora ekartzea...

Ikasleen ekoizpenak eta enpatia

Ikasleek emandako erantzunak ahalbidetu behar ditu irakasleak ikasleen ezagutza eta trebetasunak aberasteko. Honako estrategia hauek hobetsi dira ikasleen ekoizpenak ebaluatu eta balioa emateko:

- Ikasleen ekoizpenak erregistratzea ikus-entzunezko edo bestelako materiala erabiliz. Ekoizpenak erregistratzeak laguntzen du behaketa eta hausnarketa bideratzen, eta, ondorioz, ahoz sortuak gorde, aztertu eta ebaluatzen.
- Irakaslearen ekarpenak onartu eta irakaslearen diskurtsoan integratzea; ideia garrantzitsuenak diskurtsoan txertatzen dira, nola intonazio eta erritmo aldaketak eginez, hala meta-diskurtsoaren bidez.
- Ikasleen esanak laburtu edo birformulatzea.
- Ideiek zehaztasuna behar dutenean, argitasuna eta informazio gehiago eman dezaten eskatzea.
- Ekoizpenari begirako helburuak ezarri, jarduerak diseinatu eta sortutako diskurtsoen analisi eta balorazio esplizitua egitea ikasleen aurrean.

5.4.- Denboraren antolamendua

Denboraren antolamenduaren bidez lortzen da, besteak beste, ikasleek askatasun handiagoa eta irakasleek aniztasunari laguntzeko aukera handiagoa izatea.

Talde bakoitzaren, ikasleen ikaskuntza-erritmoaren, eduki moten, eduki horien antolamenduaren eta proposatzen diren jardueren arabera antolatuko da denbora. Antolamenduak lagungarri izan beharko du aurrez ezarritako helburuak lortzeko.

Dena dela, Hezkuntza Arautuan, bertsolaritzaren lanketa astean ordubetekoa izango da 10-12 urte bitartean. Ordubeteko kateamenduan gorpuztuko dira aurrez diseinutako sekuentzia didaktiko edo jarduerak. Bestalde, komeni da ordu bakoitzean hasiera eta amaiera duen eginkizuna gauzatzea.

5.5.- Ikasleak multzokatzea

Ondoren adierazten diren irizpideak hartu dira aintzat ikasleak multzokatzeko:

- Talde txikiak, hiru edo lau lagunekoak, arlo guztietan prozedurazko edukiak jorratzeko.
- Talde handiak, azalpen erraz eta laburrak emateko, baita egin beharreko lana aurkeztu eta antolatzeko ere.
- Banakako lana, ikaskuntza tresnetan oinarritzen diren saioetarako.

Denbora antolatzeak ahalbidetuko du hiru talde motetan eskuarki lan egitea.

5.6.- Hezkuntza mailako elkarreraginak

Irakaslea-ikaslea

Ezinbestekoa da irakasleak esku hartzea ikasleak aurrera egiteko beharrezko baldintzak sortu eta ikaskuntzarako proposatutako helburuak lor daitezen. Beraz, zereginen artean honakoak nabarmenduko dira:

- Konfiantzan, segurtasunean eta elkarren arteko onarpenean oinarritutako erlazio, afektibitate eta emozio giroa sortzea.
- Taldearekin batera ikasgelan funtzionatzeko arauak lantzea.
- Ikasleei informazioa ematea barneratu beharreko helburuei, planei, ikaskuntza prozesuari eta ebaluazio prozesuari buruz (norberaren ezaugarrietara egokituz).
- Banakako laguntzak eskaintzea.
- Norbere buruaren kontzeptu egokia izaten laguntzea.
- Aurreiritzi arrazista, klasista edo sexistak sorraraz ditzakeen adierazpen oro saihestea.
- Gelan erabiltzen den hizkuntza zaintzea, argia eta zehatza izaten saiatzea.

Ikaslea-ikaslea. Berdinkideen arteko ikaskuntza

Irakasle eta ikasleen arteko elkarreraginean ez ezik, ikasleen arteko elkarreraginean ere gertatzen da ikaskuntza. Ondorioz, ikastetxean, gela barnean, berdinkideen arteko elkarreragina sustatzea zilegi da, eta honako egoera hauek sustatzen dute hori:

- Talde txikitik lan egitea, non aurreratuen dauden ikasleen garapenak ez duen mugatuko zailtasunak dituztenena.
- Ikuspuntu desberdinak trukitzea norberaren ikuspuntua gainontzeko lagunei azaltzean, baita lankidetzan, elkarlanean zein koordinazio egoeretan ere.
- Elkar ebaluatzeko jarduerak diseinatzea, non zenbait ikaslek euren lana batera ebaluatuko duten.

Familia-irakaslea

Oso garrantzitsua da irakasle eta gurasoen arteko komunikazioa, aldi berean aldi berean ez bada ere. Izan ere, familiak ikaslearen garapena zertan den jakin behar du, helburuak lortu, edukiez jabetu, prozedurak gauzatu eta jarrerak barneratzeari begira. Horretarako, honelako harremana bultzatzea hobesten da:

- Ikaslearen bilakaeraren berri gurasoei ematea, ebaluazioaren ondoren ez ezik, baita ebaluazioaren aurretik eta tartean ere.
- Ikaslearen aurrerapausoak ikaslearen abiapuntuko maila eta bere inguru sozial-linguistikoa kontuan hartuz baloratzea.
- Ikasleak izan ditzakeen zailtasunak gainditzeko biderik egokienak bilatzea.

5.7.- Ebaluazio prozesuari buruzko erabakiak

Praktikaren gaineko gogoeta prozesu sistematikoa da ebaluazioa, eta jarritako helburuen arabera finkatzen dira ebaluazio irizpideak. Ikaskuntza prozesuari buruz eta bere emaitzei buruz hausnartuta jasotzen da informazioa, eta, lantegi horretan, honako errealitate hauek ere behagai bihurtzen dira:

- Ikasleek ikaskuntzaz egindako balorazioa.
- Hezkuntza esku-hartzearen balorazioa.
- Ikaslearen beharretara egindako egokitzapenak.
- Errefortzu neurriak eta sustapen prozesuak.

Irizpide horiek kontuan hartuta, ebaluazioak honako helburu hauek betetzeko balio dituzte eskola sistemari eta irakasleari berari:

- Ikaslearen ikaskuntza prozesua ikaslearen beraren gaitasunen arabera eta proposatu diren helburuen norabidean garatzen ote den baloratzeko.
- Ikaskuntza prozesuan oztopoak non sortzen diren ikusteko eta arrazoiak azaltzeko.

- Ikaslearen ikaskuntza prozesua hobetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.
- Beste irakasle batzuekin batera irakaskuntzari eta Curriculum proposamenari buruzko gogoetak egiteko; Curriculum proposamena ikasleen beharretara egokitzen den baloratzeko.
- Ikasleari eta bere familiari ikaskuntza egoerari buruzko informazioa emateko.

5.7.1.- Zer ebaluatu?

Ebaluazioaren zertarakoak zehaztuta, curriculum honen itzalean lan egingo duenak zein unitate ebaluatuko duen argitzea izango da ondorengo lana. Aurrez, baina, ebaluazio irizpideak zehaztea komeni da. Hona hemen nagusienak:

- Irakatsi diren edukiak bakarrik ebaluatuko dira, eta ikasleak aurretik dakartzan ezagupen eta trebetasunak kontuan hartuta.
- Jarrerazko edukiak ebaluatzean ez da ikaslearen izaera edo diziplina mailako akatsik ebaluatuko, irakatsi diren edukien ikaskuntza maila baizik.
- Elkarren artean harreman zuzena duten eduki ezberdinak jarriko dira, ahal den guztietan, ebaluatzeko.
- Irakasleak zehaztuko du zein izango diren ebaluazio irizpideak, eta unitate didaktikoa edo ebaluazio aldia hasi baino lehen jakinaraziko dizkie ikasleei.

Ebaluazio unitateak, berriz, honako hauek izango dira:

- Helburutzat ezarritako gaitasunen garapen maila.
- Prozedurazko edukiak, jarrerazko edukiak eta kontzeptuzko edukiak zein mailatan bereganatu dituen ikasleak.
- Proposatutako jardueren balioa eta eraginkortasuna.
- Gelako giroa, gela barruko elkarreraginak eta taldeko egoera.
- Urteko antolamendua eta ikastetxearen funtzionamendua.
- Barne koordinazioa.
- Familien partaidetza.

5.7.2.- Noiz ebaluatu?

Ebaluazio prozesua jarraitua da, hezkuntza prozesuaren baitako tresna esanguratsua, eta hiru fasetan bana litezke prozesu ezberdinak: hasierako ebaluazioa, ebaluazio jarraitua eta azken ebaluazioa.

Hasierako ebaluazioa

Hasierako ebaluazioaren bidez jakiten da, ikaskuntza berriari ekin baino lehen, zein diren ikasleen ezagupen eskemak eta menperatze maila edo gaitasunak.

Hala, ikasturte bakoitzaren hasieran ebaluazioa egiten da ikasle bakoitzak dituen beharrak eta gaitasunak zein diren jakiteko; izan ere, ikasturtearen antolamendua taldearen berariazko ezaugarrietara egokitu behar da.

Programatutako ikaskuntza sekuentzia bakoitzaren hasieran ere egiten da ebaluazioa, taldearen ikaskuntza prozesura eta erantzun beharreko behar jakinetara egokitzeko.

Ebaluazio jarraitua edo prozesu-ebaluazioa

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar, jarraipena edo ebaluazio jarraitua egitea hobesten da, molde honek ahalbidetzen baitu prozesuak aldatzea, egokitzea eta hobetzea. Ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa talde osorako ezarritako ebaluazio irizpide orokorrak eta ikasle bakoitzaren berariazko baldintzak kontuan hartuz egiten da. Ebaluazio jarraituan honako koordinatu hauek kontuan hartuko dira:

- Programatutako ikaskuntza sekuentzia bakoitza bukatzean, programaren prozesua eta lortutako helburuak baloratzea.
- Jarduera programa taldeko ikasleen aurrerapenetara egokitzea eta beharrezkotzat jotzen diren hezkuntza errefortzurako neurriak hartzea.
- Taldearen dinamikarekin erlazionatutako neurriak hartzea.
- Ikasleei eskolako alderdi guztiei buruz duten iritzia eskatzea, euren atsegina maila ezagutzera emateko.
- Ikasturte bakoitza bukatzean, ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzea, eta, ondoren, ikasle bakoitzak dituen gaitasunak eta beharrak zein diren definitzea.
- Ikasturte bakoitzaren amaieran lortutako emaitzak ikusita, irakaskuntzaren azterketa egitea eta Urteko Oroitidazkian jasotzea.
- Irakasleak proiektu komun baten erantzukizuna duen heinean, egindako praktiken ebaluazio prozesua aurrera eraman eta garatzea, bere egoera ulertu, aldatu eta hobe dezan.

Ebaluazioa egiteko, berriz, irakasle bakoitzak edota irakasle taldeak jarraitutako prozeduretatik lortu diren emaitzak aztertuko dira. Prozedurok honakoak izango dira:

- Ikaskuntza jardueren garapenaren azterketa eta ikasleen ebaluazioa.
- Ikasleak gelan, jolas tokian, pasabideetan... zuzenean azaldutako portaera eta iritzien behatzea.
- Familiekin eta ikasleekin egindako galdeketetan eta elkarrizketetan lortu diren iritziak.
- Irakaskuntza prozesua bera eta proiektuen azken emaitza behatzea eta aztertzea.
- Gelan erabiltzeko materialak aztertzea: testu-liburuak, sekuentzia didaktikoak, etab.

Azken ebaluazioa

Ikasturte bakoitzaren amaieran, jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen ebaluazio globala egiten da gainerako irakasle eta gaiekin batera. Funtsezko erreferentziatzat erabiliko dira ebaluazio irizpideak, arlo honi dagozkionak eta baita orokorrak ere.

Halaber, bost ikasturtean behin, gutxienez, eguneratuko da Curriculum Proiektua, irakasleen hezkuntza esku-hartzea ikastetxeko ikasleen errealitatera egokitzeko beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko asmoz.

5.7.3.- Nola ebaluatu?

Informazio teknika desberdinak izaten dira ebaluatzeko, eta curriculum honen erabil-tzaileak hainbat tresna erabiliko du horretan:

- **Behaketa sistematikoa:** behaketa egoera desberdinak definituz (prestatutako jarduerak, berezko egoerak, tailerrak, taldeko jarduerak...) eta egokitzen jotzen diren lanabesen bidez (irakasleen egunekoa, kontrolerako zerrendak, behaketa gidoiak, behaketa eskalak, informazioaren erregistroak...) egiten da.
- **Ikasleen ekoizpenen analisia:** ikasleek ekoizten dituzten testuak jarritako helburuen arabera analizatuz ebaluatzen da.
- **Ikasleei egindako azterketa eta froga txikiak:** mota eta euskarri desberdinen bidez (ahozkoak, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak...) prestatzen dira.

- **Auto ebaluazioa:** ikasleak euren lanaren ebaluazioa egitera bultzatuz lortzen da, nork bere aurrerapena ezagutzeko eta nork bere ikaskuntza prozesua erregulatzeko baliabide gisa.
- **Arlo eta helburuen azterketa:** alde batetik, arloka egiten dira ebaluazio jakinak, eta, bestetik, helburu orokor bakoitzaren emaitzei begira.
- **Banakako txostenak:** ikasle bakoitzari begirako balorazioa txertatuko da ebaluazioan.
- **Taldearen ebaluazioa:** ikasle bakoitzaren ebaluaketaz gain, talde elkarreragina ere baloratu egingo da.

Bestalde, gogora ekar dezagun ebaluazioa ikaskuntza prozesuaren ardatz dela, ikaskuntzaren gainean erregulazioa eta hausnarketa bideratzen dituen neurrian.

Monereok (2001: 228) jakinarazi bezala, “erregulazioa konpetentzia, ezagutza estrategiko eta transferigarria izatea nahi badugu, lagundu egin behar diegu ikasleei esperientzien gaineko kontzientzia izan dezaten. Abiapuntuan erregulazio inplizitu dena erregulazio esplizitu bihurtuko da, baldin eta ikasleak, komunikazioaren eta iritzi trukearen bitartez, horren gainean hausnartzeko aukera badu”. Gelan sortutako jarduera eta ikaskuntza prozesu zein emaitza guztiak izango dira, beraz, behaketa eta adierazpide esplizitu izateko objektu.

Horrez gain, gelan ebaluatu eta atzemandako hutsegite nagusienak lantzea zilegi izango da. Ez dira zigorra merezi duten akastzat hartuko, ikaskuntzan dauden zailtasunen adierazle bezala baizik, eta, horiek hobetzeko bidean, ebaluazio negatiboen arrazoiak bilatuko dira eskura diren teknika psikopedagogikoak baliatuz.

6.- Hizkuntza trataera eta lan antolaketa

Hizkuntza alorrari dagokionez, Lehen Hezkuntzako etapetarako helburu orokorrak, ikastetxeko hizkuntza eredu eta ikastetxea kokatzen deneko ingurunearen egoera soziolinguistikoa hartu behar dira kontuan. Hori aldeztu aurretik argiturik, ondoren azaltzen diren irizpideak hobetsi dira curriculum honetan:

6.1.- Curriculum mailako alderdiak

Euskara estandarra edota horren aldaerak izango dira komunikazio hizkuntza, tokian-tokian, testuinguruak, erabilera eta ezagutza graduak baldintzatuta.

Ikastetxean, irakasleen artean euskara izango da hartu-emanerako hizkuntza, baita ikasleen aurrean, lan-saioetan zein bileretan ere.

Ikasleekin eta ikasleen artean, berriz, irakasleek euskara erabiliko dute harremanetarako: bai gela barruan, bai kanpoan. Beraz, ikasleek eskola jardueretan euskara erabiliko dute eta jolas jardueretan euskararen erabilera sustatuko da beharrezko denetan.

Familiekin izaten diren harreman pertsonalak eta idatziz bidaltzen zaizkien oharrek euskaraz gauzatuko dira, euskara ezagutzen ez duten familien kasuetan izan ezik; kasu horretan elebidunak izango dira (eta beharrezko denetan, eleaniztunak).

Beste zenbait ikastetxe edo erakunderekin, aldiz, komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntzatan egingo dira.

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak

Eskolaz kanpo garatzen diren jardueretan, ondoren adierazten diren erakundeekin bideratuko da elkarlana, euskara erabiltzea sustatzeko:

- Herriko edo inguruko bertso-eskolarekin.
- Euskara eta kultur elkarteekin.
- Irrati, telebista, aldizkari eta beste edozein komunikabiderekin.
- Udalarekin.

Ikasturtean zehar saioak antolatuko dira hizkuntza eta arloarekiko jarrerak bultzatzeko; jarduera horietan ikasleek, irakasleek eta familiekin parte hartuko dute. Saio bakoitzan ikastetxearen Urteko Planean zehaztuko da.

Ikasleak bertso-udaleku, bertso-saio edo bestelako euskarazko aisialdi eta kultur jardueretan parte hartzera bultzatuko dira, eta haietan hizkuntzaren erabilera bultzatuko da, ikaslearen komunikazio beharretara egokitzen saiatuz.

6.2.- Lan antolaketa

Irakasleen antolamendua

Komunikazio gaitasuna izanik arlo honen ardatz nagusia, ardurak banatzeko orduan oso garrantzitsua izango da oinarritzko irizpidetzat pertsonaren komunikazio gaitasuna kontuan hartzea.

Komunikazio lanaren esparruei dagokienez, berriz, honako lan talde hauetan ariko da bertsogintza irakaslea: taldeetako irakaskuntza-taldean eta zikloko irakaskuntza taldean; koordinazio didaktikorako lanetan; irakasle batek ziklo batean baino gehiagotan

irakasten badu, denbora gehien eskaintzen dion taldeko partaide finkoa izango da, eta gainontzeko taldeetan parte hartuko du bere arloarekin lotura duten gaiak lantzen direnean.

Bertsogintza irakasleek astero egingo dituzte tutoreekin koordinazio bilerak, arloaren baitan egiten diren lanek zuzeneko erlazioa izan dezaten gelan garatzen diren eskola zereginekin.

7.- Curriculum proiektuaren ebaluazioa

Bertsozale Elkarteak Curriculum Proiektua garatu du hamar urte baino gehiagoko talde lanaren eta banakoaren eskarmentuan oinarrituz. Hamarkada horretan jorratutakoaren gauzapena ebaluatzeko baliabideak ematea izango da ondorengo eginkizuna.

Proiektua onartzean, Urteko Planean adieraziko dira proiektua gauzatzeko hartutako konpromiso zehatzak. Koordinazio pedagogikorako batzordearen ardura izango da, berriz, irakasle askok egindako ekarpen eta proposamenetan oinarrituta, proposamenok lantzea.

Era berean, honako alderdi hauek ebaluatu beharko dira proiektu honetan:

- Onartutako akordioak praktikara eraman ote diren.
- Zenbait akordio praktikan eramateko garapen eta zehaztapen handiagoa behar ote duten.
- Hartutako irizpideekin bat etorriko den proposamen didaktikoa egitea beharrezkoa ote den.
- Antzeman diren arazoei edo beharrei erantzuteko irizpideak baliagarriak ote diren.
- Irekita dagoen norabidean jarraitzeko edo norabidea aldatzeko prestakuntza prozesuak behar ote diren.
- Aurreikusi gabeko arazoak edo beharrak sortu ote diren.
- Onartutako akordioak baliagarriak ote diren proposatutako helburuak betetzeko.
- Proiektuan proposatzen diren irizpideen arabera erabiltzen ote diren giza baliabideak eta baliabide materialak.

Irizpide horiek aintzat hartuko dituen ebaluazio emaitzak aldaraziko du Curriculum Proiektua; horrez gainera, akordioetan sakontzeko edo akordio berriak gehitzeko beharrak zein diren argituko du.

Batzorde Pedagogikoak Urteko Planean txertatuko ditu irakasleen ekarpenekin aberastutako proposamenak, eta, horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- Berrikuntza proiektuak.
- Prestakuntza proiektuak.
- Aldaketa proposamenak.

Bestalde, bost urtean behin egingo da Curriculum Proiektuaren ebaluazio orokorra, oinarrizko alderdien aldaketak kontuan hartuko dira Urteko Planean eta urtero berraztertuko diren alderdiak zein diren zehaztuko da.

Arloen justifikazioa

Bertsogintzaren ikuspegia zabaldu eta deskribapena zehazteko ahaleginaren emaitza da ondorengo atala. “Hizkuntza eta Literatura” ikasgaiaren txertatu izan da Hezkuntza Arautuan bertsogintza, eta horrek eragin handia izan du komunikazio ekintza honen deskribapen eta lanketan. Ekintzaren ikuspegi linguistiko eta literarioari erreparatu izan zaio askotan, eta oharkabean alboratuta gelditu dira gainerako begiradak.

Nahiz hamaika haritatik tirata deskriba litekeen bertsogintza, hezkuntza esparruan aski ezagun eta landuak diren lau arlo hautatu dira curriculum honetako argazkia osatu eta egokitasuna justifikatzeko: hizkuntza; kultura; musika; trebetasun pertsonalak eta sozialak.

Gogoratu nahi dugu, halaber, lau arlo hautatu izanak ez lezakeela esan nahi ikuspegi horietatik bakarrik azal daitekeen bertsogintza; bai, ordea, komunikazio ekintza hau argitzeko ekarpen handiak egin izanagatik geureganatu ditugula. Horrez gain, argitzea komeni da, arlo bakoitza bere azalpen esparruaz mugatu bada ere, batera ulertzen ditugula bertsogintzaz dihardugunean; beraz, bertsogintza ikas-irakaskuntzan jorratzen dugunetan ere, guztien osotasuna jorratzea eta garatzea izango dugu helburu.

HIZKUNTZA

Gaurdaino, bertsolaritza Hezkuntza Arautuaren barruan kokatu nahi izan denean, gehienetan hizkuntza arloa jo izan da, testuinguru hori ez baitzaio arrotza edo ezezaguna egiten bertsolari. Aurreko urteetako ibilbidean nolabaiteko tradizioa garatu dugu, egungo adituen iritzia kontuan hartuta.

Bertsolaritza bat dator hizkuntza mailan garatu diren ikuspegi berrieekin, eta, hizkuntzaren ikuspegi komunikatibo zein diskurtsiboan oinarrituta, errotiko hiru funtzio hartzen ditugu aintzat: funtzio komunikatiboa, funtzio errepresentatzailea eta funtzio ludikoa.

Ondoko atalean, lehendik ezagun diren baieztapenak hobetu eta aberasteko asmoz, orain artean Lehen Hezkuntzako Curriculumean bertsolaritzan garatu ez diren gai berriak jorratuko ditugu. Gaiok hizkuntza eta hezkuntza arloan sobera ezagunak badira ere, bertsolaritzaren arloan oraindik xehatu gabe daude.

Esanak esan, Hizkuntza arloa honako hiru ataletan banatu dugu:

1. Bertsolaritza euskararen normalizazioan.
2. Hizkuntzaren izaera bertsolaritzan.
3. Gaitasun komunikatiboa bertsolaritzaren lanketan.

1.- Euskararen egoera eta bertsolaritza euskararen normalizazioan

Euskara hainbat hizkuntzak inguratzen du eta inguruko hizkuntza horien unibertsoak euskararenak baino indartsuagoak dira. Euskararen unibertsoa ahulagoa da gainerakoekin alderatuta; horrela izan da iraganean eta etorkizunean ere zaila izango da hizkuntza horiek bezain indartsua izatea.

Egoera horretan ezinbestekoa izango da inguruko hizkuntzekiko harremana izatea, hau da, inguruko unibertsoekin batera bizitzea, eta elkarreragin hori aberasgarria da hizkuntzen ikuspegi eleanitzari begira: hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak, komunikazio aukera eta sareak zabaltzeaz gain, kultura bat baino gehiago ezagutu eta balio-estea dakar. Hala ere, hizkuntzen arteko egoera desorekatuak diglosiaren ataka larrian ezartzen du euskara: inguruko hizkuntzek gizarteko funtzio guztiak betetzen dituzte, baina euskarak ez du ingurune guztietan zorte hori berori.

Hainbat mendetako galera prozesuari buelta emateko asmoz, aspaldi abian jarritako Euskararen Normalizazio Planak Euskal Herriko hainbat esparru ukitu ditu, guztiek izaera bertsua ez izanagatik. Ildo horretatik, normalizazio eginkizunean bertsolaritzak ere badu zer hausnartu, jorratu eta eskainia.

Bertsolaritzak onarpen handia dauka, batik bat, euskal hizkuntza komunitatearen barruan.

Nortasun handia duen kultur ondare gaztetua da, eta une honetan giza balioespen handia duela baieztatzea ere zilegi da. Bertsolariak, hizkuntza komunitatearen partaide gisa, hainbat informazio jasotzen du bere ingurutik, eta handik jasotzen duena prozesatuta bertsoan berrekoitzen dio gizarteari. Ekoizpen horrek, hizkuntza komunitatean esparru linguistiko eta kulturean eragiteaz gain, euskararen normalizazio prozesuari laguntzen dio.

Bertsolaritzak hura jorratzen den eremu soziokulturaletan eragiten du, eta, beraz, hezkuntza esparruan ere eragina dauka. Bertsogintzak, komunikazio ekintza eta transmisio bide dela ulertuta, eskola eta hezkuntza munduan badu bere tokia. Alde batetik, hizkuntzako alorretako ikasgai modura eraldatzen baita, eta, bestetik, eskolako errealitate askotarikoetan (bertso-emanaldietan; eskolako jaialdietan; Santa Ageda eskean; etab.) ere parte hartzen baitu.

Hitz gutxitan laburtuz, ikastetxe barruan eta kanpoan garatzen diren ezagutza eta trebetasunak dagozkien testuinguruan kokatu eta hedatuta ulertzen dugu bertsolaritza.

Antolatzen ditugun jarduerak, hortaz, ez dira eskola eremura bakarrik mugatu behar. Kalera atera behar ditugu eta gizartearen ezagutzera eman. Harreman horretan sortuko den feedbackak euskararen erabilera bultzatu eta aberastu egingo du, eta, horrela, bere presentzia nabariagoa izango da gizartearen.

Bestalde, eginkizun hori betetzeko erantzukizuna ezin izan lezake bertsolaritzak bakarrik, ez gizartearen, ez eskola munduan. Gizarteko hainbat arlo eta esparrutan hizkuntza normalizatzeko ahaleginak egunean-egunean egiten dira. Bertsolaritza euskararen normalizazioaren zati bihurtu gura badugu, beste zenbait esparruk ere ekarpenak egin beharko dituzte, bakarraren ahalegina alferrikakoa izan ez dadin.

2.- Hizkuntzaren izaera bertsolaritzan

Hizkuntzalaritzaren historian, aurreko teorien hutsuneen erantzun gisa eraiki dira teoria berriak (Bronckart, 1985). Oro har, XX. mendearen erdialdera arte, hizkuntzaren ikuspegi gramatikal, estruktural eta funtzionalak gailendu zaizkigu, eta zientziaren jakintza horren ildotik eraiki dira hizkuntza irakasteko metodologiak: hizkuntza idatzari, formaltasunari eta zuzentasunari begirakoak, batik bat.

Hizkuntza idatzia nagusitu da hizkuntzaren ikas-irakaskuntzan, eta ahozko hizkuntza modu sistematiko eta kontzientean jorratzeko tresnarik ez du hezitzaileak izan.

Ikuspegi eraikitzailea da, XX. mendean, hizkuntza ikuspegi zabalago batetik aztertu eta gaitasun komunikatiboari indar eman diona. Azterbide berri honek gizakiak hizkuntzaren bitartez komunikatzeko dituen gaitasunei erreparatu die. Hizkuntza pentsamendua garatu eta norberaren irudikapen nahiz sentipenak adierazteko tresna da, eta gaitasun komunikatiboek baliatuz ulertu eta eraikitzen ditu testuak eta giza elkarrekintzak aurrera eramaten.

Hizkuntza ekintzetan eraikitako testuen ezaugarriak identifikatuz eta orokorpenak egin ez egin dira diskurtsoen sailkapenak. Horretantxe oinarritzen da hizkuntzaren teoria sozio-diskurtsiboa.

Teoria honen ikuspegia soziala da, ahozko zein idatzizko testuak giza harremanetan eta horiek eraginda gauzatzen direla aitortzen baitu. Giza harremanotan eraikitzen diren komunikazio ekintzak diskurtso generotan banatzen ditu Suitzako eskolak, eta horien nolakotasun osoa argitzea du helburu.

Halaber, hizkuntzaren alderdi komunikatiboak bat egin du hizkuntzaren didaktikaren erronka berriekin (Sainz, 2002). Komunikazioaren baitan esangura duten unitateak aztertu, deskribatu eta horiez baliatu ez ezik, diziplina arteko jakintzez elikatu da: ikuspegi psikopedagogikoaz (gaitasun kognitiboak eta hizkuntza trebetasunak aztertzen ditu), ikuspegi pragmatiko-diskurtsiboaz (testuinguruaren eta diskurtsoen izaera aztertzen du), ikuspegi testualaz (testualitatearen ezaugarriak lantzen dira), eta ikuspegi psikosozialaz (giza harremani eta hizkuntzaren kulturari erreparatu zaio).

Beraz, hizkuntzaren alderdi estruktural edo formalari ez ezik, komunikazioaren alderdi zabalari men eginez ekarpen berriak egin dituzte hizkuntzaren deskribapenek eta euren didaktikak.

Era berean, gizartearen behar komunikatiboak aldatu ahala, aldatu egin da hizkuntzaren lanketaren ikuspegia ere. Orain, "komunikazioaren gizartean" bistan da ikasleak ahozko jardunean trebatu behar direla: hainbat generotan, hartzaile desberdinekin, testuinguru anitzetan, etab. Eta horrek guztiak eragin du, batik bat, ahozko hizkuntzaren gaineko ikerketa sakonagoetan murgiltzea.

Oraindik orain, ahozko hizkuntzaren gaineko teorizazioak urriak badira ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio honen jabekuntza eta irakaskuntzari. Didaktikan, halaber, tresna berriak eraikitzen ari dira alor honetan. Aldez aurretik, ordea, ahozko komunikazioa zer den zehaztu beharra daukagu.

Ahozko hizkuntza diogunean ahoz ekoizten ditugun testu mota guztiak kontuan hartzen ditugu: ipuin kontaketa, gertaera edo pasadizoa, debatea, mahai-ingurua, hitzaldia, antzerkia, elkarrizketa, iragarkia, sermoia... eta bertsolaritza bera ere ahozko testu genero gisa ulertzen dugu, nahiz bakoitzak berariazko ezaugarriak dituen.

Ahozko hizkuntza diogunean, halaber, hizkuntzaren ikuspegi globalek proposatzen dizkiguten oinarriak kontuan hartzen ditugu: pragmatikaren, soziolinguistikaren eta diskurtso generoen ekarpenak, batik bat.

Eta hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboari hertsiki loturik ulertzen dugu bertsolaritza bera, hizkuntza ekintza honek berak betitik eta errotik garatu izan baitu, zientziaren ezagutzatik ez bada ere, komunikazioa. Horrez gain, bertsolaritzaren behar komunikatiboek haren irakaskuntzan eragin dute, eta badu zer ekarpen egin hizkuntzaren irakaskuntzan.

Bertsolaritza eta hizkuntza uztartzeko ahaleginean, beraz, honako parametro hauek hartuko ditugu kontuan:

- *Hizkuntzaren egokitasuna*: komunikazio egoerak baldintzatutako parametroei erantzuten jakitea.
- *Ahozkotasuna*: ahozko generoek berezko dituzten ezaugarriak komunikazio beharren arabera hautatzen jakin eta horiez baliatzea.
- *Bertsoa diskurtso genero gisa*: bertsoaren ezaugarri diskurtsiboak ezagutu eta erabiltzen trebatzea.
- *Bertsoa testu molde gisa*: testugintza baliabideak erabiltzen jakin eta egoki kudeatzea.
- *Hizkuntzaren zuzentasun mailak*: komunikazio egoerak baldintzatutako hizkuntza zuzentasuna neurtu eta erabiltzea.

Dena dela, hizkuntzaren ikaskuntzarako ezinbestekoa da ikaslearen inguru hurbila kontuan hartzea. Horren arabera, planteamendu hau egin nahi dugu:

- Giro euskaldunean, berezko ibilbidea edo ikasbide naturala etxean eta inguru hurbilean hasiko da. Eskolak ibilbide horri jarraipena egiten dion neurrian, bertsolaritzak ikaslearen ezagutza aberastuko du.
- Giro erdaldunean, gehiengoaren jatorrizko hizkuntza gaztelania edo frantsesa izanik, eskolak ikasleak euskaraz hitz egitera bultzatuko dituen teknikak bideratuko ditu. Alde horretatik, bertsolaritzak ahozko hizkuntza oinarritzat hartuko du euskararen ikaskuntza prozesua ahalik eta modu naturalenean gauza dadin.

Laburbilduz

1. *Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboak* egindako ekarpenak geureganatu ditugu Bertsolaritzaren Curriculumean; ahozko hizkuntzaren esparruan bertsolaritzak toki bat baduela aitortzen dugu, eta haren arlo ludikoaren esanguratasuna azpimarratu dugu.
2. Helburu komunikatiboak ezarriko dira ikasgelan, eta *bertsogintza jorratuz hizkuntzaren edukiak* txertatuko dira. Hizkuntzaren eta ikas-irakaskuntzaren ikuspegi eraikitzailea hobetsiko dugu, eta, eraikuntza horretan, ikaskuntza esanguratsua ahalbidetuko dugu.
3. *Irakaslea* izango da komunikazio ekintzak eraikitzeko *laguntza tresnak* bideratuko dituena, eta ikasleak ezagutza berriak eraikiko ditu prozesu horretan. Ikasleek gaitasun komunikatibo osoa lortzeko pauso garrantzitsua emango lukete horrela.

3.- Gaitasun komunikatiboa bertsolaritzaren lanketan

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideetan (2005)¹² esaten den moduan, “Bat-bateko bertsogintza komunikazio ekintza da. Entzuleengan, publikoarengan, eragitea du lehen egitekoa, eta horrek, funtsean, emozioak sortzea dakar: alaitasuna, atsekabea, hunkipena, poza, beldurra, errukia, haserrea, harridura... Komunikazio ekintza guztiak bezala, testuinguru batean gertatzen da, une eta gune jakin batean”. Beraz, testuinguruak berak eragina du “bertsolarien komunikatzeko moduan, komunikazioari ezarzen dizkioten helburuetan, eta horretarako erabiltzen dituzten baliabideetan”.

Ezin esan liteke orain artean eskolak hizkuntza gaitasuna kontuan hartu ez duenik. Argi utzi beharra dago, ordea, ikasleak hizkuntza eskuratzea ez dela soilik esaldi zuzenak egiten jakitea, gaitasun komunikatiboaren jabe izatea baino. Hori eskuratzeko prozesuan, bertsolaritza lantzean, ikasleak honako gaitasun komunikatiboak eskuratu behar dituzte: gaitasun pragmatikoa; gaitasun soziologiko eta kulturala; gaitasun diskurtsiboa; gaitasun testuala; gaitasun estrategikoa; eta gaitasun gramatikala.

3.1.- Gaitasun pragmatikoa

Komunikazio-ekintza egoera komunikatiboak baldintzatzen du, lehenik:

- NORK egin eta kantatu behar dituen/dituzten bertsoak (izan liteke bakarrik kantatu beharra, binaka edo taldean).
- NOREN ROLEAN egin eta kantatu behar diren (gaiak baldintzatuko du noren izenean edo tokian kantatu).
- ZER den kantatu behar dena (mintzagaia).
- NORI kantatu behar zaion (xede taldea edo hartzailea).
- NON ari garen (testuinguru geografikoa eta ingurune soziala).
- ZERGATIK gabiltzan bertsoan eta ZER LORTU nahi dugun (helburua).
- NOLA egin behar den (gai librean, ofiziokoa, bakarka, zortziko txikian/handian...).

Aldagai horiek guztiak baldintzatuko dute diskurtoaren egokitasuna. Adibide moduan, ez da gauza bera kartzelako lanean bertsoaldi bat egitea edo txiste bat bertsoan egitea; era berean, ez da gauza bera ikastetxeko ikasleek entzuteko bertso batzuk egitea edo liburuxka batean umeek eta gurasoek irakurtzeko bertso batzuk sortzea.

¹² Bertsozale Elkarte (2005) *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak. 2005eko Txapelketa Nagusia*. (3. orr.)

3.2.- Gaitasun soziolinguistiko eta kulturala

Komunikazio egoerarekin erabat loturik dago gaitasun soziolinguistiko eta kulturala, eta zehazki, kultura edo gizarte jakin bakoitzak hartzailereengan eragiteko eraiki eta garatu dituen komunikazio bitarteko askotarikoekin. Ildo horretatik, norberaren izaerak eta gune zein rol sozialak eragiten du ekoizpenaren itxuran. Honako aldagai hauek hartzen dira aintzat ekoizpenaren nolakotasunean:

- Erregistroa: jardun espezifikoak (haur hizkera; gazte hizkera; hizkera administratiboa; zientifikoa...), formala, neutroa edo lagunartekoa.
- Aldaera dialektala: herriko/eskualdeko hizkera edo hizkera estandarra.
- Gaiari heltzeko modua: zuzena edo zeharkakoa, esplizitua edo inplizitua.

Testuinguru soziolinguistikoak bertsotan egiteko hizkera eta erregistroa baldintzatzen ditu. Hala, nolako gune soziolinguistikoa dugun, eta nolako ekoizle rola hartu dugun, halako aldaera mota hautatu beharko du bertsolariak. Bestela esanda, bertsolariak egokitu egingo du bere hizkera kantatuko duen ingurune soziolinguistikora eta hartu duen ekoizlearen rolera.

Adibide gisa, antzoki bateko bertso-saioan bertso-afari batean baino hizkera arduratua goa erabiliko du; eta ez du berdin kantatuko gazte edo edadetu baten tokian jarrita.

3.3.- Gaitasun diskurtsiboa

Ahozko edo idatzizko testuak ekoiztean diskurtsuak ulertu eta eraikitzeke gaitasuna behar du gizakiak. Ildo horretatik, generoak ezagutzea ezinbestekoa da helburu komunikatiboei eraginkortasunez erantzuteko. Bertsoak, literatur genero den aldetik, berezko ezaugarriak ditu:

- Bat-batekoa edo aurrez eraikia.
- Ahozkoa edo idatzizkoa.
- Kantatzeko sortua.
- Doinu jakinak.
- Neurri askotarikoak.
- Errimak.
- Etenak.
- Betelanak.
- Elipsiak.
- Makuluak, formak eta formulak.
- Azken puntuko kolpearen esanguratasuna.
- Baliabide poetiko-erretorikoak.
- ...

Bertsoa diskurtso mota bat den heinean, haren ezaugarriak ezagutu eta erabiltzen ditu

bertsolariak. Adibide moduan: zortziko handian ofizioka ari diren bertsolariek neurri horretako doinu bat hautatu dute elkarrekintzan jarduteko, errima batzuk darabiltzate, etenak errespetatuko dituzte, etab.

3.4.- Gaitasun testuala

Bertsoak zedarritzen dituen moldeetan testuak eraikitzen dira. Bestela esateko, testuinguru komunikatiboak eraginda, testu mota, diskurtso jarduera edo sekuentzia mota ezberdinak berreraikitzen dira bertsoen bitartez: argudioa, narrazioa, instrukzioa, elkarrizketa, azalpena, etab.

Eta testu horiek berreraitzeko nahitaezko dituzte komunikazioan parte hartzen dutenek testuratzeko mekanismoak:

- TESTU MOLDEA EDO MAKROEGITURA. Testu mota bakoitzak bere egitura izaten du (ezberdin egituratzen dira, adibidez, argudio eta narrazio testuak, edo ofiziotako edo bakarkako saioak).
- EDUKIEN ANTOLAKETA. Bertso bakoitzean edo bertsoaldi bakoitzean ekoizleek mintzagaiaren edukiak antolatzen dituzte (atzekoz aurrera, puntuka, bertsoa...)
- KOHERENTZIA. Mintzagaiaren garapena koherenteki garatu eta azaleratuko du bertsolariak, mintzagaia antolatuz eta josiz.
- KOHESIOA. Ideien arteko loturak egingo ditu beharrak eragindako lokailu eta juntagailu edo elipsiei esker.
- MODALIZAZIOA. Ekoizleak bere jarrera adieraziko du modalizatzaile eta baliabide erretorikoen bitartez (*agian, ziur, moñoña, bueno, ejem...*).
- KONTUAN HARTZE ENUNTZIATIBOAK. Ekoizleak besteren ahotsak txertatzen ditu bere diskurtsoan (deiktikoak erabiliz; besteren esanak birformulatuz, hitzez hitz errepikatuz, interpretatuz; sozialki ezagunak diren esaerak ekarriz...).

3.5.- Gaitasun estrategikoa

Kognizio mailako gaitasuna dugu hau, eta, neurri batean, hizkuntza artekoa. Komunikazioaren helburuak erdiesteko gizakiak hizkuntza manipulatzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia, eta hizkuntzak ikasteen berebiziko garrantzia du gaitasun estrategikoa garatzeak. Gaitasun estrategikoa landu beharraz dihardugunean, hiztunak komunikatzeko ezintasunean ataka gaitzetik irteteko darabiltzan ihesbideez dihardugu. Eta gaitasun hau bertsogintzari aplikatuta, honako hauek dira bertsolariak darabiltzanak:

- Hasiera eta amaiera formulak.
- Esaera moldeak.

- Lotura makuluak.
- Errima balioanitzak.
- Betelanak.
- Doinuaren luzapenak.
- Sinalefak.
- ...

Bertsoa eraikitzen laguntzeko ezinbesteko laguntza tresnak dira gisa honetako estrategiak, irakasleak bertsogintzaren ikas-irakaskuntzan ezinbestean landu beharrekoak.

3.6.- Gaitasun gramatikala

Gaitasun arlo honen babesean biltzen dira hizkuntzaren zuzentasunarekin lotutako ezaugarriak: hiztegia, fonologia, morfologia eta sintaxia.

Arlo honi eman izan zaio orain artean garrantzi gehien hizkuntzaren ikas-irakaskuntza prozesuan, eta hari begirako azalpen eta ariketak gailendu dira hizkuntza metodologietan ere. Bertsolaritza arloan atal hau ez dago sobera, baina ez da komeni ohiko muturreko zuzentasun zorrotzean jaustea, izan ere, aurreko gaitasun guztien antzera, honetan ere testuinguruak baldintzatuko baitu hizkuntzaren zuzentasun mailaren pisua. Ildo horretatik:

- Esaldi eta pasarte zuzenak sortu behar ditugu, betiere komunikazio egoerak, testu generoek eta ahozko komunikazioak ezartzen dizkiguten parametroei men eginez.
- H1 eta H2ren artean sor daitezkeen interferentziak saihesten saiatuko gara, eta ikasleak euskararen berezko egiturak erabiltzera bultzatu. Bi hizkuntzen arteko lotura logikoak bideratzen ahaleginduko gara.
- Hizkuntzak sinkronian (esparru geografikoan) zein diakronian (historian zehar) izan dituen aldaketez jabetuz, tokian tokiko hizketa-moldera hurbiltzeko ahalegina egingo dugu.
- Hizkuntzaren erabilera egokia bultzatuko dugu, ikasleak komunikazio arrakastatsuak izateko gai izan daitezen. Era berean, hizkuntzaren aberastasunaz kontziente izatea bilatuko dugu.

KULTURA

Bertsolaritzaren Curriculuma osatzen duten lau ardatzetako beste bat da kultura. Ardatz hori gabe, bertsolaritza hizkuntza, musika eta trebetasun pertsonal multzo bat biltzen dituen teknika soil bilakatzeko arriskua legoke, joko didaktiko hutsa izateko arriskua. Agian, interesgarria eta emankorra izan liteke haur eta gaztetxoek garapen intelektual eta linguistikorako, baina nortasunari ez lioke ekarpenik egingo.

Hizkuntza kulturaren transmisiorako tresna bat da. Hala ere, hori ez da bertsolaritzaren irakaskuntzak eman dezakeen aberastasunik handiena, ez bakarria bederen. Arlo honetan landu nahi diren edukiek bertsolaritza bere ekosistema kulturalaren baitan finkatzen dute, euskararen kultura ezagutzeko oinarriak azalduz. Curriculumen helburuek ere zentzu hori dute, herri eta kultura bateko kide sentitzearen zortea eskaintzea lehen mailako hezkuntza osatzen duten ikasleei.

Hala ere, zer-nolako kultura eskaini nahi zaie ikasleei? Zein da gure gizartearen kultura? Erantzun konplexuko galderak dira, hautu sozio-politiko handiak egin behar baitira bilaketa bide horretan aurrera egiteko, baina abiatu ezean ez da inora iristen. Gure kasuan, geldirik egoteak herri eta kultura bezala urte gutxitan desagertzea dakar. Halako atakan, ba ote luke inolako zentzurik bertsolaritzaren irakaskuntzak? Zertarako galdu denbora erabiltzen ez dugun hizkuntza batean hitz jokoak egiten, axola ez zaigun gai bati buruz, ezagutzen ez dugun doinu batean kantatzeko, baliatuko ez ditugun trebetasunak landuz?

1.- Euskal kulturaren ezaugarriak: bizia, dinamikoa eta anitza

Ikasleei bizirik dagoen kultura bat eman nahi diegu, ez “aberatsa izan omen zen” ondare intelektual multzo bat, ez “politikoki berezi bilakatuko gaituen” ezagutza birtual sorta bat. Euskal Herriko gizabanakoengan zentzua duten bizipen, ohitura, sentimendu, trebetasun, jolas, memoria eta erreflexuak berrinterpretatzeko parada eskaini nahi diegu ikasleei, gaur eta hemen errealak direnak, ez historia bat edukitzeagatik bakarrik balioa hartzen dutenak. Baita horregatik ere, baina ez horregatik bakarrik.

Arrazoi horiek guztiak aldakorrek dira, aldatu direnak eta aldatuko direnak. Hain zuzen ere, unean uneko beharrezanetara egokitzeko gaitasuna izateak oso interesgarri egiten ditu oinarritzko irakaskuntzako eduki gisa. Bestela, akaso unibertsitate mailako historialari, antropologo eta abarrentzat baino ez lirakeke ikasgai. Horregatik behar da kultura dinamikoa, etengabeko aldaketan diharduelako.

Azkenik, anitza ere izan behar du; askotarikoa, ezberdintasunean aberatsa eta ugaritasunean anitza. Euskal kultura horrelakoa delako, hainbat kultura ezberdinen ukituek aberastu dutena eta lekuan lekuko berezitasunak hartu dituen: itsasertzekoa eta menditarra, nekazaritza girokoa eta industrial, erlijiosoa eta paganoa, modernoa eta tradizionala, etab.

1.1.- Kultura batua

Curriculum lan honek Euskal Herriko ikasle guztientzako ezagutzen multzo komuna zehaztu nahi du. Arestian esan dugun bezala, gure kultura hain anitza eta aberatsa izanik, beharrezkoa da oinarritzko ezagutzen langa zehaztea, leku guztietan gorputz koherente bera ukan dezan.

Hizkuntzaren parekotasuna erabiliz errazago uler liteke: euskara batua zehazteko eta erakusteko premia daukagu, ondoren bakoitzak gunean guneko euskalkiez aberaste-ko. Antzeko zerbait egin daiteke euskal kulturaren egoerara egokituz, hau da, euskaldun guztiok bateratuko gaituen eta ikasle guztientzat oinarritzko curriculuma izango den gutxieneko kultur edukiak aukeratu (euskal kultura batua) eta lekuan lekuko aniztasuna kontuan hartu (euskal "kulturkiak"). Euskal kultura batuaren aldeko saioak ez du inola ere joan behar lekuan lekuko euskal kultura aniztasunaren aurka.

2.- Kulturaren dimentsioak

Gaur egun gizarte honetan bizi garenon kulturak iturri bat baino gehiago dauka: gure arbaso euskaldunetatik datorrena iturrietako bat da eta gure arbaso ez euskaldunetatik datorrena beste bat. Orain egituratzen ari garen Europako kide izateak sortzen duena ere bai. Ahantzi gabe mundutar izatetik datorkiguna, lur honetako beste edozein herritarri bezala. Bost dimentsio zehaztuko ditugu beraz gure kulturari. Zein ezaugarri datorkigun zein iturritik bereizten hastea lan zaila bezain alferrikakoa iruditzen zaigu. Gureak gutxienez bost dimentsio horiek besarkatzen dituela besterik gabe aintzat hartzea da garrantzia duen bakarra: euskararen eta euskal kulturaren dimentsioa, ukipeneko etorkinen hizkuntzen eta kulturen dimentsioa, estatuetakoa dimentsioa, dimentsio europarra eta dimentsio unibertsala.

2.1.- Kulturak globalizazioan

Gorago aipatu diren bost dimentsio horiek, baina, nola gurutzatu? Ez ote zaizkigu nahaste-borraste horretan ezaugarri batzuk (txikienak) galduko? Halako galderen atzean globalizazio garaioan kultura gutxiagotuen egoera larriaren gako guztiak gordezten dira. Erantzun ulerterrazak ematea zaila bada ere, adieraz dezagun kulturaren dimentsio horiek gurutzatzean zuzenena ikusten dugun hautaketa irizpidea aniztasun kulturala aintzat hartzen duena eta integrazioa aldarrikatzen duena dela, berreskurapen kulturalaren dinamikan sinesten duena, gizabanakoaren askatasun eskubidea, hizkuntza eta kultura propioa duten gizataldeen eskubideak eta ukipenean bizi diren gizatalde eta kulturen arteko bizikidetzak kontuan hartuko lituzkeena.

3.- Bertsolaritza: ertzeko kultur adierazpena

Definitu nahi genukeen kulturaren beste ezaugarri garrantzitsu bat bertsolaritzak bete-betean berezkoa duen eta transmititu nahi genukeen kultura bizi, anitz eta dinamikoak, neurri batean behintzat, beharko lukeena da: errepikaezina, bat-batekoa, une iragankor batean behar komunikatibo eta ludiko bati erantzuteko sortua eta hortik kanpo zentzua galtzen duena. Kulturaren sortzaile izatea garrantzitsuagoa da, hartzaile edo kontsumitzaile izatea baino. Edonola ere, ezin ahantz dezakegu kultur adierazpenek publikoarekiko elkarreragina beharrezkoa dutela, eta ezaugarri hori are nabarmenagoa da bertsolaritzaren kasuan.

Euskal kultura definitzea komeni da, gure kultur errealitatera hurbiltzeko lurralde politikorik neurri definitzaitzat jo gabe. Horregatik, euskal kultura diogunean euskararen inguruan ardaizten den kulturaz ari gara.

Gaur egungo haur eta gazteak kultur ondarean barneratzeko bidea izan liteke bertsoa, kantuen bidez komunitate baten oroimenean parte hartuz.

MUSIKA

Komunikatzeko, mezuak helarazteko, modu ugari dago, eta gure inguruan horretarako hainbat bide ikus ditzakegu. Bertsoa komunikaziorako bide den aldetik, buruak, ezterriak eta gorputzak eskaintzen dizkiguten baliabideak erabiltzen ditugu gure helburu den komunikazioa ahalik eta arrakastatsuenaz izateko.

Musikari dagokion arlo honetan, kantua lantzeaz arduratuko gara, beraz. Kantatzean, mezua entzuleari helarazteko doinua izaten dugu oinarri. Zein doinu aukeratu? Zeren arabera? Zein erabilera eman doinuari? Nola kantatzen dugu? Zein eragin du kantuak gure inguruan?

Gaur egun musika heziketa oinarritzko heziketaren ezinbesteko elementu gisa ulertzen da, ikaslea musika tresnek nahiz giza ahotsak sortutako soinu errealtatearen behaketan, analisian eta balorazioan trebatzeko. Halaber, haurrak musika jardueretan parte hartzeko eta musikak gaur eguneko gizartean duen zereginaz jabetzeko xedea nabari da.

Pertzepzio musikalak edo entzuketa aktiboko jarduerak soinu munduarekiko sentsibilizazioa dakar. Horrela, ikasleriari ingurunerik hurbilenerako soinuak identifikatzeko, bereizteko eta aztertzeo aukera ematen zaio.

Beti esan izan da bertsoaren zutabeak hiru direla: errima, neurria eta doinua. Bertso gintzan lehenengo biei berebiziko garrantzia eman zaie, eta, neurri batean, musika bigarren maila batean utzi da berez ikas daitekeenaren arduratutako. Aitzitik, kontuan hartu behar dugu musikak, kantuak edo zehatzago esateko, bertso-doinuek eragin handia dutela, batetik, bertsoaren osaketan, eta, bestetik, aurretik aipatu bezala, komunikazio gaitasunen garapenean.

Alde horretatik, ahotsa adierazpena eta komunikazioa garatzeko bitarteko ideala da, bere jardueran bikoitza erabil baitezake, hizkuntza eta kantua, alegia. Horren ondorioz, abestien ezagutza abantaila bihurtzen da gaur eguneko ikasleen artean. Kontuan hartuz musika hezkuntzaren xedea ikasleria musika interprete, entzule eta hartzaile gisa nahiz sortzaile gisa prestatzea dela, beharrezkoa da musika tekniken hastapenen eza-gutzara hurbiltzea.

Horrela, jardueran interpretatzaile, sortzaile eta entzumenezkoetatik abiatuta, hurrek soinuez, erritmoez eta kantuaz beraz gozatu behar dute eta horiekin jolas egin, euren sen musikala garatu eta soinu-ingurunearen aurrean kritikoak izateko.

Bertsoaren osaketari dagokionez, doinuak berak erakusten digu era natural batean bertsoa neurtzen. Orokorrean silabaren kontzeptuak oinarritzen du ikasketa-irakas-kuntza prozesua; baina neurriaren oinarria doinua da. Doinuan oinarritutako bidea

naturalagoa, eraginkorragoa eta ezinbestekoa egiten da. Bertsoaren osaketak, beraz, doinutik abiatu behar du. Horrela, ikasleek hizkuntzaren baliabideak erabiltzeko oztopo gutxiago izango dituzte laburdurak, hitz elkarketak eta bestelako baliabideak era naturalean asimilatuz.

Bestalde, musikak berak bertsolari eta ikuslearen arteko komunikazioan eragin nabaria du, beraz, Hezkuntza Arautuan horretan eragitea ezinbestekoa da. Hori bertsolaritzara bideratuz gero, beharrezkoa da ikasleak doinu multzo zabal bat menperatzea esan nahi duenaren arabera bata edo bestea aukera dezan, komunikatzeko baliabide gisa erabiliz. Ikasleak, horrela, bere ahotsa ezagutuko du, baita dagokion helbururako erabiltzen jakin ere. Hori guztia komunikazio egokia lortzeko oso lagungarria da. Norberaren ahotsaren baliabideak ezagutzeak, doinu egokia aukeratzeak bezala, doinu hori egoki interpretatzeko aukerak emango dizkio ikasleari, bertsoaren zati batean edo bestean enfasia jarriz, abiadura azkartuz, bukaeraren iraupena luzatuz, intentsitateak aldatuz, isilune edo eten egokiak eginez eta, zergatik ez, doinua eraldatuz.

Horretaz guztiaz jabetzeko entzumena lantzea oso garrantzitsua da. Besteak entzunez norberak ere ikasten du: besteek ahotsaren baliabideak nola erabiltzen dituzten ikusita, ikasleak ere apurka-apurka horiek guztiak erabiltzen hasiko dira. Horrek guztiak, era berean, eragin zuzena izango du ikasleen jarreran. Horrela, entzuten ikasiko dute, haien izaera kritikoa bultzatuko da eta ekoizpenen balorazioarekiko jarrera positiboa landuko dute.

Bestalde, kantua gure gizartean oso txertaturik dagoen esparrua da, eta, ondare kulturala den aldetik, Euskal Curriculuma garatzeko ezinbestekoa. Egoera ugari argitzen saiatuko gara, beraz: nolakoa den gure ingurune hurbil zein urruna, zein den bere eragina gudan, zein diren eskaintzen dizkigun aukerak, zertarako erabil daitekeen... Euskal ohitura askotan aurki dezakegu bertsoaren lekukotasuna (Santa Eskeko koplak, gabonetako abestiak, etab.) eta hori lagungarri gerta liteke ikasleak kulturaren bidean barna ibilarazteko. Gure tradizioan bertsoa sarri agertu izan da musika tresnekin uztartuta, trikitixarekin bereziki. Gainera, gerora bertsoen egitura duten doinuak erabili izan dira musika estilo askoren sorkuntzarako. Horrek ere bidea eman lezake zirrikitu atsegin batetik bertsoa hurbiltzeko.

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuz, arlo hau elkarren osagarri diren bi multzotan bereizi dugu: gizabanakoari dagokiona eta gizakien arteko elkarrekintzari dagokiona. Zer da kantua gizabanakoarekiko loturan? Zein dira bere ezaugarriak? Hori guztia nola landu?

Horren guztiaren bitartez, bertsolaritzaren munduan horren garrantzizkoa den arloa aztertzen eta gozatzen jardungo dugu, horretarako bere esparru guztiak ezagutuz.

TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK

Bertsolaritza aipatu bezain laster hizkuntza eta musika (doinuak) datozkigu burura; berez, hizkuntz gaitasuna lantzeko erabili izan da luzaroan, baina pertsona hartzaile beharrean, sortzaile edo partaide aktibo bihurtzen denean, berak adierazitakoa bere izaera pertsonal eta sozialaren isla izango da. Bertsolaria bertsoa osatzeko hizkuntza eta teknikaren jabetza duen pertsona baino gehiago da. Izan ere, trebetasun pertsonal eta sozial jakin batzuk beharrezkoak dira bertsolari izateko eta oso lagungarri eguneroko bizitzaren hainbat alorretarako.

Bertsolaritza ahozkoa da, inprobisatua, jendaurrekoa. Sormen ekintza errepikaezina da, gertatzen den uneari erabat atxikia eta entzuleekiko feedbackean oinarritzen dena. Jendaurreko inprobisazioa izaki, trebetasun ugari eskatzen ditu: norbereganako konfiantza, besteen lekuan jartzen jakin eta besteak ulertzea, edozein egoeratarata egokitzea, norberaren emozioen erregulazioa, jendaurrekotasuna, komunikatzaile ona izatea, oroimena, gauzak hainbat eratarata adierazten jakitea, ikuspuntu desberdinak erabiltzeko gaitasuna... Bertsolaritzaren bidez trebetasun pertsonal eta sozial ugari landuko ditugu.

1.- Trebetasun pertsonalak

Trebetasun pertsonalei dagokienez, norbere buruaren irudi positiboa izatea beharrezkoa da jendaurreko edozein jarduera egoki egin nahi bada. Bertsolariak gaia ikuspuntu ezberdinetatik hausnartu, testuinguruarekin erlazionatu eta jendaurrean azaltzeko modu dibergentea erabiltzen du. Mimetismoak gaindituz erantzun propioak bilatzen ditu, ideiak ahalik eta era egokienean antolatuta.

Inteligentzia emozionalak berebiziko garrantzia du atal honetan. Izan ere, funtsezkoa da gure bizitzako edozein egoeraz egiten dugun diagnostikoan asmatzeko eta aurreikusitako helmugetara hurbilduko gaituzten estrategiak sortzen lagunduko diguten neurriak aurkitzeko. Kanpora begiratu eta miresten ditugun pertsonekin geure burua konparatzea estimulu ona izan daiteke ("zergatik ezin dut nik beste hainbeste egin?"), baldin eta era positiboan egiten badugu (ez imitatzeko asmo hutsez) eta inoren arrakastatik geure izateko modura, gaitasunetara eta egoera pertsonalera egokitu daitezkeen ondorioak ateratzen baditugu. Sentipenekin lotutako inteligentziak edozein ekintza edo adierazpen baldintzatuko du oholta gainean. Hortaz, bere garapena nabarmena da. Bertsogintza, norbere behar, desira, beldur eta esperientziak adierazteko bitartekoa izan daiteke. Behar-beharrezkoa da horretarako horiek guztiak ezagutu, barneratu eta erregulatzea.

Paperezko euskarririk ezean, bat-bateko bertsolaritzak oroimena baliatzen du teknika eta transmisiorako tresna indartsu gisa. Horretarako, oroimen mota ezberdinak landu behar dira: epe laburrekoa teknikarako, eta epe luzekoa, teknikarako ez ezik, baita

oroimen kolektiboaren partaide izateko ere. Gauzak argi uzteko, bertsolaritzaren bitartez hiru oroimen mota lantzen dira:

- **Berehalako oroimena.** Garunean kontzienteki oso denbora laburrean mantentzen dena da. Bertsolariak bat-bateko bertsoak harilkatzeko erabiltzen du, epe motzeko oroimenean gordetako kontzeptuak lotzeko. Kasu honetan, esandakoa hitzez hitz errepikatzeko gaitasuna dago, testua oroimen aktiboan gordetzen delako.
- **Epe motzeko oroimena.** Berehalako oroimenak baino pisu handiagoa du, oroimen aktiboan eta pasiboan kokatzen delako. Oroimen aktiboak laster ezabatzen du, baina oroimen pasiboak kontzeptu nagusia gordetzen du. Kasu honetan, esandakoaren kontzeptu zehatz batzuk gogoratzen dira, hitz multzoak.
- **Epe luzeko oroimena.** Galtzen zailena. Orokorrean, oroimen mota honen erabilera intenzionala izaten da bertsoen kasuan. Bestela esanda, bertso zaharrak ikasten ditugunean oroimen mota hau erabiltzen dugu biltegi gisa. Intenzionala den kasuetan, ikasitakoaren osotasuna ez bada, parte handi bat gogoratuko dugu. Akzidentala den kasuetan, ordea, esanahi handiko kontzeptuak barneratuko ditugu soilik.

Entzulearen arreta pizteko eta, orokorrean, bertsotan egiteko, irudimen handia behar da. Halako trebetasunak berezki asko baldin badu ere, sormenaren aukerak ezagutu eta baliatu behar dira.

2.- Trebetasun sozialak

Trebetasun sozialei dagokienez, jendurrekotasuna da bertsogintzaren langai nagusia. Jendaurrean egoten jakitea, urduritasuna bideratzea, kontzentratzea eta transmititzen dena kontrolatzea ezinbesteko dira jendurreko edozein sormen-jardueratarako.

Bertsolaritza talde lana da, antolatzaile, gai-jartzaile, bertsolari eta bertsozaleen artekoa. Bertsolariek binakako gaitan eraikitzen duten bertso alditik hasita, bertso-saio osoa taldean egitera; bertsolaritzaren mugimendu antolatuan ere lankidetzara beti presente dago.

Inguruko baldintzez jabetu, egoera neurtu eta mezu egoki bidez entzulea harritzeko, feedbacka ez ezik, nortasuna eta norberaren izaera ere lantzea beharrezkoa da, besteak beste.

Komunikazio kanalen artean, garrantzitsuena ikusmen bidezkoa da; horretaz jabetu behar dute hartzailea poltsikoan sartzeko. Bertsolaritza, testuari lotutako diziplina bada ere, ez-berbazko komunikazioak orain arte eskaini ez zaion arreta merezi du.

Imintzioak, keinuak, begiradak, lortu nahi den emozioaren arabera jarrerak, mikrofonoaren erabilpenak... bertsoak berak baino gehiago baldintza dezake komunikazioa. Entzuten dena eta aditzen dena ez baita gauza bera.

Adimenezko entzumenak besteen ezinegonak antzematen eta beharrianak azaldu baino lehenago aurreikusten laguntzen digu. Bertsolariak arretaz begiratzen dio publikoari, arretaz entzun eta ikusten ditu bertsoak eurengan eragiten dituen emozioak, eta horren arabera egokitzen du bere jarduna.

Entzule ona izateko ezinbestekoa da entzule aktiboa izatea, hitz egiten uztea, jakinmina edukitzea, kritikoa izatea eta irekita egotea. Baina hori guztia izanda ere, entzumen baldintzatzen duten faktoreak ezin dira ahaztu gabe utzi: testuingurua, entzulearen egoera emozionala, bere esperientzia eta ezagutza, igorlearekiko konfiantza maila, praktika soziala... jendaurreko edozein hizlarik bezala, bertsolariak ere horren guztiaren menpe sortuko du entzuleriarengan desio duen eragina.

Bertsolariak edozein egoerataraz egokitzen jakin behar du. Haserretzea badagokio, haserrealdia adierazten du, baina, diskurtsoa gatazkatsua izan arren, bertsolarien arteko harremana indarturik atera daiteke. Erlazio gaitasunak eskuratzeko langai polita da bertsolaritza.

Bakoitzaren ikuspuntua zein den ahaztu gabe besteena ulertzeko gai izan behar da bertsotan egiteko. Besteen egia ulertzeak, konpartitzeak edo adierazteak ez du esan nahi norberaren printzipioak traizionatzen direnik; hala ere, ariketa polita da elementu horiek etengabe errebisatzeko joera hartzea.

3.- Hezkidetzaren ikuspegia

Curriculum oro har eta bereziki atal hau praktikan jartzerakoan, hezkidetzari arreta berezia eskaintzea beharrezkoa da: femenino eta maskulino arteko ezberdintasunak ezin ditugu alde batera utzi trebetasun pertsonalak eta sozialak lantzerakoan.

Sexu generoaren arabera, emakumeei eta gizonei rol ezberdinak egokitu zaizkigu gure gizartean, eta eremu publikoa gizonei zegokien espazioa izan da atzora arte. Oraindik orain, espazio publikoan emakumeak urrats garrantzitsuak emanagatik, ezin esan eremu horretan ere parekidetasuna errealitate bat denik. Hala, bertsogintza bera, jendaurreko jardun inprobisatu moduan, gizonetakoak oholtzako protagonista izan dituen adierazpidea izan da orainsu arte, eta azken hamarkadatan emakumea oholtzara igo bada ere oraindik bertsolaritzak bide luzea du egiteko orekarantz.

Gizartean generoaren arabera rol banaketa izateak zera dakar berekin: txikitatik mutilak espazio eta rol batzuek betetzeko hezten ditugula eta neskek beste batzuetarako. Alegia, mutilengan eredu maskulinoari dagozkion giza gaitasunak direla susta-

tzen direnak, eta neskengan, berriz, eredu femeninoari dagozkionak. Galera, beraz, bi ereduetan dago: positiboak diren hainbat giza gaitasun ez baitira sustatzen beste generoko pertsonengan.

Bertsolaritza espazio publikoan kokatzen denez, bistakoa da bertsogintzak eskatzen dituen hainbat ezaugarritarako entrenatuago datozela txikitatik mutilak neskak baino: nabarmena da oso, esaterako, jendaurrekotasunak neskengan eragiten duen lotsa eta ezkutatu nahia. Mutilengan, aldiz, harrotasuna ekarri ohi du, salbuespenak salbuespen, betiere. Autoestimuari dagokionez ere, neskek okerrago baloratu ohi dute euren burua.

Beraz, gaitasun pertsonalak eta sozialak lantzerakoan, oso kontuan hartu beharko da ikasle bakoitzak zer dakarren berekin motxilan (zertan datorren entrenatuta, eta zertan ez den ohitua), bakoitzari laguntzeko bere indarguneetan inpultsoa hartzen eta ahul gunee aurre egiten. Horrek ikasle bakoitzarengan eta talde dinamikan zentratutako prozesu bat eskatzen du, argi izanik bertsogintzaren bidez helburua ez dela maskulinitasunari lotutako gaitasunak soilik lantzea, baizik eta, bi eredutatik edanaz, gizakiarentzat positiboak diren gaitasun guztiak zorrozteko aukera eskaintzea neska-mutilei.

Helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak arloz arlo

Behin ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren gaineko hausnarketak, metodologia proposamenak eta bertsogintzaren deskribapen teorikoak eginik, ageriko curriculumetan zedarritzen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak gauzatzeko helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak aletzea izango da hurrengo lana.

Atal honetan, Lehen Hezkuntzan bertsolaritza lantzeko helburu eta edukiak agertzen dira arloka zerrendatuta –eta bakoitzaren konpetentzia orokorrak zehaztuta–; horietako bakoitzaren edukiak laburtu dira tauletan erabiltzaileari lana errazteko asmoz.

Aurrez, ordea, beharrezko da helburuen, edukien eta ebaluazio-adierazleen zehaztapenak nondik eta nora eraikitzen diren justifikatzea.

1.- Helburuak eta edukiak curriculumean

Hezkuntza jarduerak planifikatzerakoan, lehenik argitu behar izaten dena da zergatik eta zertarako proposatzen diren jarduerak. Behin intentzionalitatea definituta, horretarako tresna egokiak aukeratzea da eman beharreko ondorengo urratsa: edukiak aukeratzea, hain zuzen.

Haurrengan garatu nahi ditugun gaitasunak Etapako Helburu Orokorretan zehazten dira. Horiek adierazten digute zertarako irakasten den irakasten dena. Helburu horiek laguntzen digute edukien karakterizazio (adinari begira) eta antolaketa-erako (etapan zehar eta unitate didaktikoetan sekuentzia egiteko) irizpideak aukeratzen eta zehazten.

Kontuan hartu behar da, bestalde, ezagutzak, oro har, hainbat dimentsio dituela (jarrazkoa, kontzeptuala eta prozedurazkoa), eta hezkuntzaren funtzioa ezagutzaren dimentsio guztiak lantzea dela. Beraz, jarduera didaktikoen dimentsio horiek guztiak uztartu beharko dituzte, aukeratutako ikaskuntzahelburua bat eta bakarra izan arren. Hori identifikatzeak bi modutan laguntzen dio irakasleari:

- Ezagutza eraikitzeko prozesuan ikasleen jarduera bideratzen.
- Irakasleak eman beharreko laguntza mota eta maila aukeratzen.

Antoni Zabala (1993)¹³ hitzak gogoratu, "kultura-kapitalaren" aukeraketa egin beharko da horretarako, betiere kapital hori nori zuzendua den aintzat hartuta. Edukien egokitasuna, esanguratasuna eta baliagarritasuna dira, besteak beste, irizpide garrantzitsuenak hautaketa horretan.

¹³ Zabala, A (1993) "Los enfoques didácticos". In, Coll, C, Martín, E eta beste (1993)

Teresa Maurik (1993)¹⁴ esan bezala, ikastea gizarte jakin bateko kulturaren baitan bizi den ezagutza eraikitzea da, eta hain justu, horren lanketa prozesuak laguntzen dio ikasleari bere adimena, pentsamendua, eta, finean, gaitasun askotarikoak garatzen. Horretarako plazaratzen dira eskolan edukiak. Edukiak, baina, *baliagarri* izango dira proposatutako helburuak lortzeko erabilgarri badira; *esanguratsu* izango dira errealitatearen gaineko edukiak txertatzen baditu; eta *egoki* izango dira ikasleen konpetentzia kognitibora, hots, haien ezagupen mailara moldatuta badaude.

Edukiak, beraz, ez dira helburu hutsak, ikaslearen ezagutza eraldatzeko bitarteko baidir. Hezkuntza Arautuak ez ditu edukiak lantzen edukien ezagutzaz jabetzeko. Aitzitik, edukiak lantzen ditu ikasleek eguneroko errealitatea errepresentatzeko gaitasuna gara dezan, komunikatzeko gaitasuna aberats dezan, gizarte harremanak eta kultur integrazioa eraiki ditzan.

Ildo horretatik, ezinbesteko lan bilakatzen da edukien aukeraketa eta antolaketa egokia egitea ikasleen ikaskuntza esanguratsuari begira. Hautaketa eta egituraketa hau ondoko irizpide hauek kontuan hartuz egiten da:

- **Irizpide epistemologikoak:** zientziari, gaiari edo arloari dagozkie; arloen ikuspegi teorikoari erreparatzen diote.
- **Irizpide psikologikoak:** ikasteko erak edo estrategiak aztertzen dituzte, haurra- ren garapena hartzen dute kontuan.
- **Irizpide pedagogikoak:** ikasteko garaian irakasleak esku hartzeko moduak proposatu eta aztertzen dituzte.
- **Irizpide soziologikoak:** errealitatean edo gizartean oinarritzen dira.

Arlo bakoitzaren curriculum osatzen duen elementu nagusia da edukien multzoa: "gelako aktibitateak antolatzeko erabiltzen den forma kultural eta aukeratutako jakintzen bilduma modura ulertzen da eduki kontzeptua" (Zabala, 1993). Eta edozein arlo- tako curriculumetan hiru motatako edukiak bereizten dira:

- 1. Baloreak, arauak eta jarrerak:** lehenak jarrera desberdinak bultzatzen dituzten prin- tzipioak edo sinesmenak (kooperazioa, elkartasuna...) biltzen ditu; bigarrene- nak, berriz, balore batzuetan oinarritutako jokabideak; eta jarrerak, aldiz, gerta- era edo egoera jakin batzuen gainean aldeko edo kontrako balorazioak egiteko barnegaitasuna.
- 2. Gertaerak eta kontzeptuak:** lehenak datuak erraz norberaganatzeko errealita- teak (gertakari historikoen datak, mendi edo erreken izenak...) dira; bigarrenak, berriz, ezaugarri komunak dituzten objektu, gertakari edo sinbolo batzuk. Kontzeptuek abstrakzio maila jakin bat dute (energiaren definizioa edo Erdi Aroa, esaterako).

¹⁴ Mauri, T (1993) "¿Qué hace que el alumno y la alumna aprendan los contenidos escolares? La naturaleza activa y constructiva del conocimiento". In, Coll, C, Martín, E eta beste (1993)

3. Prozedurak: trebetasunak, teknikak, estrategiak eta abileziak jorratzen dira prozeduren bitartez. Helburu jakin bat lortzera eramaten gaituzten ekintza ordenatu baten multzotzat har litezke prozedurak. Adibidez, grafiko bat gauzatzea edo paisaia bat marraztea. Bi prozedura mota bereiz daitezke:

- *Orokorrak* arlo desberdinetan lan daitezke: ahozko komunikazioa, lanen aurrezpen formala...
- *Espezifikoak*, berriz, arlo baten edo bere eduki atal batenak izaten dira: planoak egitea, informazioa grafiko batean adieraztea...

2.- Ebaluazio-adierazleak

Ebaluaketaren betekizuna da helburuek proposatutako norabideari begiratu eta prozesuaren aurrerapen gradua identifikatzea, handik aurrera hobekuntza helburu eta tresnak mahaigainera daitezen. Bestela esateko, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan egindako aurrerabideak, izandako geldioneak, sortutako zailtasunak eta aurrerapenak baloratzea da ebaluatzea.

Ebaluatuz jabetzen gara aurreikusitako helburuak lortu eta gaitasunak erdietsi ote diren, eta horrela ez denetan, eragozpen kausak detektatzen dira.

Ebaluazioa baina, ez da azken produktuaren gaineko behaketara mugatzen. Ebaluatzea bera ere prozesu bat da, non ikasleen gaitasunak aurreikusi eta horien baitako helburuak jartzetik azken emaitzara arteko ibilbidearen eragile guztiak aztertzen diren. Marko zabal, mugikor eta aldakorra da, beraz, ebaluazioa, baliabide didaktiko gisa ere har genezakeena.

Ikaskuntzaren ikuspegi eraikitzaile eta funtzionala kontuan hartuta, hezkuntza prozesuan parte hartzen du, eta tresna honek ahalbidetuko du egitura hobetzeko bideak proposatu eta eraikitzea.

Ebaluatzeko moduak ugari izan badira ere, honako hauek ekarri nahi izan ditugu gune honetara:

- **Ebaluazio formatiboa:** ikaskuntzaren prozesuan egindako aurrerabideak behatuko dira. Horretarako, ikasleen aurrezagutzetatik abiatu, prozesua aztertu eta azken emaitzara bitarteko bilakaera behatu eta aztertuko da.
- **Ebaluazio sumatiboa:** jarritako helburuaren azken emaitza ere kontuan hartuko da, nahiz eta prozesuan egindako aurrerapenak balio handiagoa izan.
- **Ebaluazio integratua:** prozesuan parte hartu duten hainbat alderdi hartuko dira kontuan (gaitasun edo trebetasunak, jarrerak, talde lana, ikaskideekiko harremana, partaidetza...).

- **Ebaluazio indibiduala:** ikasleen aniztasuna kontuan hartuz, norberari egokitu-tako ebaluazioa gauzatuko du irakasleak, hots, ikasle bakoitzaren aurrerapauso-ak hartuko dira aintzat ebaluatzeko unean.
- **Ebaluazio kualitatibo eta kuantitatiboa:** prozesuaren ebaluazioa kualitatiboki egitea hobesten bada ere, maila kuantitatiboan zehaztea ere baliagarri da.

Emaitzak behatu, aztertu eta baloratzeko tresnak ugariak izaki, honako hauek proposatu nahi ditu curriculum honek:

- **Neurketa tresnak:** segimendu fitxak; Kontrol Zerrendak; ikasleak bere jardueraz egindako balorazioen koadernoak; galdera zerrendak; balorazio eta auto-ebaluazio eskalak; etab.
- **Behaketa materialak:** ikasleen lanak; euren ariketak eta dokumentazioa biltzen dituzten lan karpetak; zeregin kolektiboen apunteak; muralak; lan monografikoak...
- **Elkarrizketa pertsonalak:** ikasle bakoitzari bere errealitatearen gainean hausnartzeko aukera ematen dioten elkarrizketak.
- **Eztabaida eta elkarrizketa programatuak:** lehenagotik aurreikusitako helburu batzuen gainean hausnartzera bideratuko dituzten debateak, jokoak...
- **Jarduera koebalutzaileak:** elkarren arteko prozesuak eta emaitzak epaitzeko inkestak, elkarrizketak, hausnarketa idatzi edo ahozkoak...
- **Autoebaluazioa:** norberak bere ikaskuntzaren gaineko ebaluazioa egiteko galdeketa, testu idatzi edo ahozkoak...

Ondoko atalean, ebaluazio-adierazleak zehaztu dira arloz arlo. Hortaz, eskolaren edo irakaslearen hautua izango da adierazleon sekuentzia eta tresnak zein izango diren zehaztea.

HIZKUNTZA

komunikatzen ikasi

1.- HELBURUAK

- Edozein testu ekoiztu edo jasotzen delarik ere, komunikazio egoerak duen eraginaz ohartu eta hark baldintzatutako parametroez jabetzea.
- Ekoiztutako edo jasotako diskurtsoaren gaineko hausnarketa metalinguistikoa egiten trebatzea (testuingurua, edukien antolaketa eta koherentzia, testuratzte baliabideak, bertsoaren berariazko ezaugarriak, perpaus eta hitz mailako elementuak, etab.).
- Hainbat erabilera eremutako ahozko testuak eta idatziak ulertu, kritikotasunez baloratu eta irakaskuntzako egoera berriei aplikatzen ikastea.
- Hainbat erabilera-eremutako ahozko testuak eta idatziak egoki eta zuzen ekoiztea, eta ekoizpenok kritikotasunez baloratzea.
- Bertsoa edo ahozko beste edozein testu mota osatzea, norberaren pentsamendu egituratuz eta komunikazio bitarteko bihurtuz.
- Bertsolaritzaren eta ahozko komunikazioaren ezaugarriez jabetu eta haien bitartez hizkuntzaren erabilera informal eta formaletan esperimentatzea.
- Hizkuntzak berak eta bertsolaritzak dituen baliabide estetikoek eta komunikatiboek jabetzea eta ahal izanik erabiltzea.
- Euskararen eta bere egoera soziolinguistikoaren ezagutzan sakontzea, gai, alor, erregistro eta hizkeren aniztasunaz jabetuz eta haienganako begirunea indartuz.
- Adierazpen baliabide linguistiko eta ez-linguistikoak erabiltzeko trebetasunak jorratzea, mezuak komunikazio asmo desberdinekin interpretatu eta sortzeko.
- Bertso idatziak irakurtzea eta bestelako bertsoak entzutea gozamen, informazio eta ikaskuntza iturri gisa erabiltzeko, baita linguistikoki eta pertsonalki hobetu eta aberasteko ere.
- Ahozko hizkuntzaren eta bertsolaritzaren trebetasunak jorratzeak komunikazioaren gizartean eraginkortasunez komunikatzeko tresnak eskaintzen dituela ohartu, horiek balioetsi eta horietaz baliatzeko jarrera baikorra erakitzea.
- Hizkuntzari buruzko gogoeta egitea, klasea, arraza, sexua eta abarri buruzko balio eta aurreiritzien gainean, bidezko diren zuzenketak egiteko xedearekin.

2.- EDUKIAK

2.1.- JARRERAK

- Norbere eta besteren komunikazio beharrak asetzeko ahozko eta idatzizko hizkuntzaz baliatzeko gaitasun, trebetasun eta ikaskuntza autonomoaren beharraz jabetzea.
- Hizkuntzaren eta munduaren arteko elkarreraginaz ohartu eta eraikitako diskurtsoak jarrera kritikoz baloratzea.
- Gizartearen egoera soziolinguistikoaz jabetu, eta eleaniztasuna ontzat hartuz hizkuntza minorizatuenganako begirunea indartzea.
- Inoren lana eta iritziak errespetatu, lankidetzaz bultzatu, eta ekimen eta arduraz jokatzeko.
- Euskara normalizatzeko, euskalkien aniztasunaz arduratzeko eta euskal kulturaren transmisioa sustatzeko nahiz partaide izateko jarrera baikorra garatzea.
- Sormena, irudimena, sentsibilitate estetikoak eta originaltasuna landu eta behatzeko interesa piztea edozein komunikazio adierazpidean.
- Bertsogintzak ahozko eta idatzizko komunikazioan duen adierazkortasunarekiko interesaz jabetzea.
- Bertsolaritza jendaurreko komunikazio trebetasunak garatzeko tresna baliagarritzat hartzea.

2.2.- KONTZEPTUAK

● KOMUNIKAZIO EGOERAK BALDINTZATUAK

- **Testuingurua eta bere egokitasuna:** mintzagaia, helburua, igorlea(k), hartzailea(k), espazioa eta denbora.
- **Sekuentzia mota eta bere ezaugarriak:** narrazioa, instrukzioa, deskribapena, elkarrizketa, azalpena, argudioa...
- **Testu motak:** hitzaldia, elkarrizketa, asmakizunak, txisteak, komikiak, maitasun adierazpenak, ipuinak...
- **Erregistroa:** formala edo informala; euskalkia edo estandarra; hizkera bereziak; hizkuntza aldakortasunaren azarnak...
- **Baliabide pragmatiko eta erretorikoak:** kortesia, ironia, baliabide eta irudi erretorikoak, errepikapenak, konparazioak, metaforak, paralelismoa...
- **Zuzentasuna:** hizkuntzaren zuzentasun arau adostuak.

● BERTSOAK ETA AHOZKO HIZKUNTZAK BALDINTZATUAK

- **Bertsogintzak berezko dituen ezaugarriak:** doinuak, errimak, neurriak; azken puntuko arrazoa; hoskidetasuna, etenak, laburdurak, luzapenak...
- **Baliabide estrategikoak:** betelana, elipsiak, sinonimoak, makuluak, sinalefak, diptongoak, hasiera eta amaiera formulak, esamolde eginak...
- **Komunikazio parametroekiko egokitasuna:** diskurtso mota hautatzea; gaia garatzea; mintzagaia antolatzea; ideiak jostea; hartzailea(k) eragitea; hartzaileari erantzuna ematea; etab.
- **Ahokotasunak berezko dituen ezaugarriak:** ez-hitzezko elementuak; elementu proxemikoak, kinesikoak eta paraberbalak; ezaugarri linguistiko-testualak.

● DISKURTSO ERAIKIEN GAINEKO HAUSNARKETA

- Prozedura eta kontzeptuen gaineko hausnarketa.
- Eraikitako diskurtsoaren gaineko metahizkuntza.
- Komunikazio parametroen gaineko kritika eraikitzailea.
- H1 eta H2ren arteko interferentziak.

2.3.- PROZEDURAK

● DISKURTSOAK ULERTU, ETA HAIETAZ GOZATU ETA JABETU

- **Testuaren gaineko aurrezagutzak aktibatu.** Komunikazio egoeraren parame-troez hausnartu.
- **Hipotesiak eraiki eta iragarpenak egin.** Ulermena errazteko estrategiak erabi-li: testuaren helburua irudikatu; parte-hartzaileen rola zehazten ahalegindu; ingurune soziolinguistikoaz hausnartu; hark baldintzatuko lukeen hizkuntza erre-gistroen egokitasunaz hitz egin; jarritako gaiaren garapen posibleak zerrendatu; azken puntuko balizko arrazoiak kanporatu...
- **Testua ikusi/entzun edo irakurri.** Eta aurrez eraikitako hipotesiak gezurtatu edo baieztatu.
- **Testuaren ezaugarriak identifikatu eta baloratu.** Hautatutako doinua; gai-aren zehaztasuna eta bere garapena; egilearen asmoak; elkarrekintza baliabideak; bertsoaren ezaugarriak; edukien antolaketa; koherentzia eta kohesio aztarnak; euskarri poetiko-erretorikoak; hizkuntza formak; etab.
- **Eraikitako ezagutza berria gorde.** Jardueran eraikitako ezagutza Kontrol Zerrendan sailkatu ekoizpen faserako eta hurrengo ulermen faseetarako baliaga-rrri izan dadin.

● DISKURTSOAK IRUDIKATU, JORRATU ETA ERAIKI

- **Jarritako helburuen ezaugarriak zehaztu.** Komunikazio egoeraren parametroz hausnartu eta erabakiak hartu.
- **Ereduak aztertu.** Komunikazio ekintza ezberdinak alderatu; ezberdintasunak identifikatu; elementu diskurtsibo eta linguistikoak sailkatu; komunikazio helburuak erdiesteko baliabideak identifikatu eta haien baliagarritasunaz hausnartu; identifikatutako elementuak egoera ezberdinetan egokitu eta aplikatu...
- **Jarduera diskurtsiboak jorratu.** Jarritako helburuari erantzuteko jarduerak diseinatu: doinuen hautaketa eta ezberdintzea; gaiari heltzeko aukera posibleak; ideien antolaketa; koherentzia eta kohesio baliabideak; azken puntua hautatzea; errima egokien sailkapena; hartzaileari erantzuteko baliabideak; ahokotasunaren ezaugarriak; baliabide poetiko-erretorikoen lanketa; hizkuntza formak eta formulak; etab.
- **Jorratutako ezaugarriak jaso.** Helburua erdiesteko eta auto/heteroebaluazioa sustatzeko beharrezko izango ditugun baliabideen Kontrol Zerrenda eraiki.
- **Ezaugarri landuak erabiliz diskurtsoa eraiki.** Kontrol Zerrendaren laguntzaz testua ekoiztu.

● ERAIKITAKO DISKURTSOAZ JABETU

- Landutako ezaugarriak aztertu eta helburuak bete ote diren baloratu Kontrol Zerrendaren laguntzaz.
- Komunikazio parametroen gaineko hausnarketa sustatu.
- Eraikitako diskurtsuan H1 eta H2ren arteko interferentziak identifikatu eta haien saihesteko errekurtsok baliatu.
- Behatu, aztertu eta ondorioztatutako ezagutza zein trebetasun berriak erregistratu: Kontrol Zerrenda bidez, horma irudietan, ebaluazio fitxetan, lan koadernoan... hurrena ezarriko diren eginkizunetan ikasle eta irakasleentzat baliagarri izan daitezten.

3.- EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Inguru hurbilean bizitako egoerak, ideiak eta ekintzak bertsoen ekoizpenean koherentziaz islatzea. Ekoiztu beharreko bertsoak erabilera esparruetan kokatuko dira (pertsonek arteko harremanak, komunikabideak, literatura eta ahozko komunikazioa eta ikaskuntza).
- Norberak egin beharreko ekoizpenak egokitzea, komunikazio egoeraren eta tes-tuinguruaren ezaugarriak zein diren kontuan hartuz.
- Bertsoaren antolaketa egokia egin eta berorri kohesioa emango dioten oinarritzko prozedurak erabiltzea: atzekoz aurrerakoa, ideien antolaketa, lotura formulak, puntuen autonomia eta erlazioa, eten eta lerroen arteko banaketa...
- Bertsoen esanahi orokorraz jabetzea:
 - Horietan adierazitako ideiak eta horien arteko loturak ulertuz.
 - Bertsoetan agertzen diren baliabide estilistiko eta komunikatiboak interpreta-tuz: esanahi bikoitza, esanahi umoretsua, etab.
- Ahozko testu mota batzuk bereizi eta horien izaera (komunikazio egoera, egitura, testu mota, baliabideak...) islatzen duten oinarritzko elementuak identifikatzen jakitea.
- Ahoz esateko diren testu mota batzuen irakurmena eta dikzioa, hitz-jario egokia erabiliz (trabarik, errepikapenik eta saltorik gabe). Horretarako, testuari dagokion ahoskera, intonazioa eta erritmoa nolakoa izan den behatuko da.
- Bertsoetan edo ahozko beste testu batzuetan euskalkiak, euskara estandarra eta horien arteko harremanak adierazten dituzten hizkuntza elementuak antzematea.
- Euskarak urteetan zehar izan dituen aldaketa diakronikoez jabetzea.
- Bertsoen edo ahozko beste testu batzuen H1 eta H2ren arteko interferentziez jabetzea, eta horiek saihesteko ahalegina erakustea.
- Bertsoek edo ahozko beste testu batzuek sortzen dituzten komunikazio ekintze-tan parte hartzea, egoera horietako elkarreragina posible egiten duten arauak errespetatuz.
- Jasotako edo ekoiztutako bertsoekiko edo ahozko beste testu batzuekiko gus-tuak, preferentziak eta iritzi pertsonalak adieraztea.
- Bertsoa edo ahozko beste edozein testu eguneroko ekintzak gauzatzeko tresna gisa erabiltzea.

KULTURA

pentsatzen eta norbera izaten ikasi

1.- HELBURUAK

- Bertsolaritzaren ondarea ezagutzea.
- Bertsolaritza ezagutzea Euskal Herriko errealitate bizi gisa, eta errealitate horretan parte hartzea.
- Ahozko inprobisazio kantatua ezagutzea kultura errealitate unibertsal gisa.
- Kantuaren bidez oroimenari laguntzea.
- Bertsoa osagai duten euskal ohiturak ezagutzea.
- Bertsoa tresnatzat baliatuz, gure historiako eta inguruneko gertaera eta ikuspuntu sozialak lantzea.

2.- EDUKIAK

2.1.- JARRERAK

● ONDAREA EZAGUTZEA

- Bertsolaritzaren ondarea ezagutzeko gogoia piztea.
- Bertsolaritza baloratzea.
- Bertsolaritzaren ondarea jasotzearen, gaurkotzearen eta antolatzearen garrantziaz jabetzea.
- Bertsolaritzaren ezaugarrien oinarritzko ezagutza izatea.
- Bertsolaritzaren historiaren oinarritzko ezagutza izatea, bertsolari ezagunenak dagokien garaiarekin lotuz.
- Bertso-saio mota ezberdinak bereiztea, bakoitzaren ezaugarriak zehaztuz.
- Bertsogintzari eta teknika orokorrari dagokien oinarritzko lexikoa erabiltzea.
- Bertsolaritzaren baitan ohikoak diren arau zabalak (errima legeak, neurria, etab.) oinarritzko ezagutza izatea.

● BERTSOLARITZA EZAGUTZEA EUSKAL HERRIKO ERREALITATE BIZI GISA ETA ERREALITATE HORRETAN PARTE HARTZEA

- Bertsolariak baloratzea kultura-eragile edo sortzaile gisa.
- Bertsoekiko interesa erakustea eskolan antolatutako emanaldietan eta eskolatik kanpokoetan.
- Bertso-saioaz gozatzea.
- Bertso-saio baten antolaketaren talde lanean inplikatzeta.
- Ekitaldi publiko batean besteen parte-hartzea errespetatzea.
- Saioaren kritika egitea molde eraikitzailean.
- Bestearen iritzia errespetuz entzutea.
- Egungo bertsolaritzaz iritzi kritikoa izatea.

● AHOZKO INPROBISAZIO KANTATUA EZAGUTZEA KULTURA ERREALITATE UNIBERTSAL GISA

- Kultura bakoitzaren ezaugarriak errespetatu eta baloratzea.
- Herrialde desberdinetako kultur adierazpenak ezagutzeko interesa izatea.
- Beste kulturetako emanaldiei buruzko iritzia begirunez ematea.
- Ekoizpen inprobisatua baloratzea, bere neurrira balioa emanez.
- Euskal kultura kultur ondare unibertsaltzat hartzea.

● KANTUAREN BIDEZ OROIMENARI LAGUNTZEA

- Ahoz aho transmititutako bertso eta kantu zaharrak baloratzea.
- Bertso eta kantu zaharren esanahia eta jatorria ezagutzeko jakin-mina izatea.
- Kantatzeko gogoia izatea.
- Taldean kantatuz gozatzea.

● BERTSOA TRESNATZAT BALIATUZ, GURE HISTORIAKO ETA INGURUNEKO GERTAERA ETA IKUSPUNTU SOZIALAK LANTZEA

- Gizarte mailako gaien inguruan ikuspegi kritikoa izatea.
- Iritzia adierazteko interesa izatea.
- Desadostasunak indarkeriarik gabe eta mintzatuz konpontzearen garrantziaz jabetzea.
- Euskara jakin eta euskaraz bizitzearen arteko aldeaz kontziente izatea.
- Sexu, erlijio edo arraza ezberdinekoekiko begirunea izatea.
- Besteen aurrean norberaren iritzia emateko prestutasuna izatea.
- Besteen iritzia errespetuz entzutea.

2.2.- KONTZEPTUAK

● BERTSOLARITZAREN ONDAREA EZAGUTZEA

- Bertsolaritzaren definizioa.
- Bertsogintza: bat-bateko bertsogintza eta bertso jarriak.
- Agenteak: bertsolaria, bertsozalea, gai-jartzailea, epailea, etab.
- Bertso-saioa.
- Bertsogintzari dagokion oinarritzko lexikoa: errima, errimatu, potoa, oina, punta, neurria, bertso herrena, ahapaldia, airea, bertsoa, bertso aldia, bertso-saioa, bertsolaria, gai-emailea, bertsozalea.
- Bertsolaritza babestu eta kudeatzen duten erakundeak: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, bertso-eskolak...

● BERTSOLARITZA EZAGUTZEA EUSKAL HERRIKO ERREALITATE BIZI GISA ETA ERREALITATE HORRETAN PARTE HARTZEA

- Bertsolari garaikideak.
- Saio motak:
 - Jaialdiak.
 - Libreko saioak.
 - Bertso-afari eta -bazkariak.
 - Bestelako lehiaketak.
- Herrialdeetako saio bereziak:
 - Txapelketak.
- Bertso-saio batean egiten diren lanak: binakakoak, bakarkakoak, oinak emanda, hasierako puntua emanda, azken puntua emanda, etab.
- Gaurko bertsolaritza.
- Bertso jarriak:
 - Gaur egungo funtzioak.
 - Bertso-paper lehiaketak.

● AHOZKO INPROBISAZIO KANTATUA EZAGUTZEA, KULTURA ERREALITATE UNIBERTSAL GISA

- Inprobisazioa.
- Ahozko inprobisazio kantatua euskal kulturaren.
- Ahozko inprobisazio kantatua gainerako kultur dimentsioetan: inguru hurbilene-tik hasi eta munduko urrunenera arte.

● KANTUAREN BIDEZ OROIMENARI LAGUNTZEA

- Ahoz ahoko eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa.

● BERTSOA TRESNATZAT BALIATUZ, GURE HISTORIAKO ETA INGURUNEKO GERTAERA ETA IKUSPUNTU SOZIALAK LANTZEA

- Gerra, soldaduska, intsumisioa.
- Naziotasuna, lurraldetasuna.
- Euskaraz bizi.
- Ekologismoa.
- Hezkidetzeta.
- Emigrazioa, arrazakeria.
- Etab.

2.3.- PROZEDURAK

● BERTSOLARITZAREN ONDAREA EZAGUTZEA

- Bertsolaritzaren historia lantzea, garai bakoitzeko ezaugarriak eta bertsolariak aztertuz.
- Sexu, eremu eta garai desberdinetako bertsolarien biografiak osatzea.
- Bertso-saio mota ezberdinak ikusi eta entzun ondoren, ezaugarri bereizleak hauteman eta saioak izendatzea.
- Errimatik hasita, bertso-saio baten osotasunera bitarteko testu zatiak identifikatzea, baita zenbait aldaera (potoa, herrena, etab.) eta komunikazioan ageri diren agenteak ere (bertsolari/bertsozale/gai-emaila).

● BERTSOLARITZA EZAGUTZEA EUSKAL HERRIKO ERREALITATE BIZI GISA ETA ERREALITATE HORRETAN PARTE HARTZEA

- Saio bat ikusi eta saioaren egituraketa aztertzea.
- Bertso-saio bat antolatzea, saio aurreko urratsak bereiziz:
 - Saio mota aukeratu.
 - Bertsolariak eta gai-jartzailea deitu.
 - Saioa iragarri: eskolan, prentsan...
 - Gaiak sortu.

- Saioan egin beharreko lanak prestatzea:
 - Gaiak eman.
 - Bertsoak baloratu.
 - Saioa entzun.
- Saioaren balorazioa egitea, atalez atal.
- Garai bateko bertso-paperak gaurko bertsolarien sortekin konparatzea.
- AHOZKO INPROBISAZIO KANTATUA EZAGUTZEA, KULTURA ERREALITATE UNIBERTSAL GISA
 - Ahozko inprobisazio kantatuaren ezaugarriak identifikatzea: musika, moldea, errima, neurria, kantua.
 - Kultura desberdinetako ahozko inprobisazio kantatuaren ezaugarriak konparatzea.
- KANTUAREN BIDEZ OROIMENARI LAGUNTZEA
 - Bertsoak buruz ikastea.
 - Taldean kantatzea.
 - Bertsoaren lehen lerroa buruz ikastea doinua ekartzeko.
 - Inguruko zaharrei elkarrizketak eginez bertso edo kantu zaharrak biltzea.
- BERTSOA TRESNATZAT BALIATUZ, GURE HISTORIAKO ETA INGURUNEKO GERTAERA ETA IKUSPUNTU SOZIALAK LANTZEA
 - Gai bakoitzari dagozkion bertso sortak kantatu ondoren, diskurtsoa aztertzea.
 - Bertso sorten gaiaren inguruan nor bere iritzia adieraztea.
 - Bertso sorten gaiaren inguruan taldean eztabaidatzea.

3.- EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Bertso-saio batean parte hartzen duten agenteak bereiztea.
- Bertso-saio bat behar den kontzentrazio mailarekin jarraitzea, isiltasun eta parte-hartze uneak ondo bereiziz.
- Saioetako ohiko bertso-lanen motak identifikatzea.
- Gaur eguneko plazetan kantatzen duten bertsolari zenbait ezagutzea.
- Gaur egungo bertsolaritzaz, gutxienez, azaleko iritzia emateko gaitasuna erakustea.
- Bertsoa, ahozko inprobisazio kantatua edo bat-batekotasuna bezalako kontzeptuak naturaltasunez erabiltzea.
- Aurrez landutako kultur adierazpena eta inprobisatuz emandakoa bereizteko argumentuak erabiltzea.
- Ahozko inprobisazio kantatuaren izaera unibertsalaz jabetzea.
- Kultura desberdinetako ahozko inprobisazio adierazpen zenbaiten ezaugarri nagusi batzuk deskribatzea.
- Ahozko testu bat edo zati bat buruz jakitea.
- Ahoz ahoko eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren ohiko mekanismoak ezagutzea.
- Bertso eta kantu zaharrak taldean kantatzeko prestutasuna agertzea.
- Kantuaren bidez buruz ikasitako bertsoak konpartitzea, baloratzea.
- Bertso eta kantuei buruzko norberaren gustuak adieraztea.
- Bertsoen doinua gogoratzeko gai izatea, zenbait bertso zaharren hasierako hitzak erabiliz.
- Koplek eta bertsoek tokia duten euskal egutegiko tradizio ezagunenak identifikatzea.
- Euskal kantutegiko koplak eta bertso sorta batzuk (horien zati bat behintzat) buruz ezagutzea.
- Jai, ospakizun edo bestelako egoeratarako koplek edo bertsoak sortzerakoan, egoeraren testuingurua baliatzea.
- Bertsoak erabiliz, gure historiako gertaera nagusiak identifikatzea.
- Bertsoetan azaltzen diren iritziak eta balioak hitzez adieraztea.
- Ikuspuntu edo iritzi desberdinekiko errespetua erakustea.

MUSIKA

komunikatzen eta norbera izaten ikasi

1.- HELBURUAK

- Musikaren aukerak errepresentaziorako elementu gisa ulertzea.
- Irudikapenerako elementu delarik, musikak dituen aukerak ulertu, barneratu eta komunikazio eta jolas egoeretan ideiak, sentimenduak eta bizipenak era pertsonal, sortzaile eta autonomoan adierazteko erabiltzea.
- Kultur adierazpenak aztertzerakoan eta taldearen ekoizpenak egiterakoan, euskal doinuen ondareaz jabetzea.
- Mezuak ekoiztuz nork bere burua azaltzea eta komunikatzea, horretarako, komunikazio hori erraztu eta posible egingo duten doinuak erabiliz.
- Rol bereizi eta osagarriak erabiliz arte ekoizpenak kooperatiboki egitea.
- Kanturako jarrerak eta gaitasunak lantzea, inguruko doinuak behatu eta erabiliz norberaren ekoizpenak eta autonomia garatzeko.
- Adierazpen eta komunikaziorako baliabideenez, ahotsa erabiltzea eta horren bidez oreka afektiboari eta besteeikiko harremanari laguntzea.
- Norberaren arte ekoizpenetan konfiantza izatea, egiteaz gozatzea eta norberaren gozamen eta ongizateari nola laguntzen dion preziatzea.
- Inguruneko arte adierazpen nagusiak aztertzea kultur ondarearen elementu nabarmenenak ezagutu eta errespetatzeko, interpretatu eta baloratzeko.

2.- EDUKIAK

2.1.- JARRERAK

- **BERTSOLARITZA: AHOTSAREN AUKERAK**
 - Arte ekoizpenaren prozesua gauzatzeko poza izatea, adierazpenerako aukera berriekin probak eginez eta estereotipoak gainditzen saiatuz.
 - Doinuaren eta bertsoaren mezuak ulertzearekiko jarrera baikorra izatea.
 - Entzute arauak baloratu eta horiekiko begirunea izatea, komunikaziorako beharrezkoak direla kontuan hartuz.

- Bertso edo arte ekoizpenen balorazio kritikoa egitea, norberak bakarrik eta talde lanean.
- Elementu desberdinen azterketarekiko jarrera baikorra izatea.
- Isiltasunaren garrantziaz jabetzea, musikaren oinarrizko elementua denez, norbakoaren orekari begira.

● DOINUA ELKARREKINTZAN

- Euskal Herriko eta beste herri, talde eta kulturetako arte ondarea baloratzea, eurekiko interesa izatea eta euren adierazpenekiko begirunea adieraztea. Ikasgelako ikasleen arte ondarea ezagutzeko interesa edukitzea.
- Arte adierazpen berriekiko sentikortasun eta interesa izatea, baita agerpen artistikoenekiko begirunea eta arreta ere.
- Ekoizpen artistikoaren prozesua gero eta modu autonomoagoz egiteko atsegina izatea, adierazpen ahalbideak aldatuz eta probatuz.
- Ikuskizunarekiko begirunea izatea. Arte ikuskizunetan ohikoen diren jokabide arauak ezagutu eta gordetzea: puntualtasuna, isiltasuna, parte-hartzea eta entzuteko jarrera.
- Historian zehar izandako agerpen artistikoen aniztasunarekiko sentiberatasuna garatzea, adierazpen eta identifikazio kultural gisa.
- Talde lana baloratzea: inhibiziorik gabeko jarduera, integrazioa, ekoizpenaren eta interpretazioaren kalitatea, talde lana zuzentzen duenarekiko eta talde lanaren araukiko begirunea izatea.
- Besteen adierazpenekiko eta bakoitzak dituen desberdintasunekiko jakin-mina izatea eta horiek onartzea.

2.2.- KONTZEPTUAK

● BERTSOLARITZA: AHOTSAREN AUKERAK

- Kanturako beharrezkoak diren kontzeptuak: erlaxazio eta arnasketa, tentsio eta distentsioa.
- Musikaren ulermena: entzutea eta ulertzea.

- Abestien eta musika zatien entzuketa aktibo eta ulerkorra.
- Ahotsa: soinu organikoak, soinua eta isiltasuna, emanaldiaren aldakuntzak.
- Arnasketa, intonazioa eta igorpena.
- Euskal kultur ondarearen bertso-doinu, abesti herrikoi eta tradizionalen errepertorioa.

● DOINUA ELKARREKINTZAN

- Euskal Herriko kanta eta doinuak.
- Bertsolariek eta kantariak erabiltzen dituzten ahots baliabideak.
- Euskal Herriko ohitura tradizioaletako bertsoak eta musika tresnak: soinua, albo-ka, dultzaina, etab.
- Adierazi nahi denaren araberako doinuak.
- Kanturako jarrera desberdinak.

2.3.- PROZEDURAK

● BERTSOLARITZA: AHOTSAREN AUKERAK

- Doinuak aztertzea euskarriari, tipoari, erreprodukzioari... erreparatuz.
- Jarduerak adierazpide artistikoen elementu eta ahalbideen bat-bateko erabilera-rako kudeatzea, irudimenaren garapena bultzatuz.
- Musikaren eta abestien letrak inprobisatzea.
- Ahots, isiltasun, soinu eta adierazpen aukerak analizatzea.
- Soinua aztertzea: altuera, intentsitatea, tinbrearen ezagutza eta aldaketen bereiz-keta.
- Doinuetan agertzen diren elementuak eta horien nolakotasunak identifikatu eta deskribatzea.
- Gaiaren interpretazio objektibo eta subjektiboa jorratzea, emandako mezua(k) eta deskribatutako elementuak kontuan hartuz.
- Soinu estimulu edo proposamenei intuizioz erantzutea.
- Bertsoaldiak, doinuak, musika piezak eta zati txikiak entzutea.

● DOINUA ELKARREKINTZAN

- Pertzepzio aktiboa eta entzuketa arretatsua lantzea.
- Euskal Herriko kultura adierazpenen azterketan parte hartzea.
- Eguneroko egoeretara egokitu diren doinuak erabiltzea.
- Bertso-doinuek eskainitako adierazpen bideak erabiltzera bultzatzen duten ekintzak esperimintatzea.
- Doinuak norberak eraldatzea.
- Abestiak banaka edo taldeka jendaurrean interpretatzea.
- Kanturako jarrera egokiak erabiltzea.

3.- EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Doinu motak identifikatu eta aurretik aztertutakoekin antzekotasun eta ezberdintasun erlazioak ezartzea.
- Kantu ezberdinak ezagutzea, eta elkarrekiko antzekotasunak identifikatzea.
- Ahotsaren adierazpen baliabideak egokiro erabiltzea inprobisaziorako eta kanturako tresna gisa.
- Arte edo adierazpen mota ezberdinak integratuko dituzten arte ekoizpen soilak gauzatzea, banaka nahiz taldeka.
- Doinuaren aukeraketa helburu baten arabera izatea.
- Doinuen aukeraketaren zergatiak ohartzea, eta, beste batzuek egindako aukeraketari erreparatuz, logika baten barnean sortzea norberarena.
- Doinu multzo zabala izan eta interpretatzen jakitea, jarrera eta gaitasun ezberdinak adierazteko.
- Kanturako doinua ezagutzeaz gain, doinu horri adierazkortasuna ematea.
- Taldeko arte ekintzak eta ekintza ludikoak egitean inhibiziorik gabe parte hartzea, besteak beste, doinu, egoera, giro edo kantatzeko era ezberdinak proposatuz eta irtenbide propioak bilatuz.

- Taldeko ekoizpenetan gustura aritzea, horretarako, norberaren baliabide zein inguruaren aukerak erabiliz.
- Kantatzeko era zein doinu ezberdinak logikaz eta arrazoituz komentatzea, lanean dauden elementuak norberaren gustu eta esperientziarekin lotuz.
- Eskolan egiten diren ekoizpenak behatzea, ikasitakoa praktikan jartzea eta egingakoaren analisia egitea.
- Ikasleek ezagun dituzten adierazpenak iruzkintzea: argudio egokiak erabiliz; obran dauden elementuak norberaren esperientzia eta zaletasunekin erlazionatuz...
- Ikasleak bere lana baloratzea, egin dituen aurrerapauso eta akatsei erreparatuz.
- Ahotsaren aukerak ezagutu eta erabiltzen dituela bermatzea (intensitate, isiltasuna, erritmoa...).
- Banaka edo taldeka kantatzerakoan ikasleak hartzen dituen jarrerak baloratzea. Kantatzean gozatzea eta talde giro aproposa bultzatzea.
- Gure ingurune hurbil zein urrunean ezagun diren kanturako lekukotasunak ezagutzea. Hauetatik guztietatik zer ikasia badela ulertzea eta horiekin ere ikas prozesua osatzea, aniztasuna aberastasun iturri gisa hartuz.

TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK norbera izaten eta elkarrekin bizitzen ikasi

1.- HELBURUAK

- Norbere burua, baliabideak eta aukerak ezagutzea.
- Norbere burua baloratzea, autoestimua lantzea.
- Jendurrekotasuna eta norberaren erregulaziorako estrategiak lantzea.
- Taldean autonomiaz eta inizatibaz jokatzeko.
- Norberaren pentsamendua eta baloreak lantzea, jarrera kritikoz eta besteen irizkiak errespetatuz.
- Norberaren sorkuntzarekiko interesa eta motibazioa piztea eta besteen ere baloratzea.
- Ingurune gertaera eta fenomenoak ulertzea eta erlazioak ikustea.
- Erlazio gaitasunak garatzea.
- Komunikazio estrategia eraginkorrak lantzea.
- Entzumen aktiboa lantzea: aditza.
- Epe luzeko eta epe laburreko oroimena lantzea.
- Inprobisaziorako jarrera eta estrategiak lantzea.

2.- EDUKIAK

TREBETASUN PERTSONALAK

2.1.- JARRERAK

● PENTSAMENDUAREN ETA NORTASUNAREN GARAPENA

- Frustrazioen aurrean tolerantziaz eta malgutasunez jokatzeko ahalegina.
- Norbere buruaren irudi orekatua garatzeko interesa.

- Norberaren buruarekiko konfiantza eta estimua.
- Entzuteko jarrera aktibo, kritiko eta irekia.
- Mimetismoa gaindituz erantzun propioak bilatzeko gogoia.

● OROIMENA

- Buruz ikastearen aldeko jarrera positiboa.
- Sortak elkarrekin kantatuz gozatzea.
- Adi egotea.

● SORMENA

- Kontzentrazioa lortu eta mantentzea.
- Ausardia eta norberaren buruarekiko konfiantza.
- Jarrera sortzailea. Sortzeko grina eta plazera.

2.2.- KONTZEPTUAK

● PENTSAMENDUAREN ETA NORTASUNAREN GARAPENA

- Norbere buruaren gaineko kontzeptua eta autoestimua.
- Egia desberdinak/interpretazio desberdinak eta pentsamendu dibergentea.
- Pertsonaren oinarrizko beharrak.
- Baloak.

● OROIMENA

- Epe luzeko oroimena.
- Epe laburreko oroimena.

● SORMENA

- Orijinaltasuna. Irudimenaren eta sormenaren aukerak.
- Inprobisazio motak eta bertsoen inprobisazioa.

2.3.- PROZEDURAK

● PENTSAMENDUAREN ETA NORTASUNAREN GARAPENA

- Aldez aurreko asmoa ezartzea eta egokitzapenak egitea.
- Gai bera ikuspuntu desberdinetatik begiratu eta hausnartzea.
- Erantzuteko modu eta bide desberdinak adieraztea.
- Ideiak antolatu eta planifikatzea.
- Norbere burua zein beste inorena txunditu, kontsolatu, lasaitu edo zirikatzea: efektu komunikatiboa.

● OROIMENA

- Buruz ikasteko teknikak erabiltzea.
- Bukaera gogoratzeko baliabideak erabiltzea.
- Errima zerrendak burura ekartzeko ariketa egitea.
- Bertso sortak buruz ikastea.

● SORMENA

- Edozein egoeraren aurrean zeresana izateko erraztasuna lortzea, horretarako egoera ezberdinetan jarri eta hari erantzuteko eragiketak eginez.
- Sorpresa efektua bilatzeko prozedurak lantzea.
- Istorioak sortu eta gaiak garatzea.
- Uneko egoera, gertaera eta detaileez jabetu eta testuan erabiltzea.
- Kontzentratzeko teknika xumeak ezagutu eta erabiltzea.
- Nora zoazenaren kontzientzia garatzea; atzekoz aurrerako teknika erabiltzea.
- Errimetatik abiatzea.

TREBETASUN SOZIALAK

2.1.- JARRERAK

● JENDAURREKOTASUNA

- Jendaurrean norberaren buruarengan konfiantza izatea.
- Erortzean zutitzen jakitea, ez etsitzea.
- Lanerako eta emateko jarrera izatea jendaurrean, gogoz azaltzea.

● LANKIDETZA

- Ikaskideekiko lankidetzazko jarrera izatea.
- Rol ezberdinak betetzeko prestutasuna izatea.
- Ekimenak piztu zalea izatea.
- Ardurak/konpromisoak hartzeko eta betetzeko prest egotea.
- Norbera taldean integratzeko eta besteak taldean onartzeko jarrera adieraztea.

● KOMUNIKAZIOA

- Entzuteko jarrera eta erantzuteko jarrera hartzea.
- Entzulea harritzeko jarrera hartzea.
- Minik ez eragiteko kontzientzia izatea.
- Entzulearekiko kontrastea sortzeko joera izatea.

● KINESIA

- Komunikazio kinesikoaren bitartez transmititzen denari garrantzia ematea.
- Transmisio kinesikoaren edukiaz kontzientzia izatea.

● ERLAZIO GAITASUNAK

- Diskurtsoaren gainetik harremana mantentzeko gai izatea.
- Adar jotzeak neurtzen jakitea, bai bertsotan bai hizketan.
- Errespetua lortzen jakitea.
- Besteak eta norbera den bezalakoa onartzea.
- Giroa pizteko jarrera izatea, baina protagonismoa egoki kudeatuz eta adar jotzea neurtuz.

● ADIMENEZKO ENTZUMENA

- Entzuten denarekiko jarrera ireki eta kritikoa izatea.
- Aurretiazko iritziak kudeatzen ikastea.
- Beste errealitate eta ikuspuntu batzuekiko interesa adieraztea.
- Sortzailea errespetatzea.

● ENPATIA

- Pentsamolde ezberdinetan leudekeen egia puntuak aurkitzeko jarrera izatea.
- Norberaren pentsamendua zalantzan jartzeko ohitura izatea.
- Printzipio batzuekiko koherenteki jokatzeko jakitea.

2.2.- KONTZEPTUAK

● JENDAURREKOTASUNA

- Jendaurrean egoteko oinarrizko arauak (erritualezkoak eta gizalegezkoak).
- Jendaurreko jarduera desberdinak.
- Bertsolaritza, jendaurreko bat-bateko ekintza.

● LANKIDETZA

- Dialektika eta lankidetza.
- Bertsolaritzaren arloko rol ezberdinak.
- Autoantolaketa.
- Saioen antolakuntza.

● KOMUNIKAZIOA

- Komunikazio aldagaiak (igorleak, hartzaileak, kanalak, mezuak...).
- Komunikazio kanalak: ikus-entzunezkoak, idatzizkoak, ahotsak, hitzak...
- Pertsuasioa

● KINESIA

- Ez-berbazko komunikazioa.
- Gorputza.
- Ahotsa.
- Espazioa.

● ERLAZIO GAITASUNAK

- Sozializazioa / gizarteratzea.
- Pertsonen arteko erlazio eta gatazken ezaugarriak.

● ADIMENEZKO ENTZUMENA

- Elkarriketaren arauak.
- Entzule onaren ezaugarriak.
- Egiaren erlatibotasuna.
- Entzutea eta aditzea.
- Adimenezko entzumena baldintzatzen duten faktoreak.

● ENPATIA

- Tolerantzia.
- Enpatia: sentimenduen inteligentzia.

2.3.- PROZEDURAK

● JENDAURREKOTASUNA

- Jendaurrean portatzeko jarduerak.
- Tentsio handiko egoerak kudeatzea.
- Erlaxazio teknikak ezagutu eta erabiltzea.
- Kontzentratzen ikasteko ariketak.
- Estutasunean norberaren buruarekiko konfiantza indartzea.

● LANKIDETZA

- Ofiziotako lana elkarrekin egitea.
- Rol ezberdinak betetzea (gaiak jarri, epailetza, entzule, antolatzaile...).
- Taldean funtzionatzen ikasteko jarduerak.
- Euren kaxa lankidetzaren bidez funtziona dezaketen ikastaldeak egitea.
- Saioak antolatzea.

● KOMUNIKAZIOA

- Feedbacka esperimentatzea.
- Igorle gisa nortasuna, izaera, xarma eta itxura lantzea.
- Hartzailearen alde aurreko asmoei erantzutea edo sorpresa bilatzea.
- Inguruaren baldintzak baliatzea.
- Bidea irekitzeko proposamen lanketak egitea.
- Egoera neurtzea, mezuaren egokitasuna ezagutzeko.

● KINESIA

- Norberari eroso zaion eta komunikatiboki egokia den postura aurkitzea.
- Nerbio tikak edo keinu/erreakzio inkontzienteak kontrolatzea.
- Begirada kontrolatzea.
- Norberaren ahots tonua aurkitzea.
- Emozioaren eta ahots tonuaren araberako doinuak hautatzea.
- Espazioan kokatzea, mugitzen jakitea.
- Espazioko tresnak (mikrofonoa, objektuak, jantziak, etab.) maneiatzen jakitea.

● ERLAZIO GAITASUNAK

- Egoerara egokitzen jakiteko, jendearekin egoten jakiteko prozedurak.
- Haserretzen jakiteko lanketak.
- Gatazkak kudeatzeko baliabideen azterketa.

● ADIMENEZKO ENTZUMENA

- Entzun aurretik hipotesiak egitea, informazioa iragartzea.
- Ez-berbazko informazioak erabiltzea.
- Galderak egitea.
- Bertsoak entzun eta interpretatzea, interpretazio desberdinak egitea.

● ENPATIA

- Besteen lekuan jartzeko, besteena ulertzeko gai izateko jarduerak.
- Besteena “ulertu” arren, ez onartzeko/arbuiatzeko gai izatea, bakoitzak dituen printzipioak aintzat hartuta.

3.- EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Norbere buruaren, baliabideen eta aukeren kontzientzia izatea.
- Norberaren kontzeptu egokia izatea.
- Jendaurreko egoeretan norbere buruaren erregulaziorako estrategiak erabiltzen jakitea.
- Taldean autonomo izatea eta ekimenak bideratzea.
- Norberaren pentsamendua eta balioak eraikitzea, jarrera kritikoz eta besteen iriz-
tziak errespetatuz.
- Jarrera sortzailea izatea.
- Sortzeko grina eta plazera sentitzea.
- Inguruneko gertaera eta fenomenoak aztertzea eta erlazioak egitea.
- Taldean lan egiten jakitea eta besteen rolak norberegantzeko gai izatea.
- Komunikazio estrategia eraginkorrak erabiltzea.
- Aktiboki aditzea.
- Memorizatzeko teknikak erabiltzea.
- Inprobisazio estrategiak erabiltzea.

Arloetako edukiak taulatan

HIZKUNTZA ARLOKO EDUKIAK (sintesia)

JARRERAK	KONZEPTEUAK	PROZEDURAK
<ul style="list-style-type: none"> Norbere eta besteren komunikazio beharrik asetzeko ahozko eta idatzizko hizkuntzaz baliatzeko gaitasun, trebetasun eta ikaskuntza autonomoaren beharraz jabetzea. Hizkuntzaren eta munduaren arteko elkarreaginaz oharatu eta erakitako diskurtsoak jarriera kritikoaz baloratzea. Gizartearen egoera soziolinguistikoaz jabetu, eta eleantzasuna ontzat hartuz hizkuntza minorizatuenganako begirunea indartzea. Inoien lana eta iritziak errespetatu, lankidetzaz bultzatu, eta ekimen eta arduraz jokatzera. Euskara normalizatzeko, euskalkien aniztasunaz arduratzeko eta euskal kulturaren transmisioa sustatzeko nahiz partaide izateko jarriera baikorra garatzea. Sormena, irudimena, sentsibilitate estetiko eta originaltasuna landu eta behatzeko interesa piztea edozein komunikazio adierazpidedetan. Bertsogintzak ahozko eta idatzizko komunikazioan duen adierazkortasunarekiko interesaz jabetzea. Bertsolaritza jendaurreko komunikazio trebetasunak garatzeko tresna baliagarritzat hartzea. 	<p>KOMUNIKAZIO EGOERAK BALDINTZATUAK Testuingurua eta bere egokitasuna: mintzagaia, helburua, igoilea(k), hartzailea(k), espazioa eta denbora.</p> <p>Sekuentzia mota eta bere ezaugarriak: narrazioa, instrukzioa, deskribapena, elkarrizketa, azalpena, argudioa...</p> <p>Erregistroa: formala edo informala; euskalkia edo estandarra.</p> <p>Baliabide pragmatiko eta erretorikoak: kortesia, ironia, inudi erretorikoak, errepikapenak, etab.</p> <p>Zuzentasuna: hizkuntzaren zuzentasun arau adostuak</p> <p>BERTSOAK ETA AHOZKO HIZKUNTZAK BALDINTZATUAK Bertsogintzak berezko dituen ezaugarriak: doinuak, erimak, neurriak; azken puntuko arrazioa; hoskidetasuna, etenak, betelana, laburdurak, luzapenak, elipsiak, diptongoak...</p> <p>Komunikazio parametroi erantzutea: diskurtso mota hautatzea; gaia garatzea; mintzagaia antolatzea; ideiak jostea; hartzailea(k) eragitea; hartzaileari erantzuna ematea, etab.</p> <p>Ahozkotasunak berezko dituen ezaugarriak: ez-hitzezko elementuak; proxemikoak; kinesikoak; para-berbalak; ezaugarri linguistiko-testualak</p> <p>DISKURTSO ERAIKIEN HAUSNARKETA Prozedura eta kontzeptuen gaineko metahizkuntza</p>	<p>DISKURTSOAK ULERTU, GOZATU ETA JABETU Testuaren gaineko aurrezagutzak aktibatu: komunikazio egoeraren parametroez hausnartu. Hipotesiak eraiki eta iragarpenak egin. Testua ikusi/entzun edo irakurri. Testuaren ezaugarriak identifikatu eta baloratu: hautatutako doinua; gaiaren zehaztasuna eta bere garapena; elkarrekinztza baliabideak; bertsuaren ezaugarriak; edukiaren antolaketa; koherentzia eta kohesio aztarnak; euskari poetiko-erretorikoak; hizkuntza formak; etab. Eraikitako ezagutza bertia gorde</p> <p>DISKURTSOAK IRUDIKATU, JORRATU ETA ERAIKI Jarritako helburuen ezaugarriak zehaztu: komunikazio egoeraren parametroez hausnartu eta erabakiak hartu. Jarduera diskurtsiboak jorratu: doinuen hautaketa eta ezberdintzea; gaiari heltzeko aukera posiblerik; ideien antolaketa; azken puntua hautatzea; erima egokien sailkapena; hartzaileari erantzuteko baliabideak; ahozkotasunaren ezaugarriak; baliabide poetiko-erretorikoen lanketa; hizkuntza formak eta formulak; etab. Jorratutako ezaugarriak jaso Ezaugarri landuak erabiliz diskurtsoa eraiki</p> <p>ERAIKITAKO DISKURTSOAZ JABETU Landutako ezaugarriak aztertu eta helburuak bete ote diren baloratu</p>

KULTURA ARLOKO EDUKIAK (sintesia)

JARRERAK	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK
<ul style="list-style-type: none"> • Bertsolaritza kultur adierazpide gisa baloratzea. • Bertsos-aio edo bertso sorta batekiko harreman esanguratsuan kokatzea. • Kultura-bide landuak eta inprobisatuak bereizi eta baloratzea. • Euskal sorkuntzaren partikulartasuna bere uni-bertsaltasunean kokatzea. • Tradizioko sorkuntzak memorian gordetzeko irrekitasuna garatzea. • Taldeko kantuan parte hartzea. • Hurbileko tradizioak estimatzea eta berauetan partaide egitea. 	<p>Bertsolaritzaren ondarea</p> <p>Bertsolaritzaren ezagutza Euskal Herriko errealitate bizi gisa, eta errealitate horretan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bertsolariak eta bertsolaritzaren mugimenduko agenteak. • Bertsogintzaren oinarriko kontzeptuak. • Egungo bertsogintzaren adierazpide nagusiak. <p>Kantu inprobisatua, kultura errealitate unibertsal gisa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kantu inprobisatua euskal kulturaren eta beste kulturetan. • Inprobisazioa kultura-bide gisa. <p>Kantua oroimenez barneratu eta taldean eman</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahoz ahoko eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa. <p>Bertsoa osagai duten euskal ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kantutegia, eske ohiturak, neurtitza osagai duten kultur adierazpenak (pastoralak, maskaradak...). <p>Bertsoen bidez erakitako historiako eta inguruneke gertaera eta ikuspuntuak</p>	<p>Bertsolaritza Euskal Herriko errealitate bizi gisa ezagutzeko, eta errealitate horretan parte hartzeko</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bertsolaritzaren historia landu, bertsolariak aztertuz. • Bertso-saio mota ezberdinak aztertu. <p>Kantu inprobisatua, kultura errealitate unibertsal gisa ezagutzeko</p> <p>Kultura desberdinetako ahozko inprobisazio kantatuaren ezaugarriak konparatu.</p> <p>Kantua oroimenez barneratu eta taldean emateko</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bertsoak buruz ikasi. • Taldean kantatu. <p>Bertsoen bidez erakitako historiako eta inguruneke gertaera eta ikuspuntuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai bakoitzari dagozkion bertso sortak kantatu ondoren, diskurtsoa aztertu. • Bertso sorten gaiaren inguruan nor bere iritzia adierazi.

MUSIKA ARLOKO EDUKIAK (sintesia)

JARRERAK	KONTZERTUAK	PROZEDURAK
<ul style="list-style-type: none"> • Elementu musikalen garrantziaz jabetzea. • Entzute arauak baloratu eta horiekiko begiunea izatea. • Arte ekoizpenaren prozesua gauzatzeko eta doinu eta bertsoaren mezuak ulertzeko jarrera baikorra izatea. • Bertso edo arte ekoizpenekiko ikuspegi kritikoa izatea. • Euskal Herriko eta beste herri, talde eta kulturetako arte ondarearekiko interesa eta begiunea izatea. • Ikusizunarekiko begiunea azaltzea: puntualtasuna, isiltasuna, parte-hartzea eta entzuteko jarrera aktiboa. • Sorkuntza prozesu musikalen talde lana baloratzea. • Besteen adierazpenekiko eta bakoitzak dituen desberdintasunekiko jakin-mina izatea eta horiek onartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erlaxazioa eta arnasketa, tentsioa eta distentsioa. • Musikaren ulermena: entzutea eta ulertzea. • Entzute aktiboa. • Soinua eta isiltasuna, emanaldiaren aldakuntzak. • Intonazioa eta igorpena. • Euskal Herriko kanta eta doinuak. • Bertsolariak eta kantariak erabiltzen dituzten ahots baliabideak. • Euskal Herriko ohitura tradizionalak eta bertsoak eta musika tresnak. • Adierazi nahi denaren araberako doinuak. • Kanturako jarrera desberdinak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Doinuak aztertu euskarriari, tipoari, erreprodukzioari... erreparatuz. • Doinuaren agertzen diren elementuak eta horien nolokotasunak identifikatu eta deskribatu: adierazpide bokala eta musikala. • Soinua aztertu. • Bertsoaldiak, doinuak, musika piezak eta zati txikiak entzun. • Pertzepzio eta entzute aktiboa landu. • Euskal Herriko kultura adierazpenak aztertu. • Bertso-doinuek eskaintzen dituzten adierazpen bideak erabiltzera bultzatzen duten ekintzak esperimintatu. • Abestiak banaka edo taldeka jendaurrean interpretatu. • Kanturako jarrera egokiak ikasi.

TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK ARLOKO EDUKIAK (sintesia)

JARRERAK	KONTZEPТУAK	PROZEDURAK
<ul style="list-style-type: none"> • Frustrazioen aurrean tolerantzia eta malgutasuna garatzea. • Norbere buruaren irudi orekatua, ausardia, konfiantza eta estimua. Eortzean, etsi gabe jakitzea. • Entzuten denarekiko jarrera ireki eta kritikoa garatzea eta erantzun propioak bilatzeko gogoia izatea. • Kontzentrazioaren garrantziak jabetzea. • Jarrera sortzailea. Sortzeko eta hobetzeko grina eta plazera. Sortzailea errespetatzea. • Lanerako prest eta emateko gogoz azaltzea. • Ikaskideekiko lankidetzako jarrera izatea. Ekimenak piztea eta ardurak/konpromisoak hartzen eta betetzen jakitea. • Norbera taldean integratzeko eta besteak taldean onartzeko jarrera izatea. Besteak eta norbera den bezalako onartzeko jarrera. • Komunikazio kinesikoak jabetzea • Diskurtoaren gainetik haremara mantentzen, adar jotzeak neurtzen eta errespetua lortzen jakitea. • Pentsamoldo ezberdinetan egon daitezkeen egia puntuak aurkitzeko jarrera izatea. • Norberaren pentsamendua zalantzan jartzeko jarrera izatea. • Printzipio batzuekiko koherentzia izateko jarrera garatzea. 	<p style="text-align: center;">KONTZEPТУAK</p> <p>TREBETASUN PERTSONALAK Pentsamenduari eta nortasunaren garapena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbere buruaren gaineko kontzeptua eta auto-estimua. • Pentsamenduan oinarritzko beharrak eta balioak. <p>Oroimena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Epe luzeko eta epe laburreko oroimena. <p>Sormena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Originaltasuna. Inudimenaren eta sormenaren aukerak. Inprobisazio motak. <p>TREBETASUN SOZIALAK Jendaurrekotasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jendaurrean egoteko oinarritzko arauak. • Bertsolaritza. Jendaurreko bat-bateko ekintza. <p>Lankidetzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dialektika eta lankidetzak. Rol ezberdinak. • Autoantolaketa, saioren antolakuntza. <p>Komunikazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio aldagaiak eta komunikazio kanalak: ikus-entzuzunezkoa, idatzizkoa, ahotsak, hitzak... • Pertsuasioa. <p>Kinesia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez-berbazko komunikazioa, gorputza eta ahotsa. • Espazioa. <p>Erlazio gaitasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sozializazioa eta pertsonen arteko erlazio eta gatazken ezaugarriak. <p>Adimenezko entzumena Empatia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tolerantzia eta empatia: sentimenduen inteligentzia. 	<p style="text-align: center;">PROZEDURAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai bera ikuspuntu desberdinetatik begiratu eta hausnartu. • Ideiak antolatuta eta planifikatu. • Efectu komunikatiboa landu. • Buruz ikasteko teknikak erabili eta errima zein bertso sortak buruz ikasi. • Istoriok sortu eta gaiak garatu. • Kontzentratzeko eta erlastatzeko teknika xumeak ezagutu eta erabili, eta tentsio handiko egoerak kudeatzeko ariketak egin. • Jendaurrean portatzen jakiteko jarduerak gauzatu. • Rol ezberdinak betetzeko (gaiak jarri, epailletza, entzule, antolatzaile...) jokoak erabili. • Taldean funtzionatzen jakiteko egoerak esperimentatu. • Igorle gisa nortasuna, izaera, xarma eta itxura landu eta feedbacka esperimentatu. • Hartzailearen alde zurrerako asmoak erantzun edo sorpresa bilatu. • Postura eroso eta komunikatiboki egokia aurkitu eta keinu eta begiradak kontrolatu. • Norberak bere ahots tonua aurkitu eta emozioaren eta ahots tonuaren araberako doinuak hautatu. • Espazioan kokatu eta mugitzen jakiteko lanak egin. • Egoerara egokitzean eta jendarekin egoten jakiteko jarduerak burutu. • Ez-berbazko informazioak erabili. • Besteen lekuan jarri eta besteena ulertzeko gai izateko lanak egin.

Azken hitz hondarrak

Bertsogintzak bere historia luzean jorratutako ibilbideari eutsi izanari eta bere garrantziaz jabeturik berrikuntzei egokitzen asmatu izanari zor diogu ondare historiko-kultural eta linguistiko honen bizi indarra.

Gizartearekin bat zabaldu da azken hamarkadotan bertsoz komunikatu eta gozatzeko unibertsoa, baita errealitate hau transmititzeko egin erak ere. Aldaketak aldaketa, transmisioaren enborrak begitandu du gizarte, komunikazio eta irakaspen premia berrietara moldatzeko beharra badagoela; besteak beste, Hezkuntza Arautuaren esparruan bertsolaritza txertatzea aberats izango dela.

Nahiera horiek erasanda sortu da hezkuntzaren esparrua miatu eta ezagutzeko beharrezana. Halaber, bertsolaritzaren begirada askotarikoak ikaskuntzaren beharretara zorroztu eta deskribapen objektu bilakatzeko nahikaria. Ahalegintxo hartantxe uztartu dira hezkuntzaren zientzien printzipioak eta bertsolaritza deskribatzeko zientzia arlo nagusienak. Halaxe jaio da Lehen Hezkuntzarako Bertsolaritzaren Curriculuma.

Jardunaldi teorikoa erditu da. Oinez hasi, hazi eta hezi egin nahi du orain; garatu. Ezten lanak egin, ezinegona sortu, kontraesanetan erori, gatazka eraikitzaileetan murgilarazi. Eta horretarako aplikatzearen eskarmentua bizitzea da irakurleari egin nahi zaion lehen gomendioa.

Ekinaren ekinak eramango ditu erabiltzaileak jardunaldi praktikoa teorikoaren gailurrean jarri edo hura gaingaitzera. Oinarrietatik abiatutako gauzatzeen kontzientziak bildu eta teoria praktikarekin kontrastatuz ilun-argiak, ondorioak, ateratzea izango da hurrengo lana, eta. bide batez, eman nahi den bigarren gomendioa. Horren guztiaren emaitza izango da dokumentu idatzi honen baliagarritasun mailaren adierazle. Jardun horretan, alabaina, curriculumaren erabiltzaileak eta jardunaren eraikuntza bera izango dira protagonista; ez beste ezer, ez beste inor.

Hirugarren eta azken gomendioa da, kontrara, gorputz berritzea. Praktikaren eta teoriaren soka muturrak lotu, indar berrietara egokitu eta protagonista osatuago bat berreraikitzea. Txosten idatziek izaten dute txokoan utzi eta loak hartzeko arriskua, eta, astindu behar izaten dira esnatzeko, mugitzeko, pizteko... Proiektu honek biziraun behar badu, bizia eman eta eraldatu beharra dauka.

Bibliografía

- Abascal, MD, Beneito, JM eta Valero, F (1997) *Hablar y escuchar. Una propuesta para la expresión oral en la enseñanza secundaria*. Bartzelona: Octaedro.
- Bassols, M (1997) *Modelos textuales. Teoría y práctica*. Bartzelona: Octaedro.
- Bassols, M (Koord.) (2003) *Expresión-comunicación y lenguajes en la práctica educativa. Creación de proyectos*. Bartzelona: Octaedro.
- Bertsozale Ekartea (2004) *Inprobisazioa munduan. Kulturarteko topaketak 2003. Txostenak*. Andoain: Bertsolari liburuak.
- Bertsozale Elkartea (2005) *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak. 2005eko Txapelketa Nagusia*. Sarean erabilgarri: <http://www.bertsozale.com/liburua/epailetza2005/sarrera/sarrera1.htm> [2007ko ekaina]
- Biain, I (1996) "Murgilketarako irakaslearen eginkizuna Komunikazio-elkarrekinzentan". *Jakingarriak*, 32. (46-53)
- Bronckart, JP (1985) *Las ciencias del lenguaje. ¿Un desafío para la enseñanza?* París: UNESCO.
- Bronckart, JP (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por una interacción socio-discursivo*. Madril: Fundación infancia y aprendizaje.
- Cairney, TH (1992) "La conversación sobre el texto: cómo ayudar a los estudiantes a aprender lengua". *Enseñanza de la comprensión lectora*. Madril: Morata.
- Casales, F (2006) "Algunos aportes sobre la oralidad y su didáctica". Sarean erabilgarri: <http://www.ucm.es/info/especulo/numero33/aportes.html> [2007ko ekaina]
- Calsamiglia, H eta Tuson, A (2002) *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel Lingüística.
- Coll, C, Palacios, J eta Marchesi, A (koord.) (2001) *Psicología de la educación escolar*. Madril: Alianza Editorial.
- Coll, C, Martín, E eta beste (1993) *El constructivismo en el aula*. Bartzelona: Graó
- Coll, C eta Onrubia, J (2001) "Estrategias discursivas y recursos semióticos en la construcción de sistemas de significados compartidos entre profesor y alumnos". *Investigación en la Escuela*, 45. (21-31)
- Coll, C, Martín, E eta Onrubia, J (2001) "La evaluación del aprendizaje escolar: dimensiones psicológicas, pedagógicas y sociales". In, C Coll, J Palacios eta A Marchesi (egil.), *Desarrollo psicológico y educación 2. Psicología de la educación escolar* (549-572). Madril: Alianza.

- Dolz, J eta Schneuwly, B (1997) "Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona". *Textos de Didáctica de la lengua y literatura 11*. (77-98)
- Del Río, MJ (1993) *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*. Bartzelona: Horsori.
- Eusko Jaurlaritz (1992): "Komunikazioa eta errepresentazioa". *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (133-154)
- Eusko Jaurlaritz (1992) *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Etaparako Sarrera. Zehar Lerroak. Gaztelania eta Euskara. Atzerriko Hizkuntzak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz (1997) "Haur-Hezkuntza. Esperientzi eremua: Komunikazioa eta errepresentazioa". *Haur-Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Curriculum-Proiektua. Haur Hezkuntzaren esperientzi eremuak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (25-27)
- Garzia, J, Sarasua, J eta Egaña, A (2001) *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale Elkarte.
- Ikastolen Elkarte (2003) *Ahokotasuna ikasgelan. Ahokotasunaren garrantzia eta lanketa curriculum integratuan*. X. Jardunaldi Pedagogikoak. Zarautz: Itxaropena.
- Ikastolen Elkarte (2004) *Ahokotasuna: testuingurua eta esperientziak*. XI. Jardunaldi Pedagogikoak. Zarautz: Itxaropena.
- Jauregi, P eta Huegun, A (2005) *Sentitu*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Lasagabaster, D eta Sierra, JM (ed.) (2004) *La observación como instrumento para la mejora de la enseñanza-aprendizaje de lenguas*. Bartzelona: Horsori. Cuadernos de educación, 44.
- Littlewood, W (1994) *La enseñanza de la comunicación oral. Un marco metodológico*. Bartzelona: Paidós comunicación.
- Lomas, C eta Osoro, A (1993) *El enfoque comunicativo en la enseñanza de la lengua*. Bartzelona: Paidós.
- Monereo, C (koord.) (2001) *Ser estratégico y autónomo aprendiendo. Unidades de enseñanza estratégica para la ESO*. Bartzelona: Graó.
- Ossa, J (Koord.) (2005) *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum*. Sarean erabilgarri:
<http://www.euskalcurriculum.net/data/documents/1/19/26/Derrigorrezko%20eskolaldirako%20Euskal%20Curriculum.pdf> [2007 ekaina]
- Reyزابال, MV (2001) *La comunicación oral y su didáctica*. Madril: La Muralla.
- Ruiz Bikandi, U (ed.) (2000) *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Madril: Síntesis educación.

- Ruiz Bikandi, U (2001) "Ahozko hizkuntza irakastea". *Jakingarriak*, 45. (20-25)
- Sainz, M eta Bilbatua, M (1999) "Proyectos, géneros textuales y modos de intervención en cada ciclo de educación primaria. Una experiencia en modelos de inmersión". *Infancia y Aprendizaje* 86. (57-71)
- Sainz, M (2001) *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia: Erein, Unibertsitate saila.
- Sainz, M (2002) "Hizkuntza didaktikaren erronka berriak". *UEUko Helduen Euskalduntzearen IV. jardunaldiak*. Bilbo.
- Sainz, M eta Garcia, I (2001) "Zer ikasi dute ikasleek sekuentzia didaktikoarekin?" Ikasleen aurretestuak eta ondotestuak. *HIK HASI*. (85-96)
- Sainz, M (2004) "Trabajar la lectura y la escritura, en educación primaria, desde la diversidad". *Instituto Superior de Formación del Profesorado*. (1-32)
- Sanchez, A eta Monfort, M (1996) *Estimulación del lenguaje oral*. Madril: Santillana.
- Sanz, G (2005) *Comunicación efectiva en el aula. Técnicas de expresión oral para docentes*. Bartzelona: Graó.
- Sales Cordeiro, G (2007) "Lenguaje oral: ¿objeto de enseñanza integrada o autónoma?". *Eusko Ikaskuntzako jardunaldiak*. Gasteiz.
- Schnewly, B eta Bain, D (1998) "Mecanismos de regulación de las actividades textuales: estrategias de intervención en las secuencias didácticas". *Textos de Didáctica de la lengua y literatura* 16. (25-46)
- Tardo, Y (2005) "Para una aproximación gnoseológica, didáctica y psicosocial del proceso de enseñanza-aprendizaje de la comunicación oral en el ELE". Sarean erabilgarri: <http://www.ucm.es/info/especulo/numero29/oralele.html> [2007 ekaina]
- Tough, J (1987) *El lenguaje oral en la escuela. Una guía de observación y actuación para el maestro*. Madril: Aprendizaje Visor.
- Tough, J (1989) *Lenguaje, conversación y educación. El uso curricular del habla en la escuela desde los siete años*. Madril: Aprendizaje Visor.
- Vázquez, G (2000) *La destreza oral*. Madril: Edelsa.
- Vigotsky, LS (1983) *Pensamiento y lenguaje*. Bartzelona: Paidós.
- Vilà, M (2004) "Actividad oral e intervención didáctica en las aulas". *Glosas didácticas*, 12.
- Vilà, M (koord.) (2005) *El discurso oral formal. Contenidos de aprendizaje y secuencias didácticas*. Bartzelona: Graó.
- Wells, G (koord.) (2003) *Acción, conversación y texto. Aprendizaje y enseñanza a través de la investigación*. Sevilla: MCEP. Colección Colaboración Pedagógica, 11.

